

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-12-13
EGUBAKOITZA
578. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

2014ko Gabonetan irekiko da museoa"

Juanje Amasorrain | Bergarako Ondare batzordeburua | 6



Bertsolari txapelketako finala, bertatik

Debagoiendarrei galdetu diegu finalaren gainean | 26

GABONAK ETA SANTAMASAK 2013
Agenda, Santamasak... | Gehigarria



Urteurren berezia ospatuko du Ointxe! Saskibaloitza Taldeak | 24



Laboak hasitako bidea dantzaz jantziko dute Arrasaten, bihar | 28

DENON ARTEAN, DENONDAKO

10. urteurrenean *Goiena.net* landu, berri eta atzo, eguna, aurkeztu zuten Arrasateko Kulturategiaren areto nagusian | 2



Iban Arantzabal Goienako zuzendari nagusia, Goiatz Arana *Goiena.net*-eko kudeatzailea, Aitor Izagirre Goienako presidentea, Eneko Azkarate edukien zuzendaria eta Miren Arregi Komunitatearen arduraduna, Kulturategiaren areto nagusian.

JOKIN BEREZIARTUA

Iraunkortasuna, bertako komertzioa eta berrerabilpena Arrasateko azokan

Arrasateko Udalak, Emaus Fundazioak eta Bagarak egitarau mardula prestatu dute *Ganorazko keinuak* izenarekin. Ekimenarekin bat egin dute, gainera, eragile ugari. Bihar, zapatua, beraz, Arrasateko Udal Azoka etorkizun hobea irudikatzeko topaleku bihurtuko da. | 9

SINADURAK

Kontuz jarri telebista | 8
IÑAKI URIZAR

23 | **OIGA** agiria
IGOR ARIZMENDIARRIETA

Herrian bizi, bertan erosi | 36
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 6
IRITZIA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 24 | KULTURA 26
ZURE IRAGARKIAK 31 | TELEBISTA-IRRATIA 32
EZKONTZAK 33 | ESKELAK 33 | NON-ZER 34

Gabon hauetan **Gaes**-ek ilusioz beteko zaitu

GAES Entzumen Zentroak

2x1 PROMOCIÓN PILETAN

%15-eko deskontua audifono eta komunikazio sistemetan

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • BERGARA

Denona izatetik denon artean egina izatera

10. urtemugan, erabilgarri dago jada 'Goiena.net' berritua: erabiltzaileek –norbanako, eragile...– zuzenean edukiak gehitzeko aukera dute orain

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Zu entzun nahi zaitugu, ez zaitetz isildu. Orain hiru urte, Goienaren hamargarrena zela-eta egindako kantuaren pasarte da. "Ez zaitetz isildu, esaguzu [eta guk zabalduko dugu]", izan zen orduko mezua. Hiru urte pasa dira eta Goienako senide gazteagoetako beste batek ere bete ditu hamar, eta *esaguzu* hori bihurtu da "esan ezazu", "tori tresna eta jarri ezazu zerorrek gainerakook jakitea –irakurtzea, entzutea edo ikustea– nahi zenukeen hori". Eta zuk, zuk ere bai, eta zuk ere esazu esatea nahi duzun

DATUA

30.000

BISITA ASTEAN

Goiena.net-en ohikoa da orain; 2010ean, 10.000 bisita asko ziren.

hori, ze intentzioa da zuentzako ez –edo hobeto, zuentzako eta...–, zuekin egitea Goiena. Komunitatearekin.

Eta Goiena osoarena den helburu eta izan nahi duen jarduteko modu hori *Goiena.net* berriak jarri du –hasteko, behintzat– agerian: izan ere, *Komunitatea* –horrela deitua eta adierazia azaltzen dena pantailan– da webgunearen berrikuntzetako bat, nagusia jarduteko moduari dagokionez –edukiari begirata, *Aurreztu.com* da beste bat, eta *Gida* atala ere badator berrituta–.

Komunitatea indartzen
Aldaketok lagunduko digute maila filosofikoan landua genuena



Goiena.net-eko Komunitatea atalaren pantaila irudia. | GOIENA



Produktu eta zerbitzuen irudiak, gida berrituan. | GOIENA



IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR
Grupo Mueble

COINMA
DANONA

gauzatzen. Gure nahia da herri-tarrak parte aktibo izatea eta herriarekin eta herriarendako egitea Goiena. Gure asmoa da Goienako kazetarien laguntzaz euskaraz idazten duen jendea biderkatzea", dio Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabalek. Eta: "Gure komunitatea handitzeak Goienari egiten dio ekarpena, bailarari eta, noski, euskarari", Miren Arregik, azken hilabeteotan "norbanako, eragile, elkarte, alderdi politiko, ikastetxe, mugimendu eta abarrek" harremanetan jarri eta Komunitateko kide izan daitezzen animatuz dinamizazio lanean diharduenak –edo nork bere kabuz ere sor dezake profila–. "Oñatin, Bergaran eta Arrasaten egin dugu, oraingoz, proposamena, eta oso harrera ona izan dugu, oso erabilgarri ikusten dute aukera berria", gaineratzen du. Horrekin batera, eta antzerako helburuekin, Blog Komunitatea handitzeko lanean ere badihardu Arregik.

Eta beste berrikuntzei dago-kienez: Gida Komertziala; iaiztik gida barruan orri berezitua edukitzeko ematen zen aukerari beste bat gehitzen zaio orain, iragarleari bere behar eta nahien araberrako webgune propioa egitearena –gidatik lotura izango du bertara, eta, nahi izanez gero, Goiena arduratuko da mantentzeaz ere–. Abantaila, bilatzaileetan lehenengoetako aukera moduan agertzea, besteak beste.

Gida barrurako iragarleentzako berrikuntza gehiago –haien balizko bezeroek ikusgai eta erabilgarri izango dituztenak, ondorioz–: euren aktibitatea edota produktuak azalduz ikus-entzunezkoak egiteko aukera, edo produktuak argazkitan jartzekoa.


Eta *Aurreztu.com* beste nobedadea; *Goiena.net* beritik lotura zuzena duen ataria, Debagoieneko merkatari eta zerbitzu-emileen produktu eta zerbitzu eskaintza bereziak jasoko dituen –%40tik gorako deskontuekin ere bai–, "bertako komertzioa eta kontsumoa sustatuz": "Eskaintzak eguneratuz joango dira, eta egun kopuru jakin bat egongo da erosketa egiteko. Erosketa ordaindu egingo da eta produktua edo zerbitzua jasotzera baino ez da joan behar gero leku fisikora", azaltzen du Goienako komertzial saileko Imanol Elortzak.

Elortzaren arabera, merkatarientzako "promoziorako bidea" da hau, salmentarako beste era bat izateaz gain; merkatariek ez dute ezer ordaindu behar eskaintza egiteagatik. Herriarrentzako, berriz, gustuko duten edo behar duten produktu edo zerbitzu hori merkeago eskuratzeko aukera.

Eta asmoa da, gainera, aurrerago gure bailaraz kanpoko iragarleentzako produktu eta zerbitzuak ere izatea aukeran *Aurreztu.com*-ek: "Izan ere, euskarazko tokiko hedabideez osatuta dagoen Tokikomekin lankidetzan gauzatutako egitasmoa da, eta beste hedabide batzuen bitartez ere ekimena zabaltzea bada asmoa".

Tokikomen asmoak

Baina *Aurreztu.com* bakarrik ez, *Goiena.net* berria da, oso-osorik,



Itxura hauxe izango du *Aurreztu.com* webguneak. | GOIENA

Tokikomekin lankidetzan sortua, Inazio Arregi zuzendariak azaltzen duen moduan: "Tokikomek eskaintako plataforma baten gainean eginda dago *Goiena.net* berria. Tokikomek plataforma moderno bat du bere bazkideei eskaintzeko; horrela, kostuak murrizteaz aparte, beste hainbat abantaila eskainiko dizkie".

Urtebete barru, hamar

Eta hedabideok kontsumitzen dituztenentzat ere izango da, noski, onura, informazio eta zerbitzu eskaintza zabala jaso ahal izango dute-eta: "Honela, 2013an bost agerkari egongo dira abian –Nafarroako bat eta Gipuzkoako eta Bizkaiko bi–, eta 2014rako erronka bikoitza dugu: agerkari guztiak saretuko dituen aplikazio teknologikoa sortzea eta sarera beste bost agerkari elektronikoko biltzea", dio Arregik.

ESANAK

"Gure asmoa da euskaraz idazten duen jende kopurua biderkatzea"

IBAN ARANTZABAL | ZUZENDARI NAGUSIA

"Proposamenak oso harrera ona izan du Oñatin, Bergaran eta Arrasaten"

MIREN ARREGI | KOMUNITATEAREN ARDURADUN

"Aurreztu.com" promoziorako bidea da Debagoieneko merkatariarentzako"

IMANOL ELORTZA | KOMERTZIAL SAILEKOA

"Goiena.net" berria askotariko gailuetan egoki ikusteko pentsatua dago"

GOIATZ ARANA | 'GOIENA.NET'-EKO ARDURADUN

Aitzindariari omenaldia

Goiena.net webgunearen 10. urtemugarekin batera, *Arrasate Press* sortu zela 25 urte ere bete dira abenduaren 2an. Hori dela-eta, agerkari berriua aurkezteko atzo –eguna– Kulturaren egindako ekitaldian omenaldia egin zieten sorrera hartan jardun zutenei, eta 1988an Arrasateko alkate eta AEDko lehendakari ziren Xabier Zubizarretak eta Jesus Garmendiak argazki oroigarria jaso zuten, guztien izenean, Goienako lehendakari Aitor Izagirreraren eskutik.

Goiena.net hazi eta hazi ari da urtez urte, eta berdin –edo are hobeto– jarraitzea da asmoa berrikuntzokin guztiok; horretarako, "diseinu argiagoa eta garbiagoa ere baditu *Goiena.net* berriak, eta askotariko gailuetan –mugikorretan, iPadetan...–, aplikaziorik jaitsi beharrik gabe, egoki ikusteko pentsatua dago", Goiatz Arana webgunearen arduradunaren esanetan. Hori guztia horrela izanda, aurrera begira baikor da Goienako zuzendari nagusia, eta kopuru batekin ere ausartzen da Arantzabal: "Etorkizun ez luzean eguneko 10.000 bisita bakar izatera helduko gara". Denborak arrazoi eman diezaiola.

Erreportaje osoa:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



GEURERA ITZULI

Bertako eta garaiko produktuen kontsumoa berreskuratzeko garaia da, modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak. Guztioi mesede egiten digun kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena. **Gure herriaren sustraiak.**

www.bertakoetagarraioa.net



Gorka Lete
Mendibitza
Ekologikoak
Txekor eta moxal haragia
zein ardi gazta ekologikoa
zuzenean saltzen ditu.



Grumaleko langileak San Andresko egoitzatik irteten. | IURE EIZAGIRRE

Kanpaldia hasiko dute datorren astean Grumaleko langileek Arrasaten

Ordaindu Plataformaren eskaera (ekarpenei aurre egiteko fondoa sortzea) Kongresura eramango dute

I.E./U.M. | ARRASATE

Fagorrekin lotuta, astean bi protesta izan dira Arrasaten. Azkena atzo iluntzean (eguen), Ordaindu Plataformak deituta; Biterin egin zuten agerraldia (ezustekorik ezean). Eta aurretik, atzo baita ere, baina Azpeitiko Grumal enpresako langileek egindako manifestazioa, eguerdian.

Kanpaldia Arrasaten

Azken horretatik hasita, San Andresko egoitzatik abiatu eta Mondragon Taldearen egoitza aurrean bukatu zuten protesta ekimena. Ehun langile inguruk babestu zuten. Besteak beste, salatu zuten inork ez duela langileekin berbarik egin eta gertatzen ari den guztiaz komunikatzen

bideen bitartez jakin dutela. Manifestazioaren ostean, hamar bat minutuko agerraldia egin zuten egoitzaren aurrean eta oiherarte Txema Gisasolari eta Xabier Bengoetxeari eskatu diete erantzukizuna; eta euren soluzioa ere aldarrikatu dute. Adierazi zuten, besteak beste, langileek Grumalen bideragarritasun plan bat ezar daitekeela sinesten dutela. Eta iragarri zuten, baita ere, aldarrikapenok ezagutzera emateko kanpaldia egingo dutela Arrasaten, martitzenetik barikura, Herriko Plaza inguruan.

Ordainduri dagokionez, berriz, astean Errektore Kontseiluarekin batzartu, eta, labor esanda, euren eskaera Kongresura eramango dutela adierazi zieten.

Esperantza ereiten segitu gura dute Mozambiken

L.K./U.M. | DEBAGOIENA

Mozambikeko nekazariei laguntzen jarraitzeko, *Itxaropena ereiteko kredituak!* izeneko kanpaina abiarazi du Mundukide Fundazioak.

Fundazio horrek 13 urte daramatza Mozambikeko iparraldean (Marrupan, hain zuzen ere), bertako familien garapen sozioekonomikoa sustatzen. Eta horri esker, hango nekazarien bizi-baldintzak asko hobetu dira azken hamarkadan.

Diru-maileguak

Bada, mozambiketar familiei kredituak ematen jarraitu ahal izateko, Gabonetarako *Itxaropena ereiteko kredituak!* kanpaina jarri dute martxan, Laboral Kutxaren laguntzarekin. Izan ere, nork bere diru-ekarpina egin dezake, Mundukide Mozambikeko nekazariei diru-maileguak ematen jarraitu ahal izateko. Hain zuzen ere, Laboral Kutxak Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan dituen sukurtsaletan egin daiteke aportazioa. "Laboral Kutxako langileek ekarpina errazago egiten lagunduko dizute", adierazi dute Mundukidetik. Edozelan ere, diru-ekarpenak egiteko Mundukide Fundazioaren webgunera bera ere erabil daiteke. Hauze da helbidea: <http://www.mundukide.org/diruz-lagundu-eu>.

Ekintzaz betetako astea bailarako gaztetxeen eskutik

ANE ETXEBERRIA | OÑATI

Bailarako Jardunaldiak ospatzen ari dira astean Oñatin. Gaztetxeek antolatuta, askotariko ekintzak izan dira aste barruan. Asteburuari begira ere hainbat ekintza antolatuta dituzte. Gaur, egubakoitza, bailarako batzar orokorra izango da, 18:00etan. Bertan, ahulguneen eta hutsuneen gainean hausnartzeko aukera egongo da.

Bihar, Aitor Arantzabalen eskutik, Angiolillo anarkista italiarraren gaineko liburua ezagutzera emango dute, eta ondoren, *La guerrilla de la memoria* dokumentala ikusteko aukera egongo da. Arratsaldean, Joxemi Zumalabe fundazioko kideak izango dira Oñatin. Domekan, basora irteera egingo dute eta kontzertu akustiko batekin emango diete amaiera aurtengo jardunaldiei.

Xabier Gardoki | Santamas Komisiñoko kidea

"Herri bazkarian bertako produktuak sartu ditugu: ogia eta postreak"

Santamas Komisiñue osatzen duten boluntarioak dira Santamasen motor nagusi

Z.V.D.M./U.M. | ARRASATE

Bertakoak eta ingurukoak horrenbeste erakartzen dituen Santamas jaiak aurkeztu dituzte asteon Arrasaten. Tradizioari eustez bat, berritasunak ere gehitu dizkiete abenduaren 22aren bueltako jai arrakastatsu horiei.

Deskriba itzazu kopurutan Santamasak.

21 saltoki fruta eta barazkiatarako; abeltzainak 17, hegaztiak 7 pertsona eta artisauak 35. Arrasatekoek eta bailarakoek aparte, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritakoak.

Horiek dira ohi-ohikoak Santamasetan, baina horiekin batera berritasunak ere badaude...

Bai, adibidez, herri bazkariari buruz, bertako produktuak sartzeko ahalegina egiten ibili ostean, bazkariko ogia Bedoñako izango da; postreko gazta Gomiztegitik (Oñati) eta Etxe-Zurititik (Galartza, Aretxabaleta) ekarriko dute eta menbrilloa, berriz, Jakionetik (Leintz Gatza). Giza probak dira beste berritasunetako bat. Urretxuko eta Ergobiako bi kuadrilla etorriko dira eta euren arteko norgehiagoka egingo dute. Bate-tik, egongo dira zortzi neska 550 kiloko harriarekin eta sei mutil, bestetik, 650 kiloko harriarekin, Erdiko kalean. Derrigor egin behar zuten Erdiko kalean, giza probak egiteko galtzada-harriak behar direlako. Eta gainera, ordu ona ere bada, gero jendeak txerri-dantza ikusi ahal izateko.

Eta zuk zeuk ze nabarmenduko zenuke, bestela?

Gauza berezi bat, aurtan sartu



Xabier Gardoki. | Z. VELEZ DE MENDIZABAL

dena, ez dena Santamas egunean izango, datorren eguaztenean baizik: *Korrotik Pikutara*. Hitzaldi-dantzatu bat izango da. Lehenago taldea egiten ziren dantzak orain bakarka egiten dira: taldetik indibidualera, borobiletik dispertsiora, korrotik pikutara, azken batean. Hortik dator izena. Beraz, dantzaren historia dantzatu izango da, hitzez azalpenak emango dituzte, baina baita ere dantzaren irudiak gorputzen bidez osatu dituzte. Bestalde, pilota partiduetan, iaz Arrasateko gazteak bakarrik ibili ziren eta aurtan bi profesional ohi datoz: Mikel Goñi eta Oskar Lasa. Jokatu dute Mikel Goñik Arrasateko Bolinagarekin eta Oskar Lasak Zuazorekin. Euren arteko norgehiagoka egongo da, eta aurretik, hori bai, Arrasateko pilota eskolako gazteek jokatu dute.

"Egitaraua sakelakoetara jaisteko aplikazioa badago aukeran"

NARANJAS GARIBO

Garibo familiaren zelaietan jasotako uzta, tradizionalki landatuta. Etxeraino eramaten dizkizugu.

Kilo bat DOAN

10 kiloko kaxa bakoitzeko, GOIENAKO irakurleentzako euren lehenengo erosketan



Kalitate Ziurtagiria

Pestizidak %0
Osasuna %100

Informazioa eta eskaerak:
961 420 831 / 606 863 245
On Line denda:
www.naranjasgaribo.com




UBANE MADERA

Porrotxen eta Porrotxinen bisita

Aretxabaleko GSR egoitzan bisita berezia izan dute astean. Izan ere, sudur gorridun pailazoak, Porrotx eta Porrotxin, izan dira bertan, ikuskizun berezi batekin. Halaber, Basabeazpiko 5 urteko neska-mutilen bisita izan zuten egoiliarrek eta primeran pasa zuten denek batera dantz eginez. Argazki piloa atera zituztela aitortu zuten egoitzako langile Iratik eta Jonek, eta momentu oso aberasgarria bizi izan zutela gaineratu.

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko
100
erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Juanje Amasorrain | Turismo eta Ondare batzordeburua

"Seminarioko bildumako piezak erakutsiko dituen museoa 2014ko Gabonetan irekiko da"

- ▶ Errekalde jauregian kokatuko da behin-behinekoz, UNEDekin permuta gauzatu arte
- ▶ Museoa baino gehiago izango da: 'Laboratorium. Zientzia, ondare eta gizarte topagunea'

IRATI GOITIA | BERGARA

Laboratorium. Zientzia, ondare eta gizarte topagunea da Bergarako proiektu museologikoak izango duen izena eta Errekaldeko jauregian kokatuko da behin-behinekoz. Hala, urteetako nahiak eta lanak egoitza fisikoa izango du datorren urterako. Izenak berak dioen bezala, zientzia museoa baino askoz gehiago izango da eraikinean batuko dena. Turismo eta Ondare batzordeburua Juanje Amasorrainekin izan gara. Bada, hark eman dizkigu proiektuaren gaineko argibide guztiak.

Zergatik Errekaldera eta ez Errege Seminaria?

Hasiera baten, Errekaldera goaz, baina behin-behineko egoitza izango da. Izan ere, Errege Seminarioa da kokapen logikoa. Arzoa da UNED dagoela bertan. Garai batean trukaketa egitea erabaki zen. Hau da, UNED Arriuriagara eramatea, Errege seminarioa udaletxearen esku gelditzeko eta museoa bertan kokatzeko. Permuta luzatzen doa, baina, eta museoa gauzatzea ezinbestekoa dela ikusita Errekaldean jartzea erabaki da.

Zergatik hartu da Errekaldera joateko erabakia orain?

Orain arte Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa (Iragi) zegoen bertan, baina orain Bilbora joan dira eta Udalak berreskuratu du eraikina. Oraindik ez dute eraikina guztiz hustu, baina bigarren solairua dagoeneko hutsik dago eta gainerakoa libre uzteko ere ez dute denbora luze behar. Ezinbestekoa zen orain hartzea erabakia.

Ezinbesteko hitza aipatu duzu. Orain ala inoiz ez?

Museoa egitearen ideia edo proiektua kultura sustatzeko herri mugimendua sortu zenetik dator, aspalditik. Orduan erabaki zen Errege Seminarioan zegoen materiala ezin zela zegoen egoeran egon. Izan ere, erabat hondatuta eta utzita zegoen. Hori berreskuratu egin behar zen. Hala, Jose Antonio Zabalaeren garaiari hasi zen museoaren proiektua lantzen eta ondorengo agintaldi guztietan egin da Errege Seminarioa berreskuratzeko ahalegina. Orain, Errekalde hutsik gelditu denean, zirt edo zart egin beharra zegoen. Eta ikusi dugu haxe zela museoa egiteko unea. Gaineratu behar da oposiziotik (EAJ) ere proiektua bultzatzen dutela, aldi baterakoa den heinean. Horrek museo honek herrian duen garrantzia adierazten du.



Juanje Amasorrain, Turismo eta Ondare batzordeburua, atzealdean Errekaldeko jauregia duela. | I.G.

Esan daiteke hogeitaz bost urte baino gehiagoko nahia aseko duela?

Bai, bergararren ilusioa izan da urte askoan. Hogeitaz bost urtean zehar izugarritzko berreskuratze lanak egin dira. Errege Seminarioa izugarritzko altxorra da, Euskadi osoan ez dago horrelakorik zientzia arloan.

Noiz irekiko ditu Laboratorium delakoak atekak?

Aurrekontua orain onartuko da eta asmoa da datorren urteko Aste Santurako Turismo Bulegoa bertan egotea eta museoa Gabon inguruan zabaltzea. Eraikinaren eskriturak egindakoan eta egoitza gure eskuetan dagoenean hasiko dira egokitzapenak.

Zeintzuk izango dira egin beharreko aldaketak?

Txikiak izango dira egin beharreko lanak. Barrutik ez dugu ia ukitu beharrik izango. Egin beharrekoak izango dira: arrapalak, igogailua, elbarriendako komunak eta larrialditarako atekak. Guztiak ere, beste proiekturen bat gauzatu behar balitz egin beharrekoak.

Eta museoari dagokionez, zeintzuk dira egin beharreko inbertsioak?

Bi gastu mota bereiztu behar dira: batetik, eraikina egokitzeko egingo den inbertsioa dago (irigarritasun planaren barruan sartzen direnak). Esan bezala, horrekin eraikina etorkizunean beste zerbaitearako erabili behar balitz, prest egongo litzateke. Bestetik, proiektu museologikoaren gastuak egongo lirateke, baina horiek ere museoaren Errege

Seminarioa eramaten denerako balioko lukete. Beraz, hor jarriko den guztia gero aprobetxatzeko modukoa izango da.

Zer da Errekaldeko eraikinean batuko dena?

Hiru sail batuko dira eraikinean: museoa, Turismo Bulegoa eta ondare historikoarena. Izena *Laboratorium. Zientzia, ondare eta gizarte topagunea* izango da. Horrenbestez, ez da museo klasiko bat izango; bizia baizik.

"Errekalde hutsik gelditzean, ezinbestekoa zen erabakia hartzea"

"3.000 pieza inguru ditu Errege Seminarioko bildumak"

"Diziplina anitz landuko ditu eta gizartearen tresna izateko jaioko da"

"20 urte baino gehiagoko nahia aseko du proiektu honek"

Erakusleho bat baino gehiago izango da eta diziplina anitz landuko dira; esaterako, ingurumenarena. Horretaz gain, hezkuntzari lotuta ere egongo da eta zeregin didaktiko garrantzitsua izango du. Laborategi bat egongo da, eta, adibidez, ikastetxeekin elkarlanean, bertan probak egitea aurreikusten da. Gizartearen tresna izateko jaioko da.

Museoari dagokionez, zein mota-tako piezak izango dira ikusgai?

Museoak, batetik, erakusketa iraunkorra izango du. Hor bildumako piezak erakutsiko dira. Bestetik, aldi baterako erakusketa ere egongo da. Horretan ere bildumako materiala egongo da, baina txandatzeko joango dira bertan erakutsiko direnak. Errege Seminarioko bilduma hori 3.000 objektu zientifiko inguruk osatzen dute: fisikako tresneria, kimika arlokoak, mineralak, fosilak, giza anatomiako modeloak eta zoologia piezak. XVIII. eta, batez ere, XIX. mendekoak dira. Erakusketan, ikusgarrienak edo garrantzitsuenak jarriko dira.

Errege Seminarioan bertan erabiltako piezak ere badira, ezta?

Bai, Errege Mintegiko errektoreek, batez ere 1776tik 1892ra bitartean, tresneria zientifikoa komertzializatzen zuten zentro europar garrantzitsuetara jo zuten erosketak egitera, horiek Bergarako seminarioan erabiltzeko. Londres, Berlin eta, bereziki Parisen erosi zituzten punta-puntako tresneriak. Biltegi batean botata zeuden eta horiek berreskuratzeke lan handia egin da. Museora-ko departamendu bat sortu zen bere garaian Xabier Aranburu museologoak, Iñaki Irizar zoologoak eta Rosa Errazkin kimikariak. Urteetan pieza horiek berreskuratzeke eta kontserbatzeko lanean aritu dira.

Zein izango da Laboratorium horren helburua?

Orain lortu nahi dena da iragana, oraina eta etorkizuna erlazionatzea eta puntako gaiak lantzea. Hala, museoa berrikuntzaren erakusleho izan dadin arlo ezberdinetan (ekonomia, industria, teknologia, gizarte...). Era berean, tendentzia berrien inguruko ekitaldiak antolatuko dira, sarritan esparru profesionaletik nekez ateratzen diren nobedadeak gizarteratzeko eta berrikuntzaren kultura zabaltzen laguntzeko. Gaineratu behar da Errege Seminarioko bilduma goi mailako materialek osatzen dutela eta ondare hori balioan jarriko du museoak.



Aurrerantzean, Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en aurkituko dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

AMA MIA
"Il piacere della Buona Tavola"

22€

LEHEN:

33€

DESKONTUA:

%34



ETXEBERRIA BITXITEGIA
Zilarrezko belarritako batzuen bila zabilta?

42€

LEHEN:

70€

DESKONTUA:

%40



GORKA ILE APAINDEGIA
Alda ezazu zure orrazkera Gorka ile apaindegian XXXX

38€

LEHEN:

68€


DESKONTUA:

%45



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

ZABALIK

IÑAKI
URIZARhttp://goiena.net/
iritzia/Kontuz jarri
telebista

Sarritan sentitu dut beldurra telebista ipini eta krisiak zenbat iraungo duen ikusita. Barcena-sek lapurtu ote du azkeneko Europak erreskaterako emandakoa? Dirutza lapurtzen dute; telebistan, kartzelan dauden planoak erakutsi eta listo, preso daudela sinetsi dugula uste dute, lotsagarria.

Erregeak legea denontzat berdina dela esan zuen; umore eta algara ataleko beste kapitulu bat dirudi, bankuan entretenitzearren lan egiten zuen alaba formalena European lehen infanta inputatua izan daiteke -eta, baina dena argitu da, kasu hau zeraman epaileak helbideak nahastu zituen, lotsagarria.

Telebista oso gogorra izan daiteke; ETB2ko *Perdiendo El Norte*-n, espainiar batek Franco berriro berpiztuko lukeela esaten ikustea... Hitlerren pareira iritsi nahian El Balle de Los Caidos eraikitzeak agindua eman zuen hura, nazkagarria.

Prestige-k, itsasoa kakaztu zuen itsasontzia, zerbait potoloa zekarren gordeta, Gobernuari gustatzen zaion zerbait; hondoratu eta gero ere hormigoiz estali nahian zebiltzan; gidariak eta Gobernu lagunak direla ematen du, baina Barcena-sek baino zorte hobea izan dute, ez dituzte kartzelaratze planoak filmatuko, lotsagarria.

Asko arduratzen nauena independentzia prozesua da; politikariei bost axola zaie dena edo euskaldunok ez daukagu gure buruaren askatasunaren negoziaketak nola doazen jakiteko eskubiderik? Donostian Nazioarteko Bake Konferentzia egin zen, Aieten, eta ez dakigu gure burujabetza noiz lortuko dugun; garbi dagoena da ahaztuta gelditzeko arrisku handiagoa dagoela berorrek aurrera egiteko baino, askoz ere mediatikoagoa izango zen esperantza neukan eta Euskal Herriko bizilagunak hobeto jakinean jarrita ibiliko ginela.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



GUTUNAK

Tamalgarria

Izaskun Alvarez

Oñati

Azkenengo larunbat gauean Oñatin irten nintzen aspaldiko partez eta sorpresa oso desatsegina hartu nuen: gaueko poteo zirkuituko taberna gehienetan bezero batzuk (ez bat edo bi, gehiago baizik) lasai asko zebiltzan erretzen taberna barruan.

Tamalgarria erretzaile horien portaera, badakitelako tabernan dauden batzuei molestetzen ari direla; eta batez ere lotsagarria taberna hauek jabeek legea betetzeko erakusten duten gogo eza.

Zergatik izango da hau? Xox batzuk gehiago irabazteko?

Horrela bada, oker dabilzala uste dut, herri batean ibili naiz poteoan orain dela gutxi eta taberna batzuk gainezka zeuden, jendea kanpoan erretzen zebilela.

Jarrera honekin ia kontrakoa lortzen dutela esango nuke, niri, behintzat, beraien negozioan xoxak uzteko gogoia kendu didatelako.

Amets bat dut!

Xabier Arregi Murgiondo

(Oñatiko alde zaharreko bizilaguna)
Oñati

50 urte igaro dira Martin Luter King-ek modu erretoriko horretan lau haizetara zabaldu zuela desioa, nahia, aldarrria. Eta hitz horiek gogora ekarri eta baliatu nahi ditut nire ametsa zuekin partekatze.

Xumeagoa bada ere, eskubide zibilaren testuinguru horretan kokatzen da nire ametsa, guztiok dugun atsedenerako eta ongizaterako eskubidearen aldarrria. Nire ametsen, Oñati eta bertako herritarrak ikusten ditut. Horiek dira nire ametsetako protagonistak. Norberaren aisialdiaz gozatuz, besteen eta guztien atsedenerako eskubidea errespetatu eta sustatzen dituzten balio zein jarrerak dituzten herritarrak ikusten ditut. Herriko kaleak maitatzen eta guztien ahalegin eta diruarekin hornitutako mobiliarioa zaintzen dituzten herritarrak. Autoa, noiznahi eta edozertarako erabili eta edozein lekutan aparkatu ordez, erabilera kontzientea izaten

ikusten ditut nire ametsen. Lanerako zein aisialdi edota atsedenerako behar diren espazioak autoen zarata eta trabarik gabeko herri eta kaleak ikusten ditut nire ametsen. Eta inguru horiek hondakinez garbi, makina-munstro-zaratasu garbitzaileen beharrik gabe.

Nire ametsa ez da 1963an sortua, gaur egungo bizipen eta (kontradikzioa izan badaiteke ere) nire ametsa azaleratu zen bezala. Hori da nire ametsa. Eta nire aldarrria. Justizia soziala eta aldaketaren aldarrria. Egunero zarata jasangaitzak jasotzen ditugunontzako justizia sozial, eta bereziki, aldaketa kulturala. Oñati, guztion nahi, gogo, ilusio eta ahaleginarekin Zero Zabor kulturaren bidean jarri dugun bezala, Zero Zarata kulturaren bidean ere jartzea nahiko lukeen aldarrria, eta ametsa. Ziur nago, urratsez urrats eta horizonte bererantz ibilia eginez, egia bilakatuko dela nire ametsa! Baina urrats horiek ez nituzke nik soilik

eman nahi, Martinek bezala, herritarrok bidelagun izan nahiko nituzke nik, nire ametsa gure amets bihur dadin.

Animaliek ere
behar dituzte
eskubideakPiter Encinas eta Arantxa Nuñez
(Ekologistak Martxan eta Kaonbi)
Arrasate

Abenduaren 10ean Nazioarteko Animalien Eskubideen Aldeko Eguna da; horregatik, gutun hau idazten dugu; ideia batzuk utzi nahi ditugu mahai gainean.

Hasteko, denok oso garbi dugu animaliei kolpeak ematen dizkietenean, mina jasaten dutela, bizidunak direlako, eta nabaritzen dituztelako hotza, mina, pena, poza etab. Ze arraroa, ezta? Geuk bezala.

Ziur gaude geuk, izakiok, gaixotasun handi eta larri bat daukagula; *egoztris*-mo izenekoa, eta, nola ez, unibertsoaren zilborra garena. Gaixotasun horrek eragiten digu pentsatzea baimen osoa daukagula nahi duguna egiteko.

Nahiz eta animalia batzuk desagertzear dauden, animalia gehienak ehizatzen ditugu; jateko eta zati edo alde batzuk erabiltzeko. Horretaz gain, guk ondo pasatzeko animaliei sufrimendua eragin behar diegu? Zezenketak, Vegako zezena, zezen edo bigantxa bolaztatuak, etab. Adibide hauek baieztatzen dute estatuan animalien eskubideak ez direla onartzen, nahiz eta gero esaten dugun herri "zibilizatua" garena.

Bestetik, ez dugu ahaztu behar geu garena European animaliak eta maskotak gehien abandonatzen ditugunak, egunero 548 eta urtean 200.000. Zergatik banatzen ditugu animalia eta maskotak? Bi arrazoiengatik: bata, animaliak erabili edota zahartu eta gero, abandonatu edo erailda; bigarrena, maskotak hazi eta gero, xarma galtzen dute, eta, handitu eta edozein lekutan uzten dituzte erresuminik gabe. Honetan txapelak baizik! Harro sentitzekoa da? Ez dugu uste.

Karakterak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluak bidali. Gutun edo irizitza bati ezin izango dio pertsona berak kapituluak erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñati, Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendaria Iban Arantxabal

Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiano, Zortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Oñati, Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ARRASATE

Ganorazko keinuen eguna

- ▶ Arrasateko Udalak, Emaus Fundazioak eta Bagarak egitarau zabala prestatu dute biharko
- ▶ Iraunkortasuna, bertako komertzioa eta berrerabilpena sustatu gura dituzte, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ganorazko keinuak jarri diote izena biharko egunari Arrasaten. Udalak, Emausek eta Bagarak elkarlanean, adin guztiendako egitarau zabala prestatu dute herriko gune estrategikoetan. Antolatzailen deialdiarekin bat egin duten eragileen zerrenda luzea da oso: Ibai-Arte, Txatxili-purdi, Harreman, Arrasateko Garagunea, Eskuarlean, Erein Da Jan, Zero Zabor, Ekin Ema-kumeak, Jakion...



Arrasateko Garabideko lagunak.

Udal Gobernuoko ordezkariak *Ganorazko keinuak* mezuarekin.

Etorkizun hoberantz

Zertarako keinu horiek? Norberaren inplikaziotik hasita, denon dako etorkizun hobea eraikitzen joateko, elkarlana oinarri: "Ganorazko etorkizun bati begira gabiltza elkarlanean, hainbat helburu orokor partekatzeko: kontsumo arduratsua, berrerabilpena, bertako merkataritza bultzatzea...". Filosofia horrek denon baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzea du helburu, eta, horretarako, herritarren inplikazioa ezinbestekotzat jotzen dute deitzaileek. Hala, biharko eguna bide horretako irteera puntua izango da.



Elkartruke ekimeneko kideak. | ARGAZKIAK: ARRASATEKO UDALA, EMAUS FUNDAZIOA ETA BAGARA



Emaus dendako Jone Barquero.



Ekin Emakumeak elkartean bildu ohi diren etorkinak.



Erein Da Jan ekimeneko ordezkariak.



Eskuarlean taldeko kideak.

EGITARAUA

KULTURATE

10:00-14:00 eta

16:00-19:00 Erakusketak, irakurketa txokoa eta Ekozenterraren aurkezpena.

11:30-13:00 *Zero zabor*

tailerra. Xaboa egiten ikasteko aukera egongo da.

13:00-14:00 Irakurketa,

Arrasateko elkarteetan eta herritarren eskutik.

16:00-18:00 Emausen *Sin Desperdicio* tailerra.

18:00-19:00 Adin guztiendako antzerkia.

AZOKA PLAZA

10:00-15:00 Jostailu trukea –10:00etatik 13:00etara– eta Elkartruke, bigarren eskuko azoka, bidezko merkataritza postua, artisauek, izaera askotariko postuak eta Haurrasate ekimenaren erakusketa: *Haurrak ardatz, herria hobetuz*.

12:00 Haurrasateren jinkana haur eta gurasoendako.

13:00-16:00 Bazkaria: jatorri askotariko jakiak.

BITERI PLAZA

Goizez eta arratsaldez: Ibai-Arteren eskutik haurrendako puzgarriak.

SEBER ALTUBE PLAZA

Erein Da Jan ekimenaren txosna eta Emaus Fundazioaren erakusketa.

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

Hondakinen Mahaiaren akordioa, beste esparru batzuetarako adibide

- ▶ Helburuak lehenetsiz, beste bilketa sistema bat adostu dute, aho batez
- ▶ Alkatea, itxaropentsu: "Gaia serio hartu dugu, denok gaude inplikaturata"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen Mahaiak joan den astean eman zuen ezagutzera 2014-ko bigarren seihilekoan Arrasaten ezarriko den hondakinak biltzeko sistema. Kontrolpeko edukiontzi sistema izango da; hau da, egungo edukiontzi berdea –beirarena ez, bestea– kendu eta marroia eta grisa jarriko dituzte, organikoko eta errefuserako, hurrenez hurren. Mahaian parte hartu duten alderdi eta eragile guztiek %70 gaika biltzeko helburua zehaztu dute, bederatziz hilabetean. Helburua lortuz gero, sistema hori erabiliko da aurrerantzean; ez bada %70eko tasa lortzen, atez atekoa jarriko dute. Horiek dira Hondakinen Mahaiaren orain arteko akordio nagusiak. Izan ere, Mahaiaren egitekoa ez da amaitu; hala ziurtatu digu alka-

teak asteon: "Hondakinen Mahaia lantalde bat da. Batek baino gehiagok pentsatuko du dokumentu bat dagoela eta hor amaitzen dela. Hori baino gehiago da. Horren adierazle da asmoa dugula aurrerantzean biltzeko, jarraipen batzorde bat sortzeko. Gaia oso serio hartu dugu eta denok gaude inplikaturata".

Irailaren 4an egin zuten lehen bilera, Udalak hondakinen auzian "jarrera aldaketa" bat "beharrezkoa" zela uste zuelako: "Ibilbide bat markatu genuen eta urratsak egiteko ezinbestekoa zen herritarren inplikazioa". Sistema berriarekin herritarrak bereizteko aukera izango duela dio alkateak: "Edukiontzi berdea kendu egingo da, *cajon desastre* den hori, denetarik botatzen da-eta. Gaizki egiteko aukera hori ken-



Inazio Azkarragaurizar, martitzenean, udaletxe atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

duko dugu. Bi edukiontzi berriek sarrera kontrola izango dute; kontrola nola egingo den mahaian zehaztuko dugu". Era berean, edukiontzi guztiak modu bateratuan jarri gura dituzte, orain "oso sakabanaturata" daudelako.

Emaitzak baloratzeko irizpideak ere mahaian zehaztuko dira eta asmoa da hasieran neurketa bat egin eta hiru hilabetean behin beste neurketa bat egitea.

Ez daudenekin egoteko asmoa

Hondakinen Mahaiaren lan egiteko modua beste esparru batzuetara zabaltzeko asmoa erakutsi du Azkarragaurizarrek: "Hainbat gai orokor daude denok ados gaudenak, teoriarik. Mugikortasuna, aurrekontuak edo bizikidetzaz dira horietako batzuk".

Mahaian ez daudenekin egoteko saiakera egingo dute berriro: "Dokumentua publiko egin aurretik eurekin egon ginen eta eskaini genien akordioan sartzeko. Osoko bilkuran akordioa berretsiko dugu eta aukera izango dute bat egiteko". Arrasateko PSE-EEko idazkari nagusi Paco Garziak, berriz, akordioa "tranpa" dela uste du: "Sozialistok bosgarren edukiontzia gura dugu, ahalik eta lasterren eta betiko. Bilketa sistema denbora tarte jakin batean jasotako emaitzen arabera ezarztearen kontra gaude".

GAINERAKO ALDERDIEN ETA ERAGILEEN BALORAZIOA



Juan Karlos Garitano

EAJ

"Ezin gara bata bestearen aurka joan, helburuetan bat gatoz"

"Pluraltasunean oinarritutako akordioa da, hori da garrantzitsua. Honakoa da jarraitu beharreko bidea, beste esparru batzuetara ere zabaltzeko adibide ona da. Guztion adostasuna beharrezkoa da, eta hondakinen moduko gai konplikatu baten aurrean are garrantzitsuagoa da lortu dugun akordioa. Izan ere, denok dugu arazo hori etxean bertan. Komeni da denok batera arazoari erantzun egokia ematea, eta helburu hori lortzeko jarri gara lanean.

Ezin gara bata bestearen aurka joan; ezin da ulertu beste leku batzuetan gertatu dena. Helburuetan zentratu ginen eta ohartu gara denok bat gatzela. Beraz, oso gustura eta konforme gaude lortutako akordioarekin".



Juan Karlos Stegmeier

Arrasate Garbi

"Parte-hartzea eta borondatea gehituz gero, lortuko dugu"

"Arrasate Garbik bosgarren edukiontzia alderdi plataformetan sinatu zuten arrasatearren borondatea eskertu gura du. Horrek ahalbidetu du gure ahotsa entzuna izatea eta horri esker Udalarekin negoziatu dugu, akordio batera helduta. Era berean, Udalari eskerrak eman gura dizkiogu Hondakinen Mahaian egotera gonbidatu izanagatik. Mahaiko partaideok bat gatzeko hondakinak modu eraginkorrean birziklatzeko helburuarekin. Behar diren bitarteko guztiak jarriko zaizkie herritarrei, informazioarekin eta heziketa saioekin.

Gainera, jarraipena egingo zaio, zuzenketak egiteko. Horri gure parte-hartzea eta borondatea gehituz gero, helburuak lortuko ditugu, eta helburu hori lortu izanaz harro egongo gara".



Joxe Etxebarria

Aralar

"Pedagogia lana egin behar dugu, herritarrari irakatsi"

"Baikorra naiz akordioarekin. Bi aipamen egin behar dira: batetik, gai izan garela proposamen ezberdinak genituen taldeok bat egiteko eta, bestetik, akordio horrek garbi adierazten duela lehentasuna helburuak duela, eta ez sistemak. Akordio honekin hasi besterik ez gara egin; herritarrari mezu hori zabaltzeko adierazle praktikoak zeintzuk diren esatera pasa behar dugu. Hau da, oraindik ezjakintasun handia dago eta herritarra informatzeak berebiziko garrantzia izango du.

Orain, pedagogia lana egin behar dugu, herritarrari irakatsi egin behar diogu nola birziklatu behar duen. Ondorioak onak izan daitezten informazioa emateko prozesuak eraginkorra izan behar du, nahitaez".



Andoni Loiti

Arrasate Zero Zabor

"Irtenbide egokia eman behar diogu; guk sortu, guk kudeatu"

"Akordioa aurrerapauso egokia da Arrasate zero zabor herri bihurtzeko bidean. Oso garrantzitsua izan da ikustea denok ados gaudela hondakinak jasotzeko sistema ez dela garrantzitsua eta onartzea hasieran jarriko dugun ontzien sistema honek ez baditu adostutako helburuak lortzen, beste leku batzuetan emaitza positiboak lortu dituen atez ateko sistema jarriko dela. Hondakinei denon artean irtenbide egokia eman behar diegu; guk sortu, guk kudeatu. Horretarako, argi dugu egokia dela eredu zirkularrean sakontzea. Azken urteetan, Gipuzkoako herri askotan eredu zirkularrean murgiltzeko hartu diren erabakiek gure lurraldean errauskailurik ez erakitzea lortu dute. Arrasateko akordio honek bide hori indartzen du".



Juan Luis Merino

Ezker Anitza

"Helburu komunak adostu ditugu ezberdinen artean"

"Akordio eredugarria da, ondoko herrietan jarraitu beharrekoa; Eskoriatzan edo Bergaran, adibidez. Mahaian denok gaude, PSE-EEren gertuko den Stop Atez Ate eta alderdi sozialista bera izan ezik. Euren falta sumatu dugu mahaian, baina, dirudienez, ez dute inongo borondaterik. Guk horrela ikusten dugu, 2015eko udal eta foru hauteskundeetara begira dutela kalkulagailua; auzia luzatu gura dute azkenera arte. Akordio honetan beste guztiok –guztiok garaela azpimarratu beharra dago– bat etorri gara eta hondakinen inguruan sortu den mitoa desmuntatu egin dugu.

Helburu komunak adostu ditugu ezberdinen artean; guretako positiboena da herritarren gehiengoa akordio batera heldu dela bere ordezkarien bitartez".



Piter Encinas

Ekologistak Martxan

"Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta murrizteko jarrera da bidea"

"Batetik, elkartzea bera positiboa da. Bestetik, ez diogu garrantzirik eman hondakinak nola biltzeari, helburuei baizik. Ikuspuntu ezberdinak ditugunok elkartu gara arazoari irtenbide egokia emateko. Hondakinen arazoa gurea da, eta, beraz, guk eman behar diogu soluzioa. Orain arte oso gaizki egin ditugu gauzak; dena erraustegira edo zabortegira bideratzea ez da irtenbidea. Berrerabiltzeko, birziklatzeko eta murrizteko jarrera izan behar dugu, hori da bidea.

Amaitzeko, ez dut ulertzen Bergaran, Eskoriatzan edo Legazpin gertatu dena, desobediencia zibilerako deia. Arrasateri dagokionez, PSE-EEren eta Stop Atez Ate plataformaren jarrera salatu gura dut, guri atek itxi gura zizkigutelako; gurea mugimendu plurala da".

Alberto Vesga | Sustrai fruta-dendako arduraduna

"Kalitate gorena eta prezio lehiakorrak eskainiko ditugu"

Fruten eta berduren merkatuan ia 50 urteko ibilbidea eta esperientzia duen Sustrai fruta-dendak abenduaren 17an irekiko ditu ateak Arrasateko Olarte kalean, fruta-denden beste kontzeptu bat eskainita.



Alberto Vesga, Sustrai fruta-dendako arduraduna.

Zinek sortu zuen Sustrai enpresa?

1965ean, gure gurasoak, nekazaritza lanean ibilitakoak, Nafarroatik eta Errioxatik ekarritako frutak eta berdurak banatzen hasi ziren Gipuzkoako hainbat azokatan. Geroago, 1980an, lehenengo fruta-denda zabaldu zuten Legazpin. Denboraren poderioz, gure baliabideak bezeroen beharretara egokitzen joan gara. Gaur egun, bi fruta-denda dauzkagu Legazpin eta beste bi Oñatin. Horrez gain, Ordiziako (eguztetan), Legazpiko (egubakoitzetan) eta Oñatiko (zapatueta) astero azoketara joaten gara.

Zelan joan da trantsizioa lehen belaunalditik bigarreneara?

Gaur egun, gure gurasoek hasitako enpresa familiarraren espirituari eta bezeroekiko konpromisoari eusten diogu; espiritu horren oinarriak dira gure produktuen eta zerbitzuaren kalitatea, eta baita gure bezeroekin, ekoizleekin eta hornitzaileekin daukagun hartu-emanera ere. Hori guztiori, 15 laguneko lantaldean oinarrituta.

Zer eskainiko duzue Arrasateko denda berrian?

Guretzat, herri berria da. Arrasateko dendan, gure ibilbidean zehar jaso dugun onena batuko dugu: alde batetik, azoka tradi-

zional eta lehiakorretan daukagun esperientzia. Ordiziakoan, adibidez, erreferente gara aspalditik; eta beste aldetik, eguneroko tratua fruten eta berduren denda espezializatuetan. Hori guztiori, kalitate gorenarekin eta prezio lehiakorrekin.

Zer produktu mota eskainiko duzue?

Gure berezitasunak dira frutak, berdura freskoak eta kontserbak. Gure produktu askotan, nekazariarekin zuzenean lan egiten dugu gure bezeroentzako prezio lehiakorrek lortzeko, kalitate gorenarekin, eta produktuak batzen direnetik gure dendan salgai jartzen ditugun arteko denbora laburrena izan dadin. Badakigu guk saltzen duguna zeinek landatzen duen eta zelan. Gure bezeroen nahiak ase-

tzen dituzten inguruko produktuen aldeko apustua egiten dugu, eta baita beste leku batzuetako produktu osasungarriak gerturatzeke apustua ere. Laburbilduz, gure produktuen kalitate gorenarekin konprometituta gaude eta, horrez gain, produktu oinarritzko osasungarriak ere eskaini nahi ditugu, oso prezio lehiakorretan.

Arrasatearrek ze jasoko dute zuengandik?

Inbertsio handia egin dugu ekipamenduan, Marpe Decoracion enpresarekin, gure bezeroentzako erosketa egitea ahalik eta onuragarriena izan dadin: aholkularitza, erosotasuna, prezioa eta gertutasuna.

Arrasaten fruta-denda asko daude; ze balio erantsi eskaintzen duzue?

Gure proiektuaren oinarria gure lantaldea da; frutagintzaren alorrean hezitakoak dira eta Sustrairen proiektuarekin konprometituta daude, eta baita bezeroei eskaini diezaieketen zerbitzuarekin ere. Frutak eta berdurak saltzeaz gain, beste esperientzia batzuk ere eskaini nahi ditugu. Horretarako, gure dendan espazio berezi bat sortu dugu, eta bertan, bezeroek errentan hartu ahal izango dituzte fruten, entsaladen eta zukuen gaineko liburuak eta gure produktuen errezetak eskuratu ahal izango dituzte. Amaia Diaz de Monasterioren dietistarekin lankidetzan dihardugu, fruten eta berduren onurak umeei helarazteko, eta lantzean behin datatzeak antolatuko ditugu. Era berean, denda barruan zukumakina bat izango dugu gure zitrikoen zaporeaz gozatzeko. Denda barruan, berdurak etengabe hezetauak mantenduko ditugu ultrasoinuen sistema baten bidez, Euskadin aitzindaria dena.

Fruta-denda baino gehiago, fruta-delicatessena dela dirudi.

Ez, ez da hori. Gure helburua da frutak eta berdurak eskaintzea, kalitatezkoak eta prezio lehiakorretan, eta horrez gain, baita beste zerbitzu batzuk ere, bezeroentzako onuragarriak izango direnak.

Internetez saltzea pentsatu duzue?

On line denda diseinatuta daukagu, eta laster martxan jarriko dugu Arrasateko bezeroentzat.

Debagoienean, orain dela gutxi, indar handia izan zuen Sustrai Aloña Mendi saskibaloi taldeak eta haren Sustraitxo maskotak!

Denda hutsa izateaz gain, uste dugu gizarte-erantzukizuna ere badaukagula. Sarritan lan egiten dugu kirol eta ongintzako elkarrekin, elikagai bankuekin... Aloña Mendi babestea eta 2011n EBArako igoera lortzea izugarria izan zen. Proiektuan izan genuen inplikazioagatik, 2012an Debagoieneko Kirol Babesle Onenaren saria jaso genuen. Orain dela bi urte, Sustraitxo maskota sortu genuen, gure logotipoa irudikatzen du eta Oñatiko Zubikoan jokatzen diren partidua dinamizatzen ditu. Arrasatera ere ekarriko dugu Sustraitxo, gure ingurua eta denda bera giro dezan.



Alberto, Antxiñe, Ikerne eta Abdooitzek osatzen dute lantaldea.

"Beste esperientzia batzuk eskaini nahi ditugu"

FRUTA-DENDA BERRIA ARRASATEN!

Abenduaren 17an irekiko dugu, 09:00etan!

Zatoz!

Olarte kalea 1. Arrasate.

GABONETAKO ESKAINTZA

Abenduaren 16tik 21era, 20 € baino gehiagoko erosketa egiten baduzu, Gabonetako piña zoragarri bat jasoko duzu opari!



sustrai
FRUTA-DENDA

Olarte kalea 1. Arrasate.



Alfredo Moraza | Arkeologoa eta historialaria

"Bailaran XVI. mendetik aurrera hedatu zen zeramikagintza"

- ▶ Hasieran, Zamoratik eta Salamancatik ekartzen zituzten produktu gehienak
- ▶ Industria bat baino gehiago, barne kontsumorako tailerrak garatu zituzten

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Historiaurrean nekazaritzatik sortu ziren herri eta hiriak, abeltzaintzak egonkortu zituen eta zeramikak gizarteari baliabideak eman zizkion. Gure bailarara, baina, askoz geroago iritsi zen buztzingintzaren ofizioa. Alfredo Moraza (Hernani, 1966) arkeologoa eta historialaria bailarako teileraren eta zeramikaren mundua gerturatu zien herritarrei martitzenean. Bada, *Arrasateko iragana astintzen* zikloko hirugarren hitzaldiarekin, Arrasate Zientzia Elkarteak Kulturateko Areto nagusia entzulez betetzea lortu zuen.

Arrasaten burdingintzak ospea lortu zuen; eta zeramikak?

Zeramika ez zen benetako industria bat izan. Hasieran, Gaztelatik ekartzen zituzten ontzi eta materialak; hemen, XVI. mendetik aurrera hasi ziren zeramika eta teilagintza garatzen.

Zeramika eta teilagintza bereizten dituzu; zergatik?

Biak bereiztea beharrezkoa da. Kontuan izan behar da garai



Moraza, Kulturaten egindako hitzaldian. | JOKIN BEREZIARTUA

"Ez zen ospe handiko ogibidea eta kanpotarrek egiten zuten"

hartan ere hala gertatzen zela. Teilaginek ez zuten zeramikarik egiten eta alderantziz ere gauza bera gertatzen zen.

Euskal Herri osoan teilagintza eta zeramika aldi berean garatu ziren?

Nafarroan eta Araban Erromatar garaiko tailerrak topatu ditugu; hemen, aldiz, Erdi Arora arte ez ziren tailer propioak garatu.

Zergatik?

Barne kontsumo kontu bategatik. Arrasatekoa bezala, hiribilduak su baten aurrean oso ahulak ziren eta buztinez egindako manposteriek, estrukturak indartzeaz gain, sor zitezkeen suetatik ere babesten zituzten. Horrez gain, ez zen oso ofizio errekonozitua eta gehienetan kanpoko jendea aritzen zen horretan.

Gaztelako artisauek?

Ez, hasieran iparraldeko jendea hasi zen honekin, eta urteekin tamargoek hartu zuten lan hauen ardura.

Nortzuk izan ziren tamargoak?

Tamargoak Asturiastik etorritako pertsonak ziren. Hemen bizi ostean sorlekura bueltatu zirenean, euskarazko hitz asko zituen *hizkuntza* bat ere sortu zuten.

XVI. mendean hasi eta XIX. mendean amaitu zen?

Ez zen inoiz industria handi bat izan. Barne kontsumoak behera egin ahala, tailer eta labe gehienak desagertzen joan ziren. Baina oraindik aztarna ugari aurki daitezke. Bailaran 16 teilagintza egon ziren eta ohikoa da herri gehienetako toponimian ofizio honekin lotuta dagoen txoko bat edo beste aurkitzea. Zeramika labeak, aldiz, urriagoak izan ziren, baina bailara honetan bi izan ziren. Eskoriatzakoa, adibidez, jendeak ikus dezakeen altxor horietako bat da.

Arrasateren eta Mozambikeren arteko harremana sendotzen

Instituzioek garapenerako partidak murriztu dituzten testuinguru honetan, Mundukidek eta Harremanek Afrikan garatzen ari diren proiektuekin duten konpromisoa berretsi zuten eguazteneko ekitaldian. Bertan, bi elkarteetako ordezkariak kooperazio lanez mintzatu ziren. Ekitaldia bukatzeko, Txorbela Otxoteak euskal eta afrikar doinuak abestu zituen, eta, taldeak jaso zituen txaloak kontuan izanda, argi geratu zen emanaldia entzuleen oso gustukoa izan zela.

Herensugeak errugbi klubaren aldeko festa bihar plazan

Herriko errugbi klubak zapatutako batzar orokorra deitu du, eta, horren harira, herritar guztiekin partekatu nahi duten festa antolatu dute. 19:00etatik 21:00etara, euro baten truke, errugbiko baloari bi ostiko emateko aukera egongo da. Baloietako bat atean sartzen duenak Kajoi tabernan ardo bat eta pintxo bat jasoko ditu doan. Festaren ondoren, kideek Herri Gain elkartean afaria egingo dute, eta afalosteko festarako Kajoiara bueltatuko dira.

Etorri geurera!

SANTAMASAK 2013
Arrasate

Bengoa • Ezkiña
Itzala • Nahi •
Okoretegi
Rumba • Txoko II

Herriko historia jasotzen duen 'Begira!! Arrasate' aurkeztu dute

lazko erakusketan oinarrituta, liburua osatu du Zuztarrak Errotuz taldeak

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Santamasei begira, herriaren historia jasotzen duen *Begira!! Arrasate* liburua kaleratuko du Zuztarrak Errotuz taldeak. Aste-buru honetatik aurrera egongo da eskuragarri, baina joan den astelehenean egin zuten aurkezpena taldeko kideek eta Udaleko hainbat ordezkari Kulturateko areto nagusian.

Liburuak iaz izen berarekin egindako erakusketa du oinarri. Jende ugari bisitatu zuen erakusketa hura, eta, Zuztarrak Errotuz taldeko Xabier Zubiza-

retak aurkezpenean azaldu zenez, herritarren eskaria izan zen mota honetako proiektua gauzatzea: "Eskarien artean asko errepikatu zen erakusketa bukatzean, hura ezerezean gera ez zedin nolabaiteko dokumentu bat egitea interesgarria izango litzatekeela". Hori dela eta, liburuak erakusketaren egitura mantendu du eta hango hainbat material erabili dira lana osatzeko.

Udalaren laguntza

Begira!! Arrasate liburuak Udalaren laguntza jaso du eta era-

kusketako hainbat panel eta baserri eta herriari buruzko bes-telako materiala batzen du. Kultura zinegotzi Kepa Urteagak "halako lanak argitaratzeak duen garrantzia" eta "herriko eragileek kulturaren alde duten ganora" ikustea "pozgarria" dela adierazi zuen aurkezpenean.

Ia 100 orriko lana prestatu dute, herriaren sorrerari buruzko informazioa eta kulturari eta kirolari buruzko hainbat zertzelada jasota. Gainera, Huheziko irakasle Amaia Pavonek iazko erakusketaren inguruan eginda-



Zuztarrak Errotuz taldeko kideak asteleheneko aurkezpenean. | GOIENA

ko bideoa ere badakar *Begira!! Arrasate* liburuak.

Bihartik salgai

Bihartik aurrera egongo da salgai herriaren historia jasotzen duen liburua berria, 10 eurotan, Ttukun

dendan. Horrez gain, Zuztarrak Errotuz taldeko kideek bihar eta hurrengo asteburuetan kalean salduko dute lana, Portaloian eta Seber Altube plazan. Guztira, 500 ale dituzte arrasatearren jakinmina piztu eta asetzeko.

Dena prest giro herrikoia mantendu nahi duen Santamasetako kroserako

I.E. | ARRASATE

Dena prest dago Santamasetako 36. Kroserako -Enrike Kabiketaren 11. omenezkoa izango da-, domeka heltzea da falta den gauza bakarra. Eta prestaketei dagokionez, Arrasate Atletiko Taldeko Fernando Zufriak honela adierazi du: "Ez da antolatzen dugun lehen aldia, 36.a da, eta horrek arindu egiten du prestaketa".

Iaz izandako parte-hartzaile kopurua ezustekoa izan zen eurentzat eta ordura arteko marka hautsi zuen: "205 korrikalari izan ziren eta aurrekoetan 100 inguruk hartzen zuten parte. Kanpoko jende askok hartu zuen parte iaz eta kuadrillen arteko talde irabazlea Lekeitiokoa izan zen". Atseginez hartzen dituzte kanpoko korrikalariak, baina ez lukete Santamasetako Krosaren izaera herrikoia galtzerik nahi.

Dena den, aurreko urtekoaren ostean, aurreko korrikalari gutxiago izatea aurreikusten dute. "150

-160 pertsona espero ditugu aurtengo lasterketan", adierazi du Zufriak.

Gaztetxoak eta nagusiak

Domeka goizean izango da Santamasetako 36. Krosa eta Enrike Kabiketaren 11. omenezkoa. 11:00etatik 12:00etara 5 eta 14 urte arteko gaztetxoak lehiatuko dira. Euren adinetara egokitutako distantziak egingo dituzte: 100 metro txikiak eta 800 metro nagusiagoak.

Helduen lasterketa, berriz, 12:30etik aurrera izango da. Kuadrilla arteko lasterketa izango da eta talde bakoitzak 6,4 kilometroko ibilbidea egin beharko du. Zirkuitua prestatuko dute eta kuadrilla bakoitzak lau buelta eman beharko ditu. Talde bakoitzaren puntuazioa ateratzeko kuadrilla bakoitzeko lehen bost korrikalariak hartuko dira kontuan. Izen-ematea lasterketa aurretik egin beharko da eta bost euro kostako da.

Doako kirol ekintzak izango dira gaur eta bihar Musakolako kiroldegian, Fitness Festaren barruan

Musakolako kiroldegian Fitness Festa egingo du gaur eta bihar, eta hainbat ekintza doan egiteko aukera eskainiko die erabiltzaile zein herritarrei. Gaur gimnasia abdominal hipopresiboen tailerra eskainiko dute eta bihar goizean, zehar body balance, body eta spinning saioak. Ikastaroak doakoak badira ere, aurretik izena eman behar da kiroldegiko harreraren edo 943 77 16 77 telefono zenbakian. Edozeinek har dezake parte ekintza horietan, baina ohiko erabiltzaileek lehentasuna izango dute.

Realaren partidurako sarrerak eta autobuserako txartelak erosteko azken aukera Monte tabernan

Oraindik ere itxita jarraitzen du Monte tabernan, baina, aurreko asteetan egin moduan, Realaren partidurako sarrerak eta autobuserako txartelak saltzen dituzte. Domekan jokatu du talde txuri-urdinak Betisen aurka, 17:00etan. Norgehiagoka ikustera joan nahi duten arrasatearrek gaur izango dute sarrerak eskuratzeko azken aukera, 10:00etatik 13:00etara egongo dira-eta salgai tabernaren kanpoaldean. Atzo, egun osoan zehar aritu ziren partidurako eta autobuserako txartelak saltzen.

Maite Urzelai | Margolaria

"Argazkietan oinarritutako paisaien koadroak ikus daitezke erakusketan"

Margolari bergararrak erakusketa zabaldu du aste honetan Harresi aretoan

I.E. | ARRASATE

Maite Urzelai margolaria bergararra da jaiotzez, baina urteak daramatza Arrasaten bizi izaten; beraz, bere lanak Harresi aretoan izatea, erakusketa etxean zabaltea bezala da. Horren adierazle, lehen egunean bertan jasotako bisitari kopurua. Oraindik Urzelairen erakusketa bisitatu ez dutenek egunera arte izango dute aukera, 18:00etatik 20:00etara astelehenean egubakoitzera eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00era zapatu eta domeketan.

Zenbat lan jarri dituzu Harresi aretoko erakusketan?

29 koadro jarri ditut, olio-pinturak denak.

Eta zer landu duzu koadroetan?

Paisaiak ikusi daitezke. Argazkiak dira lanen oinarria, gaur egun ateratako argazkiak batzuenak eta argazki zaharrak beste batzuenak.

Beraz, argazkietan oinarritu ohi dituzu zure margolanak?

Argazkiak eta beste edozein gauza erabiltzen ditut margotzeko aitzakia gisa. Pentsa ezazu egunkarian mendi baten edo gustatzen zaidan edozeren argazkia ikusten dudala; ba, moztu eta margotzeko erabiltzen dut.

Erakusketako lanen bat lekuan bertan, zuzenean, margotutakoa da; Cambrils agertzen den lana, adibidez. Baina gero eta gutxiagotan egiten dugu hori margolariok, eta, aldiz, gero eta sarriago marrazten dugu etxean, lasaitasunean, argazkiekin edo lekuan hartutako oharrekin.

Hainbat herri identifika daitezke koadroetan.

Bai; Arrasate, Donostia, Bergara eta Gasteizko kaleak ageri dira. Gasteizko koadroa, esaterako, duela 40 urteko zuri-bel-



Maite Urzelai, Harresi aretoko erakusketan. | IURE EIZAGIRRE

"Merkeago jarri ditut koadroak, Caritasentzat dirua batu ahal izateko"

tzeko argazki batetik margotu nuen, nik neuk jarri nion kolorea lanari.

Paisaiez gain, erretratuak ere badaude.

Erretratu bereziak dira: emakume heldu batena, gerra osteko eliz mutilarena... Dena den, natura hileko koadroak ere badaude, eta itsasoari lotutako lanak ere egin izan ditut.

Zenbat denbora daramazu margotzen?

Duela 12-13 urte hasi nintzen. Bizitza osoan zehar egin izan

ditut marrazkiak eta beti moldatu izan naiz ongi eskulanetan. Duela urte batzuk pentsatu nuen margotzen hasia eta Kulturaten hasi nintzen pintura eskoletan. Bergarako Amaia Beitia da gure irakaslea eta astelehen eta asteazkenetan joaten naiz.

Lehen egunak igarota, nolako harrera espero duzu?

Jende asko etorri ohi da, duela bi urte ere jende ugari etorri zen eta aurrean ere, erakusketaren lehen egunetan, jende asko ibili da.

Gainera, helburu jakin batekin salduko dituzu lanak, ezta?

Koadro guztiak berriak dira eta aurreko merkeago salduko ditut, 300 euro inguru balio dute. Merkeago jarri ditut Caritasentzat dirua batu nahi dudalako, hori da erakusketa honen helburua.

Trikitia izango da nagusi zapatu honetako festan

Trikiti Festaren bigarren edizioa da aurtengoa eta Bergarako Erdizka Trikitixa Elkarteak antolatu du

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Egun osoko jaia izango da zapatuan herriko kaleetan barrena. Izan ere, trikiti eta pandero hotsek kaleak alaituko dituzte.

2006an lehen edizioa antolatu eta gero, aurten ere Trikiti Festa antolatu dute Erdizka Trikitixa Elkarteak kideek. Euren asmoa da zaletasun bera duten herritar eta lagunak elkartzea: "Trikitizaleak batzeko helburuarekin antolatutako festa bat da. Bide batez, gure arteko harremanak sendotu eta egun polita pasatu nahi dugu", adierazi du Nekane Mendikutek, Erdizka Elkarteak kideak.

Ekitaldiak arratsaldean hasiko dira. 16:00etan hainbat tailer izango dira Musika eskolan eta 19:00etatik aurrera *Ai Ene!* taldearen erromeria izango da Muni-be plazan. Musikaz gain, gaztaina-jana ere izango da eta goseak geratzen direnak afari goxo batez disfrutatzeko aukera izango dute. Afarian, nola ez, "umore ona, trikitia eta pandero soinuak ez



Trikitilariak herriko kaleetan, kalejiran. | GOIENA

dira falta izango", zioen Nekane Mendikute antolatzaileak.

Festaren bigarren aldia

2006an ospatu zen lehen edizioa, eta, antolatzaileen esanetan, "festa berreskuratu" nahi izan dute eta, ahal izanez gero, "urtero antolatu". Aurten, gainera, hainbat berrikuntza izango dira:

"Mikrofono aurrean nola abestu behar den jakiteko tailerra izango dugu, baita panderoa jotzen ikasteko tailerra ere. Imanol Urkizu arituko da irakasle lanetan. Benetan pozik gaude tailerrek izan duten erantzunarekin; izan ere, jende nahikotxok eman du izena eta honek aurrera begira ere animatu egiten gaitu. Ederra

da ikustea halako tailerretan parte hartzeko jendearen gogoa", adierazi du Mendikutek.

Zaletasunarengatik galdetuta, kalera ateratzeko grina dagoela esan du Mendikutek: "Grina piztuta dagoela esango nuke, eta geroz eta handiagoa dela gaineratuko nuke. Trikitiaren tinbrea oso ondo sartzen da kalean, eta, agian, horregatik izango da. Egia esan, bailaran zaletasuna oso handia da".

Eskertza eta kontaktua

Musika Eskolari eta Udalarri eskerrak eman nahi izan dizkie Mendikutek: "Festa hau antolatzeko lagundu digute eta urte osoan egiten ditugun hainbat ekintzatan gurekin izan dira. Eskerrak ere eman nahi dizkiegu, guraso, adiskide eta gazte guztiei festa honetan parte hartzeagatik eta baita burutzen ditugun beste ekintzetan babesa emateagatik".

Elkartearen asmoa, festari eutsi eta urtero antolatzeaz gain, beste hainbat ekintza egitea izango da. Halaber, elkarteak kide izan nahi duen orok ateak irekita dituela adierazi du Mendikutek. Harremanetarako helbide elektronikoa bat dute (bergarakotrikitezaleak@gmail.com) eta bertara idaztea besterik ez dute interesatuek.

Eguraldiari aurre egin eta herriko txokoak alaitzeko eguna izango da, beraz, zapatukoa. Herritar guztiak festan parte hartzera gonbidatuta daude.

Hansel eta Gretel, domekako protagonistak

A.E | BERGARA

Domeka honetan *Hansel eta Gretel txokolatzeko etxean* antzezlanak izango da Zabalo-tegi aretoan.

3 eta 9 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako antzezlanak 18:00etan hasiko da eta Glu Glu Producciones-ek ekoiztutako antzezlanak da. Sarre-ra 4 euro da.

Sinopsia

Hansel eta Gretel familia txirrotako neba-arrebak dira. Gretelek aitari gaizki ulertuko dio eta biharamunean abentura hasiko da; izan ere, aitarekin batera basoan barrenean doazela, bidean harriak utziko dituzte etxerako buelta zein den jakiteko askoz. Baina harriak hartz zintzo bati emango dizkiote, animalia gaixoak ehiztariez defendatzeko behar baititu. Orduan, ogi-papurak bidean jartzen hasiko dira. Baina honek ez du ezertarako balio izango, ogi-papurak txoriek jango baitituzte...

Abenturaz beteriko historia da, haurrentzako oso aproposa eta egokia.



Mirari

Ibargarai 14 Bergara
Tel.: 943 76 23 93
Neurriak 38tik 60ra



Aurkezpen ekitaldia. | AMAIA TXINTXURRETA

Urtarrilaren 11n Bilboko kaleak itsaso bilakatzeko dei egin dute

'Tantaz tanta itsaso gara' mezua daraman kanpaina aurkeztu dute asteen

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Tantaz tanta itsaso gara mezua daraman kanpaina aurkeztu dute asteen. Bertan esan zuten herritarrei dagokiela akuilua eskuan hartuz mugiaraztea giza eskubi-deen, irtenbidearen eta bakearen alde. Eta Bergarako tantatxoak batu eta urtarrilaren 11n Bilboko

kaleak itsaso bilakatzeko dei egin zuten: "Datorren urtarrilaren 11n Bilboko kaleak giza eskubi-deen, konponbidearen eta bakearen aldeko itsaso bilakatzeko lagundu nahi duten Bergarako tantatxoak batzeko elkartu gara", adierazi zuten Iñigo Arregik, Tantaz Tanta kanpainako kideak.

Eguazten goizean, ofizialki erregistratu zuten Bilbon urtarrilaren 11n egingo den mobilizazioa eta martitzenean egin zuten aurkezpenaren azpimarratu zuten kanpainaren zutabea pertsonak bakarrik direla eta tanta guztiak beharrezkoak izango direla. Hauxe esan zuten Arregik: "Ez gara

alderdiak, erakundeak edo sindikatuak elkartzeaz ari, pertsonak elkartzeaz baizik. Hau da, konponbidearen eta aldatetaren aldeko iritzia orokorra jaso eta zabalduko duen herritarren mugimendu zabal eta bezain anitza martxan jartzeaz ari gara", zioen kanpainako kideak.

Bergarako ekimenak

Datozen asteetan ahalik eta tanta gehien batzea eta banatzea da euren asmoa. Hori aurrera eramateko, orri batzuk prestatu dituzte Itsasoaren manifestua-rekin eta bertan, herrian lortzen diren tanta guztiak batuko dituzte. Horiei truke tanta bat eman-godi Bilboko Itsasoan ekime-nean erabiltzeko. Horretarako, abenduko eta urtarrileko hainbat egunetan tantak batzeko ekime-nak egingo dituzte.

Hilaren 19an, 24an eta 27an mahaia jarriko dituzte eta hilaren 31n, berriz, tantaren pegatina soinean eramateko gonbita egingo dute kalean dabiltzan herritarrei. Horrez gain, haima bat jarriko dute kalean, nahi duenak Tantaz Tanta argazkian parte har dezan.

Giza eskubi-ekimenak, konponbidea eta bakea gai izango dituen mahaia inguru bat antolatzen ere hasiak dira. Eta aurreko urteetan bezala, Bilbora joateko autobusen tanta gisako zerrendak jartzeko eskaera egingo dute herriko komertzio eta dendetan.

Informazio gehiago www.tantaztanta.info webgunean.

Plaza-dantzen ikastaroa antolatu du Jardunek

M.B. | BERGARA

Urtarrilaren 8an hasi eta ekainean bukatuko da eta arin-arina, fandangoa, aurraskua, banakoa eta koreografia berriak erakutsiko dituzte Abarka taldeko irakasleek, Juantxo Urbietak, Janire Urbietak eta Jon Arrillagak. Eskolak eguaztenetan izango dira, 19:30etik 21:00etara.

Hain zuzen ere, 15 euro da hileko Jarduneko bazkideendako eta 17 euro bazkide ez direnendako. Izen-ematea zabalik dago Jardun elkar-tearen bulegoan, jardunkultura@topagunea.net helbidean eta 943 76 36 61 zenbakian.

OHARRAK

1953KOEN OHARRA

1953an jaiotako kintoek azaroaren 16an egindako afarian jokaturako esklerosi anizkoitzaren loteriako zenbakia 39.904 dela jakinarazi dute.

DJ JAIALDIA BIHAR

Zabalotegi aretoan izango da, ohi bezala, 18:30etik 21:30era, gaztetxoendako, Amaia Txintxurretarekin.



Ondo pasa Gabon jaietan!



ERAKUSKETAK AROZTEGI ARETOAN					
<p>Taila elkartearen erakusketa. Abenduaren 5etik 22ra</p> <p>Buztinzale zeramika elkartearen erakusketa. Abenduaren 27tik urtarrilaren 12ra</p> <p>Ordutegia: Asteartetik ostiralera: 18:00 – 20:30 Larunbatetan: 12:00 – 14:00 eta 18:00 – 20:30 Igandetan: 12:00 – 14:00</p>					
ABENDUA OSTIRALA 13	ABENDUA LARUNBATA 14		ABENDUA IGANDEA 15		
<p>22:00 Oihulari Klown taldearen Sex o no sex antzezana Zabalotegi aretoan (gaztelaraz). Sarrera: 8 €</p>	<p>18:30-21:30 DJ jaialdia Zabalotegin. Doan.</p> <p>19:00 Gaztainerre jai eta erromerxia Muniben. Antolatzailea: Erdizka Bergarako trikitizaleak.</p>		<p>18:00 Hansel eta Gretel txokolatzeko etxean. 3-9 urteko haurrentzat Glu Glu producciones-en antzezana. Zabalotegi aretoan. Sarrera: 4 €.</p>		
ABENDUA ASTEAZKENA 18	ABENDUA OSTIRALA 20		ABENDUA LARUNBATA 21		
<p>Zine kluba Zabalotegin.</p> <p>20:00 Botilen hilerria. (Iñaki Alforja). Dokumentala. 3€</p>	<p>18:30 BME-ren gabonetako kontzertua pilotalekuan. Sarrera: 4/2 €</p> <p>19:00 Gimnasia erritmikako erakustaldia Labegaraietan. Antolatzailea: Ariznoa erritmika.</p>		<p>10:30 Nafar Feria San Antonio auzoan.</p> <p>22:30 Gabonetako kontzertua Udal pilotalekuan. Sarrera: 8€.</p>		
ABENDUA ASTELEHENA 23	ABENDUA ASTEARTEA 24		ABENDUA OSTEGUNA 26 - 27		
<p>18:00 Oientzeroren sekretua 3 urtetik gorako umeentzako Zirta-taldea taldearen antzerki emanaldia Zabalotegi aretoan. Sarrera: 4€.</p>	<p>11:30 Oientzero herriko haur eta gurasoekin Fraiskoziuri plazatik hasita.</p> <p>19:00 Oientzeroren kalejira udal biltegitik hasita.</p> <p>19:30 Gabon kantak San Martin plazan.</p>		<p>Gabonetako3x3 saskibaloia txapelketa udal pilotalekuan.</p> <p>Antolatzailea: BKE saskibaloia. (26an, 10:00-20:00 eta 27an, 09:30-13:30)</p> <p>17:00-19:00 3 urtetik gorako haurrentzako tailerrak (eskulanak, esperimentuak, ipuin kontaketak...) Aranzadiko gimnasioan. Doan.</p>		
ABENDUA ASTELEHENA 30	URTARRILA ASTEAZKENA 1		URTARRILA OSTEGUNA 2 - 3		
<p>18:00 Bihotz-bihotzez, 2-7 urte bitarteko umeentzako Teatro Paraisoren kontzertu ikuskizuna Zabalotegin. Sarrera: 4€.</p> <p>15:30 Gabonetako pilota finalak pilotalekuan. Antolatzailea: BKE pilota elkarte.</p> <p>Patin hockey 4x4 txapelketa Labegaraieta kiroldegian. Antolatzailea: Hanka Labanka.</p>	<h2>Ongi etorri 2014!!!</h2>		<p>11:00-13:00 eta 17:00-19:00 Ur jolasak Agorrosingo igerilekuan. Antolatzailea: Udal kirol zerbitzua.</p> <p>Gabonetako jolas parkea.</p> <p>11:00-13:00 eta 17:00-20:00</p> <p>8 urte arteko umeak Udal Pilotalekuan.</p> <p>8-12 urte bitartekoak Aranzadiko gimnasioan.</p> <p>Sarrera: 3 € egun bat, 7€ hiru egun.</p>		
URTARRILA LARUNBATA 4		URTARRILA IGANDEA 5			
<p>Gabonetako jolas parkea.</p> <p>11:00-13:00 eta 17:00-20:00</p> <p>8 urte arteko umeak</p> <p>Udal Pilotalekuan.</p> <p>8-12 urte bitartekoak</p> <p>Aranzadiko gimnasioan.</p> <p>Sarrera: 3 € egun bat, 7€ hiru egun.</p>		<p>17:00 Bizarzuri Udaletxean.</p> <p>17:00 Umeentzako txokolata San Martin plazan San Joxepe elkarteak eskainita</p> <p>19:00 Errege kabalgata, Udal biltegitik.</p>			

Gonzalez Bastida gogoan Gabonetako kontzertuan

'Tutti'-an parte hartzeko gonbita egin dute, herritarrek ere omen dezaten Gonzalez Bastida

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Orain dela hilabete gutxi hil zen Miguel Gonzalez Bastidaren omenezko emanaldia izango da aurtengo Gabonetako kontzertua. Aritzeta abesbatzaren, Bergarako Orfeoiaren, Udal Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren eskutik hainbat pieza entzuteko aukera izango dute kontzertuan batzen direnek.

Aurten, baina, memoriaz eta sentimenduz betetako ikuskizuna izateaz gainera, parte-hartzaileagoa ere izango da. Izan ere, herritarrei gonbita egin diete kontzertuan parte hartzen duten talde guztiek, *tutti*-an parte har dezaten. Horrela, herritarrek ere ekarpen xumea egingo dute; omenaldi xumea, alegia.

Aritzeta Abesbatzako lehendakari Xabier Alzolak hauxe adierazi du: "Gonbita herritar guztiei zuzenduta baldin bada ere, Miguelekin abestu zutenei konkretuki helarazi nahi izan diegu gonbita. Batzuk animatu dira eta badakit beste batzuk damutu egingo direla kontzertua ikustera etortzen direnean. Ziur abesteko gogoz geratuko dela bat baino gehiago..." adierazi du Alzolak.

Halaber, kontzertuaren lehen zatian, Aritzeta lau pie-

za interpretatuko ditu, horietako bat Miguel Gonzalez Bastidak berak konposatutakoa: *Errekatxo kantari*. Hala, euren omenaldi txikia ere egingo diote "herriko konpositore handiari", esan du Alzolak.

Entseguak

Aritzeta abesbatzako kideek eguaztenetan egiten dute entsegua, 21:00etan, Ospitale Zaharreko elizan, eta *tutti*-an parte hartzeko interesa dutenek oraindik ere badute aukera entsegura joan eta parte hartzeko. Orfeoia, aldiz, martitzenetan eta eguaztenetan egiten ditu entseguak.

'Estampas navideñas'

Estampas navideñas izango da aurtengo *tutti*-an interpretatuko duten pieza. Miguel Gonzalez Bastidak konposatutako lana da eta Gabonak direla eta oso aproposa; izan ere, "oso abesti ezagunetz osaturiko pieza da, Gabonetako estapanak, oso tipikoa", zehaztu du Aritzeta Abesbatzako lehendakari Xabier Alzolak.

Kontzertua abenduaren 21ean izango da, Santo Tomas egunean, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Sarrera 8 euro kostatzen da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Astelehenetik aurrera, Udaltzaingoa jaso ahal izango dira Udalak argitaratzen dituen egutegiak

Aste honetan amaitu da Bergarako Udalaren 2014ko egutegiaren kaleko banaketa. Egutegiak atarrietan utzi dituzte, barruan, pilatxo batean, buzoietan sartzeko tolestu beharra zutelako. Etxebizitza bakoitzerako bana utzi da, baina gertatuko zen zenbait kasutan etxebizitzaren batek bat baino gehiago hartu eta beste batzuk gabe geratzea. Hala, beraz, gabe geratu direnek edo ale gehiago nahi dituztenek Udaltzaingoa jaso ahal izango dituzte abenduaren 16tik aurrera. Baserri-auzoetako banaketa auzo-alkateek egingo dute datozen egunetan. Auzo-alkaterik ez duten auzoetako bizilagunek, berriz, Udaltzaingora jo beharko dute.

Saharrendako janari-batzea hasiko du egunean Bubisherrek

Ohi bezala, herriko dendetan eta udaletxean laga ahal izango dira jakiak

M.B. | BERGARA

Gabonen atarian ohiko bilakatu den moduan, Bubisher sahararren aldeko elkarteak janaria eta bestelakoak batzeko kanpaina abiaraziko du datorren egunean, hilaren 19an.

Aurreko urteetan bezala, egoskariak -dilistak, garbantzuak eta beste-, pasta, olio, azukrea, atun eta sardina latak, helduendako fardelak eta konpresak batzea da kanpainaren helburua eta herriko denda askotan eta supermerkatu handiagotetan jarriko dituzte bilketa egiteko kutxak. Horrekin batera, udaletxean ere jarriko dute.

Kanpaina urtarril amaiera arte izango da eta Gabonen ostein ikastetxeetara ere hedatuko dute laurreratu dute elkartetik. Era berean, Laboral Kutxan kontua ireki dute laguntza ekonomikoa eman nahi dutenentzako; hauxe: 3035 0009 13 0091113300.

Boluntarioak behar dituzte

Bubisher, Sahararen subiranotasunaren aldeko elkarteak, 2005ean sortu zen, nahiz eta elkarteak sortu aurretik ere herritar talde batek Sahararen alde-



Elikagaiak batzeko kutxak Eroskin. | GOIENA

ko janari bilketa egiten zuen Gabonen inguruan.

Gaur egun zortzi bat lagun ari dira elkartearen buru-belarri eta, batez ere, janari-batzeak iraungo duen denborarako laguntza eskertu egingo luketela aurreratu dute elkartetik. Bereziki, herritarrek kutxetan lagatako jakiak batu, biltegira eraman eta hantxe sailkatzeko laguntza da behar dutena. Bada, laguntza eman nahi duten herritarrek 943 76 24 12 telefono zenbakira dei dezakete (Bibi).

Biltegia lekuz aldatu dute

Orain arte Erregetxo plazan zegoen eskola zaharra erabili izan du Bubisherrek kanpainarako biltegi moduan, Udalak lagata. Aurten, hala ere, lekuz aldatuko dira, Erregetxoko lokala erantsita dagoelako. Hori horrela, Oxirondo azokaren sotoan egokituko dute biltegia Bubisherrekoak eta han batu eta sailkatuko dituzte saharrei bidaltzeko elikagai eta bestelakoak. Hain zuzen, otsailean abiatuko da Euskal Herritik elkartasun karabana.

Idea eta proiektu onena bozkatzeko unea da



Alkatea proiektuen eta ideien erakusketan. | ANE ETXEBERRIA

A.E | BERGARA

Ideiak eta proiektuak aurkezteko epea amaituta, lehiaketako irabazlea zein den erabakitzeko ordua iritsi da. Irabazlea zein den erabakitzeko, baina, herritarren parte-hartzea beharrezko ikusten du Udalak. "Herritar guztiak animatzen ditugu proiektuak zeintzuk diren ezagutu eta bozkatzera; udaletxean bertan edota Internet bidez bozkatzeko aukera izango da", adierazi du Jaione Isazelaiak. Bozketan parte hartzen dutenek, gainera, zozketa batean sartuko dira.

Hainbat proiektu eta idea polit ezagutzeko aukera izan dela adierazi digu Isazelaiak: "Denetarik dago eta gustuen arabera dago dena, baina, nire ustez, oso interesgarriak diren proiektu bat baino gehiago daude ikusgai".

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



LAN
ESKAINTZA

Automobilien
mekanikari autonomoa
behar da.
Elektrizitate ezagutzak
dituena.
Esperientziarekin.

Tel.: 618 41 40 90



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak



Lide Osinagaren lanetako batzuk . | BE HAPPY IKUSI IKUSI

Gabonetako lehen azoka egingo dute herriko gazte artisauek

O.E. | OÑATI

Gabonetako azoka berezia egingo dute, lehenengo aldiz, herriko gazte artisauek. Datorren zapatuan, abenduak 21, izango da, Foruen plazan.

Idea asko

Bitxiak, bizkotxoak, madalenak, eskuz margotutako kamisetak... denetarik egongo da azoka horretan. Ikusteko eta erosteko, jakina. "Egile guztiak oñatiarrak izango dira, eta gazteak. Eskaintza zabal izango da", aurreratu du antolatze lanetan diharduen Lide Osinagak.

Herri Egunean egiten den artisauen azokatik etorri zitzaion ideia Osinagari. "Azo-

ka horretan izaten gara hemengo artisauek ere eta eurekin harremanetan jartzea pentsatu nuen, Gabonetako azoka berezi hau antolatzeko ideia komentatzeko. Egia esatearren, oso erantzun ona izan dut, denak azaldu dira prest, eta, horrela, guztion artean prestatuko dugu azoka", azaldu du Osinagak berak.

Azoka abenduaren 21ean izango da, goizez, Foruen plazan. "Eguraldi ona egiten badu plazan bertan jarriko ditugu postuak eta euria bada, arkupeetan. Gabonetako opariak egiteko ideia asko izango dira azokan eta herritar guztiak daude gonbidatuta", adierazi du.

Errege Kabalgatarik ez, baina umeei harrera bai

Olentzerok, berriz, Mari Domingiren laguntza izango du abenduaren 24an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aurten ez da Errege Kabalgatarik izango Oñatin. Hala ere, Erregeak etorriko dira eta hartuko dute tartea herriko umeekin egoteko. Udaletxeko osoko bilkuran egongo dira umeen gurariak entzuteko. "Egia esan, inor ez da gertu azaldu kabalgata antolatzeko, eta harrera antolatzea erabaki du Udalak", dio Kultura zinegotziak, Nerea Zubiak.

Martiñola taldeak antolatu izan du azken urteetan Errege Kabalgata. Urtarrilekoa izan zen, baina, azkena. Erreleboa eskatu zuen, baita Olentzeroren ongietorria antolatzeko ere. Udalak, orduan, deialdia egin zien herritarrei eta herriko eragileei ekitaldiak antolatzeko edo ekarpenak egiteko. "Errege Kabalgata anto-



Ume bat Meltxor erregeari muxu ematen. | MIREIA BIKUÑA

latzeko, baina, ez da inor aurkeztu", zehaztu du Zubiak.

Olentzero eta Mari Domingi

Olentzero antolatzeko ardura herritar talde batek hartu du.

"Aurrera dezakeguna da aurten Mari Domingiren laguntza izango duela Olentzerok", dio Zubiak. Eta jarraitu du: "Haiek prestatuko dute karroza. Ibilbidea eta ordutegia ohikoak izango dira".

Herritarren saria emango dute aurtengo OKSn

O.E. | OÑATI

Datorren egubakoitzean, abenduak 20, banatuko dituzte aurtengo Oñatiko Kirol Sariak. Aurten, gainera, herritarren saria emango dute, lehenengo aldiz, urteroko sariez gain.

Izenak dioen bezala, herritarrek erabakiko dute sari hori herriko zein kirolari edo kirol eragileari eman. Internet bidez botoak emanda emango dute euren iritzia. Horretarako, udal webgunean sartu eta hango argibideak jarraitu baino ez da egin behar. Hauxe da helbidea: www.oinati.eu. Sari hori ere egubakoitzeko ekitaldian emango dute, 18:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

2013. urtean zehar gehien nabarmendu diren herriko kirolari eta kirol eragileak omendu gura izaten ditu Udalak ekitaldi horrekin.



Sustrai fruta-dendak San Lorentzon duen denda, apainduta. | O.E.

Gabonetako erakusleho lehiaketan herriko 38 merkatarik hartu dute parte

O.E. | OÑATI

Guztira, herriko 38 merkatarik hartu dute parte seigarren aldiz Udalak eta Txandak elkarrekin antolatu duten Gabonetako erakusleho lehiaketan.

Aurtengo lehiaketan 4.500 euro banatuko dituzte, zazpi sari-tan banatuta. Profesionalek osatutako epaimahaiak emango ditu bost eta beste bat herritarren botoek erabakiko dute. Horretarako,

rako, *Kontzejupetik* aldizkarian datozen txartelak bete eta udal-txean edo turismo bulegoan entregatu behar dira hilaren 20a aurretik. Zazpigarrena urte osoko lana sarituko duena izango da.

Zapatu arratsaldeetan zabalik

Bestalde, Txandako dendak zabalik egongo dira garai honetako zapatu arratsaldeetan: "Gure bezeroei zerbitzua hobetu nahian".



OÑATI O.E.AJ

Kontsumoaz jardun du Orozek

Nekazaritza eta Arrantza sailburuordea, Bittor Oroz, izan zen eguaztenez Batzokian. Bi arlo horiek industria bezala tratatzeko beharra azpimarratu zuen eta funtsezkoa dela aztertzea zer joera dagoen elikagaien katean behar hori asetzeko bideak aurkitzeko. Jende asko egon zen Orozi entzuten, eta galdera asko egin zizkieten.

G21

Gizonezkoentzako zapata-denda



Irala 3 behea - BERGARA
Tel.: 943 76 52 98

AMAIA ZABALETA IRAZABALBEITIA

Abokatua



HELBIDE BERRIAN:

Artekale 16, behea - BERGARA - Tel.: 943 76 21 71

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Elkar Heziren azoka, elkartasun taupadak lortzeko nahiaz, bihar

GKEen postuak eta tailerrak izango dira, besteak beste, Foruen plazan

IRATI GOITIA | OÑATI

Elkar Hezi Taupadak elkartasun azoka egingo dute bihar goizean Foruen plazan, Elkar Hezik antolatuta. Aurten, gainera, antolakuntza batzordean irakasleekin batera batxilergoko lehenengo mailako ikasleak aritu dira.

Azoka eta tailerrak

Hainbat gobernuz kanpoko erakunde postua jarriko dute. Produktuak salduko dituzte proiektuetara zuzenduriko irabaziak lortzeko helburuz, eta euren jardueraren gaineko informazioa emango dute.

Bestalde, Elkar Heziko familiek, ikasleek eta irakasleek egingo dute gozoekin eta bitxiekin salmenta-guneak ere egingo dira; baita txosna ere. Bi kasuetan, lortuko diren irabaziak Maliko Togo hiriko Saint Paul ikastetxera bideratuko dira.



laz egindako azoka. | IMANOL SORIANO

Bestalde, elikadurarekin lotutako bi tailer egingo dituzte. Haur Hezkuntzako ikasleei eta haien gurasoei zuzendutako *Garaian garaiko barazkiak Potx eta Motxekin*. Eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta haien gurasoentzat *Azoka ezagutzen eta Pintxo tailerra*, Amaia Diaz de Monasterioren dietetikan adituarekin.

Erosketak Txandako dendetan

Arratsaldean, berriz, LHko erakinean txikienei zuzenduriko film emanaldia eta txokolate-jana egingo dituzte. Une hori gurasoek Gabonetako opariak erosteko aprobetxatzen dute. Aurten, Txandakoekin adostu dute euren komertzioak irekiko dituztela, eta ikastetxetik gurasoak erosketak herrian bertan egitera animatuko dituzte. Bestalde, Txandakoek eskainitako oparia zozketatuko dute emanaldiaren amaieran.

Bilketak ere egingo dira: bate-tik, elikagaiak batuko dira Caritasera bideratzeko, eta bestetik, arropa eta oinetakoak Herman-saloña eta Santa Lola GKEetara zuzentzeko.

'Emaztegaiaren semea' antzezlan gaur

I.G. | OÑATI

Ados antzerki konpainiaren *Emaztegaiaren semea* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera 10 euro da.

Fernando Castetsen eta Juan Jose Campanellaren *El hijo de la novia* filmaren egokitzapena da eta aktore ezagunak batzen ditu taula gainean: Asier Hormaza, Sara Cozar, Kandido Uranga, Iñake Irastorza eta Mikel Laskurain bergararra.

Garbi Losadak zuzentzen duen antzezlan horretan, dramaz beteriko egoerak umore ukituaz lan-tzen dira. Hala, sentsazio kontra-jarriak pizten dira ikuslearengan; barre algaratik negarrera pasaz,



Antzezlaneko une bat. | ADOS ANTZERKI KONPAINIA

ia ordu eta erdi irauten duen saioan. Gurasoen jatetxea aurrera atera nahian dabilen Rafaelen gorabeherak kontatzen dira. Aurre

egin beharko die nazioarteko jatetxe-kate batek berea erosteko duen nahiari eta amaren alzheimerri, besteak beste.

Malirako dirua batzeko, bandaren eta abesbatzen Gabon kontzertua

I.G. | OÑATI

Urteroko Gabonetako kontzertu berezia egingo dute Udal Musika Bandak, Oñati Abesbatzak, Parrokiako koruak, Ganbara Abesbatzak, Ganbara Gazte Abesbatzak, Ganbara Txiki Abesbatzak eta Txantxiku Ikastolako Abesbatzak abenduaren 15ean, domekan, San Migel parrokiaren, 19:00etan. Iñaxio Ibarrodok jardungo du zuzendari lanak egiten. Udalaren laguntzarekin antolatutako emanaldia da.

Kontzertua Oñatiko Pastoral Barrutiko Taldeak laguntzen duen Maliko Togo hirian dagoen Saint Paul ikastetxerako dirua batzeko egingo da.

Umeentzako janaria

"Kontzerturako sarrera doakoa izango da, baina atean dirua batzeko mahaia jarriko dugu. Horretaz gain, lortutako irabaziak bideratuko diren proiektuaren gaineko informazioa ere eskainiko dugu", adierazi digu Joxean Larrañaga parrokoak. Zehaztu digu urte batzuk daromatxatela dagoeneko Malin dagoen Saint Paul ikastetxerekin lanean. Bertan barnetegia ere badagoela esan digu eta hango umeentzako janaria bidali nahi dutela. Izan ere, uzta ez dela ona izan gaineratu digu eta aurten dagoeneko bidali dutela janariz betetako edukiontzia bat.

Hipo eta Tomax pailazoen 'Ikusi mendizaleak' ikuskizuna bihar, Zuazola institutuko aretoan

Urgain-Errekalde ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, emanaldia izango dute bihar Urgain Zuazola Institutuko aretoan. Zehazki, Hipo eta Tomax pailazoen *Ikusi mendizaleak* ikuskizuna. Hitzordua bihar, zapatua, 17:30ean da. Sarrera lau euro da eta aurretik eros daitezke txartelak gaur, Urgain Errekalden, 16:30etik 17:30era bitartean.

Hilaren 16tik aurrera egongo dira salgai Errege bezperako bertso saiorako sarrerak Txokolateixan

Domeka honetan BECen Euskal Herriko bertsolari txapelketan izango diren zortzi bertsolariak (Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza, Sustrai Colina, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga eta Aitor Sarriegi) izango dira urtarri-laren 5ean Oñatin, egun horretan urtero egin ohi den bertso saioan. Sarrerak abenduaren 16an jarriko dituzte salgai, 10 eurotan, Txokolateixan.

Ekintzaz betetako asteburua izango dute honakoa gaztetxean: jardunaldia, aurkezpena, kontzertua...

Ekitaldi ugari antolatu dituzte astebururako Antixena gaztetxean; besteak beste: bailarako asanbladen arteko batzarra egingo dute gaur. Bihar, *Angiolillo* liburuaren aurkezpena Aitor Aranzabalen eskutik, bideo emanaldia eta barne horizontalitatearen gaineko tailerra Joxemi Zumalabe Fundazioak gidatuta. Domekan, irteera goizean eta Ochhi di Farfallaren kontzertua, 20:00etan.

4. edizioa

Kantari

Oñatiko saioa!

Oñatiko partaideok, eman azken errepaso abestiari eta koreografiari!

IKUSKIZUNA

OÑATIN
Abenduaren 14an
GAZTELEKUAN.

BABESLEA:

SUPER BAT KONTUA

Etorri zuen lagunak animatzera. DJa ibiliko da giroa animatzen. Etorri disko-festara dantzara eta Kantariko gaztetxoak animatzera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 | blogak.goiena.net/kantari



Amaia Txinturreta Kantariko aurkezlea

GABONAK 2013

+ SANTAMASAK



Gabonetako agenda
Gabonak, etxetik urruti
Urte amaierako eta hasierako
mendi irteerak
Olentzerori 2014rako eskaerak
Santamas:
betikoa, nobedadeekin
Santamasetan,
aurten bi txerri!
Santamasetako txistorra...
eta bertsolariak

ERABILI GEHIGARRI HAU
GABONETAN!



ARGAZKILARIA XXXX



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



EGUBAKOITZA
13

IKUSKIZUNAK

ELGETA 'Gabrielen lekua' sentikaria

Espaloia kafe antzokian, 22:30ean.

ANTZERKIA

BERGARA 'Sex o no sex' antzezlana

Oihulari Klown taldearen eskutik. Zabalotegi aretoan, gaztelaniaz. 22:00etan.

OÑATI 'Emaztegaiaren semea' antzezlana

Santa Ana antzokian, 22:30ean. Ados taldeak antzeztuko du.

DEIAK

OÑATI Odol ateratzea

Txantxiku ikastolan, 17:30ean.

ARRASATE Auzolagunen, ate irekiakBisita gidatua eta bazkaria izango dira. Izen-ematea, 943 79 64 63 telefonoan edo turismo@deba-goiena.net helbidean.

OSPAKIZUNAK

ELGETA Erretiratuen luntza

Ozkarbi elkartearen, 18:00etan.

ARETXABALETA 90 urteko omenaldia

Basotxon, 17:00etan. Aurten, zazpi lagun omenduko dituzte.

KIROLA

OÑATI Indarra lantzeko tailerra

Zubikoan, 17:00-18:15.

OÑATI Lan kardiobaskularraren tailerra

Zubikoa kiroldegian, 18:15-19:30.

ZAPATUA
14

MUSIKA

BERGARA Urteko azkeneko DJ jaialdia, Amaia Txintxurretarekin

Zabalotegi aretoan izango da, 18:30ean. Sarrera, doan.

GABONETAN
NON-ZERABENDUA 13
URTARRILA 07**ARRASATE** Georgia Mass Choir

Abenduaren 23an, astelehena, Amaia antzokian, 20:00etan, kontzertua egingo du Georgia Mass

Choir taldeak. Whitney Houston-en *La mujer del predicador* filmean abestu zuten. Sarrerak www.arrasate-mondragon.org webgunean.

DANTZA

ARRASATE

Komunikazioa-Inkomunikazioa dantza saioa

Kukai dantza taldearen eta Tanttaka antzerki taldearen saioa. Amaia Udal Antzokian, 19:30ean hasita.

KIROLA

OÑATI Boulder txapelketa

16 urtetik azpikoendako da. Zubikoa kiroldegian, 10:30-13:00.

OÑATI Fitness jaialdia

Zubikoan, 10:30-13:00.

ANTZERKIA

OÑATI 'Vivir en villa Titiritaina'

antzezlana, Ikusi Makusirekin Santa Ana antzokian, 21:30ean.

UMEAK

ARETXABALETA 'Hiru lumak' ipuin

kontaketa, Rosa Martinezekin 4 urtetik gorakoentzat. Udal Liburutegian, 11:30ean.

ARRASATE Gabonetako jolasparkea

Biteri plazan, Ibai Artek antolatuta. 12:00-14:00, 16:00-19:00.

OÑATI Hipo eta Tomax pailazoan 'Ikusi mendizaleak' jaialdia

Urgain-Errekalde Guraso Elkartearen eskutik. Zuazola Institutuan, 17:30ean.

BESTELAKOAK

OÑATI Elkar Hezi Taupadak azoka

Elkartasun azoka da. Foruen plazan, 10:30ean.

ARRASATE 'Ganorazko keinuak', egun osoan

Erakusketak, salmenta postuak, umeentzako tailerrak... Kulturaren eta azokan, 09:00etan.

ARETXABALETA Neguko bigarren eskuko azoka

Herriko presoen alde. Udaletxe zaharrean, 11:00etan.

DOMEKA
15

MUSIKA

OÑATI Occhi di Farfalla bikote akustikoaren emanaldia

Gaztetxean, 20:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua

Partaideak: Musika Banda, Oñati Abesbatza, parrokiako koruak, Ganbara, Ganbara Gazte, Ganbara Txiki eta Txantxiku Ikasolako Abesbatza. Jasotako dirua Maliri laguntzeko izango da. Parrokian, 19:00etan.

BERGARA 'Hansel eta Gretel

txokolatezko etxean' antzezlana 3 eta 9 urte artekoentzat. Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

ZINEMA

ARRASATE 'Blue Jasmine' filma

Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE 'Doraemon eta nobita holmes' filma

Amaia antzokian, 17:00etan.

KIROLA

ARRASATE Kuadrillen arteko

Santamas krosa 12:30ean hasita. Umeak, 11:00etan.

BERTSOLARITZA

OÑATI Bertsolari txapelketa, pantaila handian


Gaztetxean, egun osoan.

BESTELAKOAK

ELGETA Gobernuaz kanpoko

erakundearen erakusketak Espaloia antzokian, 12:00etan.

Jose Aranzabal

Estufak
Berogailuak
Hezetasun-kengailuak
Hezegailuak
Arropa-lehorgailuak
Manta elektrikoak...
Etxetresnak
Etxeko gauzakKanpaiak
Plakak
Labeak...Sukaldeko egokitze-lanak eta konponketak
Mahaiak eta aulkiak
Sukalderako altzariak

ARRASATE

ARRASATE Ume eta gazteendako herri kirol jolasak

Biteri plazan, 17:00etan.

ARRASATE Dantza taldeetako umeen emanaldia

Herriko Plazan, 18:30ean. Lore Gazteak eta Txikitxu taldeen eskutik. Eguraldi txarra eginez gero, Biteri plazan.

ASTELEHENA
16**ZINEMA****ARRASATE 'Blue Jasmine' filma**

Woody Allenen film berriena. Amaia antzokian, 20:30ean.

MARTITZENA
17**HITZALDIA****OÑATI Ezin lo egiteari buruzko hitzaldia**

Nagusilanekin batera antolatutako hitzaldia. Gaztelan izango da. Hizlaria: Jesus M. Iriarte. Pake Lekun, 17:30ean.

IKASTAROA**BERGARA Azala zaintzea eta makillatzea**

Miguel Altuna Institutuan, 18:00etan.

EGUAZTENA
18**BESTELAKOAK****BERGARA 'Botilen hilerria' dokumentala**

28 minutuko dokumentala da, Iñaki Alforjak zuzendutakoa. Duela 70 urtetik, San Cristobalgo gotorlekuaren hilerrian hamarka botila lurpean daude. Zabalotegi aretoan, 20:00etan.

ARRASATE 'Korrotik pikutara'*Dantzaren historia dantzatu bat* hitzaldi eta dantza, Oier Arabao-lazarekin eta Garikoitz Otamen-direkin. Kulturaten, 18:30ean.**BERGARA Debagoieneko 3. Tobera**

Bagarak bultzatutako Tobera antzerki satirikoaren hirugarren antzezlan taularatu dute abenduaren 28an, zapatua, Bergarako pilotalekuan, 19:00etan. Oraingoan, Bergara epaituko dute. Bergarako auzotarrek erdigunekoei leporatzen dizkien akusazioak, azalkeria akusazioak... izango dira tartean.



AMAIA TXINTXURRETA

EGUENA
19**MUSIKA****ARETXABALETA Saiatu Berriz (Ostegun Akustikoak)**

Dagda tabernan, 21:30ean.

OSPAKIZUNA**OÑATI Txistorra-jana dantzarekin**

Pake Lekun, 18:00etan.

ANTZERKIA**OÑATI 'Ipuinez ipuin' kontaketa**

6-10 urte artekoendako. Haur liburutegian, 18:00etan.

EGUBAKOITZA
20**MUSIKA****BERGARA BMEren Gabonetako kontzertua**

Pilotalekuan, 18:30ean.

ELGETA Musika ikasleen emanaldia

Espaloia antzokian, 19:00etan.

OÑATI Amaia DJrekin disko festa

Topalekuan, 18:00-21:00.

OÑATI Ez!, Ro eta Frantzeska taldeen kontzertua

Tantaz Tanta ekimenaren barruan antolatu dute. Gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI Soulshine Voices taldearen gospel kontzertua

Santa Anan, 22:30ean. Okzitania-ko Tolosatik (Toulouse) datorren taldea. 2006an sortu zen, jazz eta gospel musikan ezaguna den Sandrina Garciak zuzenduta.

KIROLA**BERGARA Gimnasia erritmikako erakustaldia**

Labegaraietan, 19:00etan.

ARETXABALETA Boulder txapelketa

Ibarran, 16:00etan.

ARRASATE Santamasetako pilota txapelketako finalak

Uarkapen, 19:15ean hasita.

OSPAKIZUNA**OÑATI Olentzero dator Elkar Hezira**

Olentzeroren jaia egingo dute Elkar Hezi ikastetxean, goizez.

ARRASATE Kantu kalejira

Portaloi taldearekin, 19:00etan.

ANTZERKIA**ELGETA Joxe Mari Karrereren ipuin kontakizuna**

Ipuin pre-erotikoak kontatuko ditu, helduendako. Liburutegian, 22:00etan.

BESTELAKOAK**ELGETA Birziklatuz Gabonetako apaingarriak**

Ludoteka-gaztelekuan, 16:00etatik aurrera. Abenduaren 20an, 21ean eta 22an.

OÑATI Oñatiko Kirol Sariak 2013

Udaletxean, 18:30ean.

ARRASATE Santamasetako erakusleho lehiaketa

Sari banaketa, 18:00etan.

ZAPATUA
21**MUSIKA****ELGETA Ostiada Oi! - Agurreko kontzertua gaztetxean**

Ostiada Oi!, BC Bombs eta Jonny Gerriwelt. Jarraian, Olarius & Brother RnR DJak. 22:30.

BERGARA Gabonetako kontzertua
Sarrera: 8 euro. Udal Pilotalekuan, 22:30etik 00:30era.**OÑATI Gabonetako kontzertua**

Aita Madina txistulari taldea, Jose de Azpiazu musika eskolako txistulari eta akordeoilariak. Udaletxeko arkupeetan, 18:00etan.

OÑATI Oñati Abesbatzaren kontzertua

Agustindarren elizan, 20:15ean.

DANTZA**ELGETA 'Abre los ojos' dantza ikuskizuna**

Despertar los Sentidos taldeko kideen eskutik. Down sindromea duten gazteek osatua. Espaloia kafe antzokian, 18:00etan.

JAIAK**BERGARA Nafar Feria**

San Antonio auzoan, 10:30ean hasita.

ARETXABALETA Santo Tomas

Basotxoko erretiratuek doke txapelketa izango dute, goizean, eta Gabonetako otzaren zozketa, arratsaldean.

ZINEMA**ARRASATE 'Séptimo' filma**

Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE 'Turbo' (3D)

Amaia antzokian, 17:00etan.

KIROLA**ARRASATE Gipuzkoako gazte mailako finalak**

Uarkapen, 10:30ean hasita.

BESTELAKOAK**ELGETA Birziklatuz Gabonetako apaingarriak**

Ludoteka-gaztelekuan, 16:00etatik aurrera. Abenduaren 20an, 21ean eta 22an.

OÑATI Oñatiko artisauen azoka

Plazan, 10:00-15:00.

OÑATI Gabonetako VI. Erakusleho Lehiaketako sari banaketa

Udaletxean, 13:30ean. ➤

Aldape Taberna Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburueta menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69

DOMEKA 22

ANTZERKIA

BERGARA 'Beldartso jatuna' antzezlan

2 eta 8 urte bitarteko haurrentzako. Zabalotegin, 18:00etan.

JAIK

ARRASATE Santamas jaia

Ekintzak egun osoan.

KIROLA

OÑATI Gabonetako IV. ziklo-kros txirringularitza lasterketa

San Martinen, 09:45ean.

MUSIKA

ARETXABALETA Organo, tronpeta eta soprano emanaldia

Andra Mari elizan, 19:00etan.

OÑATI Sumision City Blues taldea

Pako tabernan, 19:30ean.

BERTSOLARITZA

ARRASATE Santamasetako bertso jaialdia

AEDk antolatuta, Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi, Sebastian Lizaso eta Maddi Sarasua bertsolariak. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Amaia antzokian, 20:30ean.

BESTELAKOAK

ELGETA Elgetan Kantuan

Jose Gardokirekin kalerik kale eta tabernarik taberna ibiliko dira. 13:00etan.

ELGETA Truke azoka

6. mailako neska-mutikoez antolatuta. Plazan, 12:00etan.

ELGETA Birziklatuz Gabonetako apaingarriak

Ludoteka-gaztelekuan, 16:00etatik aurrera. Abenduaren 20an, 21ean eta 22an.

ASTELEHENA 23

OSPAKIZUNAK

ELGETA Olentzeroren etorrera

Intxortatik jaitziko da Olentzero. Herriko plazan, 18:00etan.

ANTZERKIA

BERGARA 'Olentzeroren sekretua' antzezlan

3 urtetik gorakoentzako. Zabalo-tegi aretoan, 17:00etan.

ARRASATE Galtzagorriak ipuin kontalariak

Kulturaten, 18:00etan.

KIROLA

DEBAGOIENA Pilotako Gabon kopa, abenduaren 23tik 28ra

Gaztetxoek partidua Aramaion, Oñatin, Antzuolan eta Arrasaten.

BESTELAKOAK

ELGETA Gaztelekuko eskulan azoka

Herriko plazan, 17:00etan.

OÑATI Ludotekan ate irekiak

Txaloka ludotekaren eguneroko jarduna ezagutzeko aukera. Adin tartea: 4-10. Abenduaren 23an, 26an, 27an eta 30ean (10:00-13:00).

OÑATI Gaztetxekeko ekintzak

Goizez, mendi irteera; arratsaldean, super 8 mm zinekluba, *Navajeros* filmarekin.



GANBARA ABESBATZA

OÑATI Ganbara Txiki 10. urteurreneko ekitaldiak

Ganbara Txiki: 10 urte kantuaekin biziz, kantuaekin haziz delako erakusketa dago kultur etxean, 18:00-20:00, abenduaren 31ra arte. Izenburu bereko kontzertua abenduaren 22an, domeka, Zubikoa kiroldegian izango da, 19:00etan. Sarrera, 8 euro.

ARRASATE Eskuardean artisauen

azoka, abenduaren 23an eta 24an

Goiz eta arratsaldean, Seber Altuben izango da; abenduaren 24an, goizez, Seber Altuben.

MARTITZENA 24

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA Olentzeroren eta Mari Domingiren jaitziera

San Josetik abiatuko dira, 18:30ean. Aurten, plazara zuzenean joan beharrean, kantatu egingo dute bidean zehar. Geroko ekitaldi nagusia plazan izango da; euria egiten badu, eskolako patioan egingo dute.

ARETXABALETA Mari Domingi eta Olentzero

12:00etan Herriko Plazan egongo dira eta 18:30ean Ibarra kirol etxetik irtengo dira.

BERGARA Olentzero

Olentzero herriko haur eta gurasoei kalejira joango da, Fraiskozuri plazatik hasita, 11:30ean.

ANTZUOLA Eskolako umeen eta gurasoen eskutik, kalejira

Errekaldetik irtengo da, 11:00etan. Euria egiten badu, eskolako patioan izango da.

ELGETA Gabon kantuak

Eskolako umeak Gabon kantuak abestera irtengo dira. Jarraian, salda eta txorizoa, guraso elkarrearen eskutik. Irteera, eskola ataritik, 10:00etan.

OÑATI Gabon kantuak, Tantz Tantarekin

Plazan batuko dira, 09:00etan, kalejira egiteko. Tantz Tanta ekimenak antolatzen du.

OÑATI Olentzero eta Mari Domingi

Otaui zuhaitzitik abiatuko dira, 17:30ean, eta kalejira egingo dute.

LEINTZ GATZAGA Gabonetako kantuak

09:30ean elkartuko dira plazan, kantuan ateratzeko baserri base-ri eta eguerdi partean herrigunean.

ARRASATE Txoronpio eta Txoronpia

Txoronpio eta Txoronpiak Olentzerorendako gutunak jasoko dituzte, 11:40an. Seber Altuben egongo dira, 13:15ean; eguraldi txarrekin, Uarkapen.

ARRASATE Olentzero

Olentzeroren irteera hasiko da 18:00etan, San Andresen. Olentzeroren agurra: mutil-dantza eta herri-dantza, Herriko Plazan, 19:00etan.

MUSIKA

OÑATI Gabon kantuen kontzertua akordeoilariek eta bandak

Udaletxeko arkupeetan, 18:00etan, Jose de Azpiazu musika eskolako akordeoilariek joko dute. 19:00etan, musika bandaren Gabon kantuak entzuteko aukera izango da.

EGUAZTENA 25

BESTELAKOAK

OÑATI Oñati Irratiaren saio berezia 10:00-12:00.

ALDEDI

Ondo pasau Santamasak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

EGUENA
26

MUSIKA

ANTZUOLA Elvis Caino disko jartzailea

Elvis Caino bergararrak musika ipiniko du. Gaztetxean, 22:00etan.

ARETXABALETA Juan Carlos Irizarren kontzertua Zaraia aretoan
Musikari oñatiarraren kontzertua. Sarrera, 5 euro. 22:00etan.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA Poteoa doan

Poteoa doan herriko taberna eta Gaztetxean. 19:00etan.

KIROLA

BERGARA Gabonetako hiruko saskibalo txapelketa

Udal Pilotalekuan izango da (10:00 eta 16:00). Abenduak 26 eta 27.

IKASTAROKAK

BERGARA 3 urtetik gorako haurrentzako tailerrak

Aranzadiko gimnasioan, 17:00etan.

UMEAK

ARETXABALETA Gabonetako parkea: jolasak Ibarako kantxan

3-12 urte bitartekoentzako honako ekintzak izango dira: puzgariak, XBOXak, tailerrak. Ordu-tegia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Sarrera, 5 euro.

OÑATI Gabonetako ur jolasak

Abenduaren 26an eta 27an Zubikoa kiroldegian. Ordu-tegia: 10:30-12:30, 16:30-18:30.

BERGARA Gabonetako gazte mailako futbol txapelketa

Abenduaren 29an, lehen finalerdia: Eibar-UDA, 17:00etan, Ipintzan. Abenduaren 30ean bigarren finalerdia jokatu dute: Reala Bergararen kontra, leku eta ordu berean. Abenduaren 31n jokatu dute finala, 16:00etan, Agorroingo futbol zelaian. Argazkian, iazko finala: Reala-Aretxabaleta.



GOIENA

EGUBAKOITZA
27

UMEAK

ARETXABALETA Gabonetako parkea. Puzgariak

8-12 urte bitartekoentzako puzgariak izango dira igerilekuan. Ibarra kiroldegian, 11:00etan hasita.

OÑATI Gaztetzkoendako mus txapelketa

Topalekuan izango da, 18:30etan. Bosgarren aldia du txapelketa horrek.

OÑATI Gabonetako ur jolasak

Abenduaren 26an eta 27an izango dira, Zubikoa kiroldegian. Ordu-tegia: 10:30-12:30, 16:30-18:30.

KIROLA

OÑATI Gabonetako areto futbol txapelketa, Tantz Tantaren eskutik

Zubikoan, arratsaldean eta gauean. Abenduak 27 eta 28.

MUSIKA

OÑATI Eguneko zentroan musika eskolako ikasleen emanaldia

11:30ean hasita.

BESTELAKOAK

OÑATI 'Zeinen bizileku izan da Arrikruz?' ekimena

Antzinako animaliak gertutik ezagutzeko. Sarrera: 4 euro. 10:30ean hasita.

OÑATI 'Verdades y supersticiones sobre la influencia de la Luna' hitzaldia

Ilatargi Taldeak antolatuta. Kultura etxean, 19:00etan. Esteban Esteban da hizlaria.

OÑATI Azken Ostirala: kontzentrazioa

Tantz Tanta ekimenak deitu du. Foruen plazan, 19:30ean.

OÑATI Presoen aldeko baraualdia
Gaztetzkoak antolatuta. Abenduaren 27an eta 28an egingo dute.

ZAPATUA
28

KIROLA

BERGARA Infantil mailako saskibalo torneoa

Antolatzailea: BKE saskibaloia. Labegaraieta kiroldegian, 09:00etan. Abenduak 28 eta 29.

MUSIKA

OÑATI Lin Ton Taunen kontzertua
Gaztelekuan, 22:30ean.

ZINEMA

ARRASATE 'Los juegos del hambre: En llamas' filma

Amaia antzokian, 19:30ean eta 22:00etan.

ARRASATE 'Frozen, el reino del hielo' filma (3D)

Amaia antzokian, 17:00etan.

UMEAK

ARRASATE Gabonetako jolasparkea

Biteri plazan. 12:00-14:00 eta 16:00-19:00.

LEINTZ GATZAGA Umeendako filma

Guraso eta seme-alabendako filma emango dute. Labidean izango da, 17:30ean.

BESTELAKOAK

OÑATI Arrikruz Ixiltasunean ekimena

Sarrera, 4 euro. Goizeko bisita orduetan. Isiltasuna entzunez eta iluntasuna ikusiaz, koba era berezian gozatzeko aukera izango du bisitariak.

DOMEKA
29

MUSIKA

ARETXABALETA Abesbatzaren Gabonetako kontzertua

Andra Mari elizan, 19:00etan.

KIROLA

ARRASATE 'Txelis'-en omenezko futbol txapelketa

Mojategin, 10:00etan hasita. >

AMAGARAK zure ongizatearen alde lan egiten du.

Edertasuna oparitu!

- Mikropigmentazioan **%30eko** deskontua.
- Betileen permanente eta tindatzearekin, **manikura bat opari.**
- Mantentze produktuetan **%10eko** deskontua. (urtarrilaren 3ra arte bakarrik)
- Eta ideia gehiago Gabonetan oparitzeko...

AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

RPS: 228/10

BERGARA Infantil mailako saskibaloitza torneoak
Antolatzailea: BKE saskibaloia. Labegaraieta kiroldegian, 09:00etan. Abenduak 28 eta 29.

ZINEMA

ARRASATE 'Los juegos del hambre: En llamas' filma

Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE 'Frozen, el reino del hielo' filma (3D)

Familia osoarendako filma. Amaia antzokian, 17:00etan.

OÑATI Super 8 mm zinekluba Gaztetxean

El Pico I eta *El Pico II* filmak emango dituzte.

ASTELEHENA 30

IKUSKIZUNAK

BERGARA 'Bihotz-bihotzez' kontzertu-ikuskizuna

2-7 bitarteko umetxoentzako. Teatro Paraisoren eskutik. Sarrera: 4 euro. Zabalotegin, 18:00etan.

MUSIKA

OÑATI Musika bandaren kalejira

19:00etan.

KIROLA

BERGARA Gabonetako pilota txapelketaren finalak

Udal Pilotalekuan, 16:00etan.

ARETXABALETA Emakumezkoen Gabonetako futbol torneoak

Ibarrako futbol zelaian infantilen, alebinen eta kadeteen partiduak, goizetik hasita. Abenduak 31: -09:30ean hasita, honako taldeek

jokatuko dute: Athletic, Reala, Osasuna eta Debagoieneko selekzioak.

ELGETA Herriko pilota txapelketako finalak

Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

OÑATI Kuadrillen arteko saskibaloitza txapelketa

Kiroldegian. 09:30-14:30.

BESTELAKOAK

OÑATI 'Giza eskubideak, irtenbidea, bakea' kale-agerraldia

Tantaz Tantak antolatuta. Herriko plazan hasita, 19:00etan.

MARTITZENA 31

MUSIKA

ARRASATE Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua

Amaia antzokian, 13:00etan.

KIROLA

ELGETA 2013 Pilota Txapelketako bi finalak

Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

OÑATI Pilotako Gabon Kopako finalak

10:00etan.

ESKORIATZA San Silbestrea

17:30ean helduen lasterketa.

OÑATI 2013 ixa 2014 San Silbestre herri lasterketa

Gaztetxoak, 16:00etan; helduak, 16:30ean.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA Bizarzuri

Errege Magoen laguntzaile Bizarzuri Ibarrik irtengo da herriko kaleetara, 18:30ean.



ELGETA Ruper Ordorikaren kontzertua, 'Azukre koxkorrak' disko berria aurkezteko

Oñatiko kantautoreak *Azukre koxkorrak* izeneko diskoa aurkeztuko du Elgetako publikoaren aurrean. Aurretik, Igor Artzuagak joko du. Emanaldia Espaloia kafe antzokian izango da, 19:00etan hasita.

OÑATI Gaztetxearen jaialdia
Antixena gaztetxean.

EGUBAKOITZA

OSPAKIZUNA

ANTZUOLA Urte berriari ongietorria Arrola mendian

08:00etan irtengo dira.

EGUENA 2

UMEAK

BERGARA Ur jolasak Agorrosingo igerilekuan

11:00-13:00 eta 17:00-19:00.

ELGETA Gabonetako haur parkea
Udal Pilotalekuan, 16:00etan.

OÑATI Bilboko UGPra irteera

Postetxe geltokian, 09:15ean.

OÑATI Gabonetako jolasparkea

Urtarrilak 2 eta 3. Kiroldegian. 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.

EGUBAKOITZA 3

UMEAK

ELGETA Gabonetako haur parkea
Udal Pilotalekuan, 16:00etan.

BESTELAKOAK

OÑATI 'Zeinen bizileku izan da Arrikruz?' ekimena

Antzinako animaliak gertutik ezagutzeko ekimena da. Sarrera: 4 euro. 10:30ean hasiko da bisitaldia.

ZAPATUA 4

UMEAK

ELGETA Hondakinekin jolasean ekimena, gaztelekuan

Saio didaktikoa. 17:00etan.

OÑATI 'Oñati ezagutu jolastan' jinkana-jokoa

7-12 urte artekoendako. 10:30.

OÑATI 'Azti txikia' filma

Kultura etxean, 17:00etan.

BESTELAKOAK

OÑATI Arrikruz Ixiltasunean
Goizeko bisita orduetan.

DOMEKA 5

OSPAKIZUNA

BERGARA Errege kabalgata
Udal biltegitik hasita.

BERGARA Bizarzuri udaletxean
Bizarzuri egongo da Bergarako udaletxean, 17:00etan.

OÑATI Errege Magoei harrera

Osoko bilkuren aretoa. 17:30.

ARETXABALETA Errege kabalgata
18:30ean hasiko da, Ibarrik.

ASTELEHENA 6

UMEAK

OÑATI 'Azti txikia' filma
Kultura etxean, 17:00etan.

MUSIKA

OÑATI Musika bandaren kalejira eta kontzertua

11:00etan, kalejira; kontzertua, Santa Anan, 12:45ean.

JOSTAILUAK
2013ko azaroaren 14tik abenduaren 24ra arte

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Munduan, askotariko Gabonak

Lau kontinentetan dauden debagoiendarrek Gabonak nola ospatzen dituzten kontatu digute

I.G./O.E./T.M. | ARRASATE

Hator hator Gabon kanta, Olenzero, argiz eta apaingarriz betetako zuhaitzak, bildotsa eta bakailaoa... Norbaitek Euskal Herrian Gabonak nola ospatzen ditugun galdetuko baligu, erantzunean horiek ez lirateke falta izango. Baina nola ospatzen dute urteko garai berezi hau munduan? Gureekin alderatuta, zein ohitura berezi daude? Galdera horiekin joan gara une honetan atzerrian bizi diren lau debagoiendarrengana.

Herrialdeak beste Gabon

Pentsatzekoa denez, ohiturak herrialdeen arabera aldatzen dira: Saudi Arabian, esaterako, ez dago Gabonen arrastorik; Mexikoko Cancun hirian, bestalde, eguzkipean eta turista artean ospatzen dituzte. Eta debagoiendarrek atzerrian duten bizimoduak ere baldintzatzen ditu Gabonak: ez da gauza bera Zeelanda Berrian denboraldi bat igarotzen egotea edo Alemanian familiarekin bizi izatea. Bi oñatiar, aretxabaletar bat eta arrasatear bat izango dira munduan zehar gure begiak.



Agurtzane Basterra eta Xabier Derteano iaz Indian, Gabonetan. | A. BASTERRA

AGURTZANE BASTERRA | OÑATIARRA ZEELANDA BERRIAN

"Iaz, 31n, Vicente Ferrer Fundazioan izan ginen; aurten, Zeelanda Berrian"

Agurtzane Basterrak eta Xabi Derteanok 2012ko abenduaren 14an ekin zioten euren bidaiari. Bost hilabete eta erdi egin zituzten Asian bidaiatzen: India, Vietnam, Laos, Thailandia... Egun, Zeelanda Berrian bizi dira; zehazki, Christchurchen. Sei hilabete daramatzate bertan. Bigarren urtez, etxetik urrun pasako dituzte Gabonak.

Iaz Indian eta aurten Zeelanda Berrian

Iaz Indian pasa zituzten Gabonak. Abenduaren 24a Hampin egin zuten.

"Nahiko egun normala izan zen, ez genuen ospatu-eta", azaldu digu Basterrak. Abenduaren 31, berriz, oso berezia izan zela esan digu: "Vicente Ferrer

Fundazioko proiektuak ezagutzera joan ginen Anantapurra. Hala, bertan dituzten hezkuntza proiektuak ezagutu genituen goizean. Gauean, Fundazioan bertan ospakizun bat egin zuten antzerki, dantza eta jolasekin. Ondoren, afaldu egin genuen. Etxetik urrun egon arren, patata-tortilla, txorizoa eta urdaiazpikoa ez ziren falta izan mahaian. Eta urte berriari xanpainarekin eman genion hasiera", azaldu digu Basterrak.

Aurtengoak bidaiatzen ospatu dituzte. "Bereziak izango dira. Izan ere, ahizpa dator bisitan. Horretaz gain, udan ospatuko ditugu. Hori ere arraroa izango da; elurrarekin beharrean, beroaz igarotzea Gabonak", dio. Hegoaldeko islatik egingo dute bidaiak. "Oraindik ez dago zehaztua, baina planak ondo joanez gero, Fox Glacier edo Franz Josep Glacierren izango gara 24an eta 31n, berriz, Queenstown-en".



ZEELANDA BERRIA



RK^UZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAR
ARRASATE



RK^UZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

RK^UZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO RK^UZ
ARETXABALETA 1950-2013 ARRASATE

Gabon
zoriontsuak,
guztioi!

60 urte baino gehiago

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK

Sevilla 899 km
Villapinte 911 km
Ocaña 448 km
Puerto 955 km
Almeria 927 km
Osna 912 km
Murcia 955 km
Albacete 729 km
Bapaume 1040 km
780 km

ETXERA

LIBRE

AMAIUR - BASATI
EKAITZ - ILUNTZ
IRATI - KIMETZ
MUXIBAR - OSORIK
TAUPA



Garazi Azkoitia, Cancunen. | GARAZI AZKOITIA

GARAZI AZKOITIA | ARETXABALETARRA CANCUNEN

"Arraroa da hemengo palmondoak pinuen moduan apainduta ikustea"

Cancunen, Riviera Mayan (Mexiko) bizi da Garazi Azkoitia gaztea (Aretxabaleta, 1990). Madrilen Artearen Historia ikasten ari zela, lizentziatura amaierako proiektua Mexikon egiteko aukera eman zion unibertsitateak, eta hara joan zen. Yucatan go penintsulara joatea erabaki zuen, han maien inguruko tesia egiteko.

Egun, bigarren lizentziatura ikasten dabil Industria Psikologian, Interameriketako Unibertsitatean. Duela bi urte iritsi zen Cancunera eta ordutik hona ez da Euskal Herrira itzuli. Aurten, baina, Gabonak etxean pasako ditu.

Beti uda

"Hau paradisua da; jendea atsegina da, eguzkia, hondartzak... hemen beti da uda!", dio aretxabaletarrak. Cancun nolakoa den galdetuta, Aretxabaletarekin, behintzat, ez duela berdintasunik dio Azkoitiak. "Eguraldia oso beroa eta hezea da, beti 33 gradu inguru egiten ditu. Euria egiten du, gogor batzuetan, baina hori urteko sasoi batean bakarrik gertatzen da, urakaren sasoiaren. Paisaia, berriz, ez da menditsua, hemen dena oihana da: sugeak, tarantulak, krokodiloak, tximinoak eta iguanak, esaterako, animalia ohikoak dira hemen. Kultura eta ohiturak ere oso ezberdinak dira, eta baita bizi izateko erritmoa ere. Askoz erritmo lasaiagoan bizi dira hemen. Industria askorik ez dago eta sarrera guztia turismoak dakar. Izan ere, Cancun oso herri gaztea da, 30 urte besterik ez du. Zaila da Cancunen bertan jaioa den norbait topatzea, gehienak kanpotarrak gara", jarraitu du.

Cancun ez ezik, Mexikoko beste toki batzuk ezagutzeko aukera ere izan du Garazi Azkoitiak. Mexiko herri aberatsa dela dio eta merezi duela hango kultura gertutik bizi izatea.

Gabonak direnik igarri ez

Urtea bukatzean egon arren eta Gabonak bertan direla ikusi arren, Cancunen ez da igarri Gabonak direnik. "Hemen ez dira Gabonak askorik sumatzen. Izan ere, uda giroan murgilduta gaude urte

osoan eta benetan arraroa da hemengo palmondoak hango pinuak egoten diren moduan apainduta egotea", dio hark.

Ospakizunei buruz, berriz, elkartzeko ohitura badagoela dio, eta askorendako lan sasoi ere izaten dela: "Familia eta lagunak elkartzen dira batera afaltzeko eta elkarrekin ospatzeko Gabon jaiak, baina ahal dutenak euren jaioterria itzultzen dira eta beste gehienak lanean egoten dira data horretan Karibera oporretan datozen turistendako".

Gabonetako janaria

Gabonak ospatzeko ohiturak ezberdinak baldin badira ere, egun horietan jaten den janariak ere ez du antzik Euskal Herrian jaten ohituta gaudenarekin. "Hemen Gabon gauean jaten den janaria, esaterako, oso desberdina da hor jaten dugunetik. Hemengo afari normal bateko menuan jaki hauek egongo dira: Rompopo izeneko edari gozoa, sagar entsalada, tamal egosiak, Guajolotea (indioilarra guretako), Romerito gisatua eta txerri okela".


Gabon zaharretako afariko ohitura, baina, berdina da han eta hemen. "Bai, egun horretan hemen ere 12 mahatsak hartzen dituzte", zehaztu du.

Posada jaiak

Gabon egunak eurak asko nabarmentzen ez diren, urteko azken hilabetea, abendua, berezia izaten da Mexiko herrialde guztian. Izan ere, Posada izeneko jaiak antolatzen dituzte hilabete guztian zehar.

Garazi Azkoitiak kontatu digun moduan, "Mexikon abendu hasieratik Posada jaiak ospatzen dira. Nork bere etxean antola dezake familiakoa, baina, gainera, lantokian edo unibertsitateko lankide edo ikaskideekin ere ospatzen da jai berezi hori. Janaria, edaria, piñatak eta musika mexikarra ez dira inoiz faltako Posada on batean".

Aurten etxean pasako ditu Gabonak Azkoitiak. Mutil-laguna eta biak etorriko dira eta Aretxabaletan ospatuko dituzte, familiakoekin eta lagunekin. "Deseatzen nago hegazkina hartzeko", dio.



"Gabonak askorik ez igarri arren, Posada jaiak ospatzen dituzte abendu osoan"

ANTTON SAGASTA | ARRASATEARRA SAUDI ARABIAN

"Ikasleen ahotik jakin ahal izan duguna da Bizarzuri ez dutela gogoko"

Ramadan bete-betean, aurtengo uztailean joan da lehen aldiz Saudi Arabiara Antton Sagasta arrasatearra, Mondragon Educacion Internacional enpresak Muhayil herrian kudeatzen duen Lanbide Heziketako eskolan lan egitera.

Hasiera baten, bost urtez egongo da Saudi Arabian, eta apurka-apurka ohitzen doala esan arren, hasierako kontaktua gogorra izan zela kontatzen du: "Hegazkinetik jaitsi eta emakume guztiak begiak besterik erakusten ez duten *abaya*-k jantzita ikustea; erlijioak alkoholarekin, txerriekin edo zinearekin lotuta inposatzen dituen debekuak... Zaila da hori guztia onartzea, baina ez dago beste aukerarik". Baina era berean, gaineratzen du ongietorriak izan direla: "Azken finean, Muhayileko mendebaldar bakarrak gara!"

Gabonik ez
Gabonei dagokienez, "turroiak bezala" etxera itzuliko dela dio Sagastak: "Familiarekin eta lagunekin egoteko beharra dut, ahal den heinean deskantsatu eta desnektatzeko".

Eta ez dirudi Gabonekin lotuta Saudi Arabian askorik galduko duenik, herrialde musulmana izanda ez dira-eta ospatzen. Hala, ez euren herrian, ezta Riad hiriburuan ere ez dago apaingarri berezirik. Dena den, bertakoek Gabonetako ikurrik ezagutzen dute, eta ez onerako: "Ikasleen ahotik jakin ahal izan duguna da Bizarzuri ez dutela gogoko".

Saudiarabiarrek ez, baina, antza denez, bai atzeritarrek: "Compound-ak hirietan dauden atzeritarrentzako eraikitako konplexuak dira. Bertan ez daude indarrean erlijio legeak, eta, beraz, Gabonak edo



SAUDI ARABIA



Antton Sagasta Muhayil herriaren inguruetan. | A.S.

"Azaroan sartu ginen 1435. urtean, baina ez genuen ospakizunik ikusi"

kin zer? Hori ere ez dute ospatzen Saudi Arabian; ez, behintzat, gure egun berean: "Musulmanek egutegi propioa dute, *Hijri* deritzona, eta Urteberri egunak ez dauka gurearekin zerikusirik. Azaroan 1435. urtean sartu ginen, eta ez genuen inongo ospakizunik ikusi". Ramadana eta *Hajj* izenekoa dira Saudi Arabiako ospakizun nagusiak.

beste edozein ospakizun egiteko aukera dago. Ohikoena, baina, Saudi Arabiatik irtetea da".

Urte berria, azaroan
Eta Urtezahar egunarekin



Xabi Altzelai Alemanian familiarekin Gabon giroan. | XABI ALTZELAI

XABI ALTZELAI | OÑATIARRA ALEMANIAN

"Edateko, ardo beroa espeziekin da izarra"

Kolonian bizi da Xabi Altzelai, eta emaztea bertakoa duenez, Gabonak han pasako dituzte; 2014ari Oñatin emango diote ongietorria. Gabon hauek bereziak izango dira; semearendako, lehenak. "2014an Oñatin pasako dugu Gabon gaua, Olentzorro pertsonalki ezagut dezan", dio aitak.

Gabonetako merkatuak

Gabonetako merkatuei esker, abendu hasiera ezker nabari da kaleetan Gabon giroa. Etxeetan *Adventskalender* bat (abenduko egutegia) jartzea da ohitura: "Egutegi bat da, txokolatea eta halako opari txikiak barruan daramatzana. Egunero zenbaki bat irekitzen da, Gabon egunera arte", dio Altzelaik. *Adventskranz* koroa ere jartzen da, abenduan zehar pizten dituzten lau kandelarekin.

Opariak *Christkind*-ak (Kristo haurrak) eroan ohi ditu Gabon gauean, baina zintzoak izan direnentzat abenduaren 6an Nikolaus joaten da eta opari txiki bat uzten du.

Zeintzuk dira Alemanian Gabonetako plater ohikoenak? "Ehizaki gisatuak nahiko tipikoak dira, edo antzara labean, aza gorriarekin eta *knödel*-arekin. Postre bezala, sagar-erreak mazapanarekin eta banillarekin" dio Altzelaik. Eta edateko? "*Glühwein*-a da Gabonetako izarra: ardo beroa espeziekin".



ALEMANIA

AROTZA
EGURREZKO LANAK.
Sukaldeak, zoruak, atariak...
Deitu konpromiso barik.
Iñigo Askasibar Zendoia
Tel.: 615 76 90 98
20560 OÑATI (Gipuzkoa)



Gabon zoriotsuak izan eta Urte berri on!!!



LIZARRALDE
KIROLAK

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETAK

ARRASATE
Foruen Enparantza
(San Andres auzoa)
Tel.: 943 79 91 47

Eta orain,
Legazpin!
Patricio
Etxeberria
kalean.

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86



Gabonetako opariak



Mujika jantzi denda. Gabon jai hauetan eta 2014an eraman ezazu zure estiloa aldean. Mujika jantzi dendak jai zoriontsuak opa dizkizue!
Barrenkale 1 - BERGARA - Tel.: 943 762991



KAPIKUA Opariak eta osagarriak. Opariak, osagarriak, oinetakoak, txanoak, ilerako osagarriak, bitxiak, erlojuak... Neska eta mutilentzat.
Ordutegia
Egunero: 09:30-13:00 / 16:30-20:00
Ostiraletan: 09:30-14:00 eta 15:30-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00
Bañez doktorea, 4 ARRASATE. TEL.: 943 79 19 94.
kapikuarasate.wordpress.com

GABONETAKO ESKAINTZA BEREZIAK.
KILIMA HAUR JANTZI DENDA.
Ilargi plaza 6. ARETXABALETA.



Lentzeria, barruko arropak, moda, bitxiak, poltsak, perfumeak, pijamak, etab.
Animatu eta etorri gu ezagutzera.
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.
TITARE LENTZERIA-MERTZERIA.
Errekabarren 3. ARETXABALETA.



Egin ezazu zure opariaren erreserba abenduaren 9tik 18ra eta etxera eramango dizugu. Jostailuak, Realeko, Bartzelonako eta Athleticeko materiala. Ezkontzetako, bataioetako eta jaunartzeetako opari-materiala. Abenduaren 24an egun osoan zabalik.
DT OPARIAK. Barrenkale 4, behea. BERGARA. TEL.: 943 76 53 29

aiak geurean

Moda frantsesa eta Londreskoa. Gazteak eta emakumeak. Ondo pasau gabon jaiak!

JOKA.
Irala 5, BERGARA. 943 53 46 16

Jo'Ka

Moda frantsesa eta Londreskoa
Gazteak eta emakumeak



Iratxo
Mertzeria

PASSIONATA®



IRATXO. Etor zaitetz, lenterian azkena dena ezagutzera. Iratxo-ren partez, Gabon jai zoriontsuak izan!
Telesforo Aranzadi kalea 2 - BERGARA - Tel.: 943 76 00 79



SIKOL. Oparitu barruko arropa familia guztiari: pijama, batak, barruko kamisetak, aterkiak, bainu-batak....
OLARTE KALEA 7 (kokapen berria) ARRASATE.
Tel.: 943 79 89 32

- 2 eta 16 urte arteko umeentzako.
- Denetarikoz jantziak eta gustu guztientzako.
- Bergara erdialdean gaude. Zatoz!.

SUBIJAI.
Irizar Pasealekua 1. BERGARA. Tel.: 943 764241



Bergarako Jolas-en diseinuzko arropa eta osagarriak aurkituko dituzu, baita kalitatezko jolas didaktikoak, ez bakarrik umeentzat, izan ere, 0 eta 100 urte arteko pertsonentzat ditugu jolasak. Ondo pasa Gabon jai hauetan.

JOLAS - Barrenkale 27 - BERGARA - Tel.: 943 76 46 48



XUXU.
- Neurriak 36-54
- Neska eta mutilendako
- Levis eta beste zenbat marka.
Gabonetan eskaintza bereziak!
Xuxu. San Pedro kalea 14, behea. Bergara. Tel.: 943 76 07 55

Ur tragoaren ordeztan xanpaina, ogitartekoa barik turroi pusketa

- ▶ Ohikoa dugu urtea mendian amaitzea edo hastea
- ▶ Aizkorrin izaten da jende gehien, leku askotakoa

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Aizkorri; Udalatz; Kurtzebarri; Hirukurutzeta; Arrola; Muru; Orkatategi;... Gabonetan edozein mendi da egokia... ospakizuneko eta neurri batean eta zenbait kasutan, zergatik ez, parrandarako. Xanpaina eta mendia; turroia eta mendia; otarrainxkak eta mendia; urteko beste edozein sasotian ezkontzen hain errazak ez direnak ohiko ditugu Eguberrietako egun seinatuak.

Aizkorrikoa da, zalantzarik gabe, jende gehien hartzen duen tontorra. Urtezahar egunean bada Urteberri egunez joaten denik ere hamaika lekutatik etorritako mendizalez betetzen da: oñatiarrak izaten dira, noski; bailarako beste herrietakoak ere asko; baina Gipuzkoako makina bat txokotako eta baita beste herrialdeetako jendea ere batzen da Aizkorrin, Arantzazutik, Zalduondotik edo Zegama aldetik igota: "Azpeitia-Azkoitia ingurukoak asko etortzen dira", dios-

ku Oñatiko bere lagun taldearekin joan ohi den Jesus Laskurainek; "2.000 lagun ere joan izango dira urte batzuetan Aizkorrira", Arrasateko Alvaro Arregik. Bailaran, herri guztiek ez bada gehienek dute bertako mendi edo muinoren bat Gabonetako ospakizun-igoerarako, baina lekuan lekuko mendizaleek eurenarekiko osagarri egiten dute Aizkorrikoa.

Oñatitik, Aizkorrira

1990 urte aldera edo hasi omen zen Jesus Laskurain Urtezahar egunez lagunekin Aizkorrira joaten: "Hiru hasi ginen eta gero jendea gehitzen joan zen, eta orain kuadrillatxoak elkartzen gara, zortzi bat".

"Aizkorrin ohitura dugu xanpain botila bat irekitzeko. Han denbora luzean ez da egoterik izaten, hotz handia egiten duelako, eta Oltzara jaisten gara. Eta Oltzako txaboletan mokadua, ardoa, xanpaina, pastak, turroia...

Koadrilan egoten gara, baina beste jende bat ere egoten da han inguruan, eta elkar gonbidatzen dugu. Urteetan juntatzen gara berdinak, bergarar batzuk ere bai eta...", dio Laskurainek.

Aurrena Aizkorrira eta gero Oltzara, beraz; izan da urterik, ordea, gora igo gabe geratu behar izan dutenik: "Behin hasi ginen Arbelarretik gora igotzen baina buelta hartu behar izan genuen; oso txarra zegoen, eta min hartu aurretik... Eguraldi txarrarekin ere joan egiten gara normalean, baina urte hartan izotz handia zegoen; goitik behera zetorren bati galdetu genion eta esan zigun kranpoirik eduki ezean bera ez litzatekeela igoko".

50 urte Udalatzera igotzen

Aizkorrira Urtezaharrean bezala, Udalatzera Urteberri egunez da igotzeko ohitura, "ofizialki" 1964tik, Alvaro Arregiren arabera: "Banakaren bat lehenago hasiko zen agian. Baina Besai-



Arretxabaletako Zariaikoak Olentzerorekin, Santikrutzen, Orkatategitik bueltan. | MARTIN GARAI




Juanjo Saenz eta lagunak, 2006an, Udalatzan. | ALVARO ARREGI

de hasi zen antolatzen Venus Uranga presidente zela".

Orduan oinez joaten ziren Arrasatetik, "ez zegoelako Udalarako errepiderik". Eta goian ez omen zuten egiten gauza berezirik, hasieran: "Hasieran Udalatzan egiten zen hamarretakoa, bueltan", argitzen du Arregi

bezala Udalatzan hutsik egiten ez duen Juanjo Saenzek "biak Besaideko presidente izanak, gainera, besteak beste". Orain, ordea, denetik izaten da; 1971n koba egokitu zuten eta aukera eman zuten denbora gehiagoan goian geratzeko: "Xanpaina, patata tortilla..."



Kanpanzar kobate

— harrobiak —

Ondo ibili Santamasetan!

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

KANPANZAR HARROBIA S.A.

Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.

Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51



Grupo Amantegi



Alvaro Arregi eta bere arrebak, Udaltxen, 1969an. | ALVARO ARREGI

Aretxabaletan, 22an eta 25ean

Urtezahar eta Urteberri egunak dira ohikoenak Gabonetako irteeretarako; Aretxabaletan, ordea, Zariaia Mendi Elkartekoak Eguberri aurreko domekan –aurten, abenduaren 22an– eta Murruxokoak Eguberri egunez joaten dira mendira, Orkatzategira eta Kurtzebarrira, hurrenez hurren. Zariaiakoek Turroi Eguna deitzen dute egun hori –Murura ere egiten dute irteera, urteko lehen egunean–. Murruxokoak parrandarekin uztartu ahal izateko hasi ziren irteera hilaren 25ean egiten.



Jesus Laskurainen kuadrilla, Aizkorrin. | JESUS LASKURAIN



Laskurain eta lagunak, Oltzan, ospakizun giroan. | JESUS LASKURAIN

Eta behera edanak eragindako *poztasunez* agian: "Igo gehiago; egon dira urteak jendeak txarolezko zapatekin igo izan duena. Zuzenean, aldatu gabe", dio Arregik.

Herriko jendea izaten da Udaltxen batu ohi dena, "ingurukoak gutxi": "150 pertsonatik ez zen

pasako sekula; azken urteetan 50-60 izaten gara", azaltzen du.

Arregi eta Saenz 1969tik urte batean ere hutsik egin gabe joan dira Udaltxera Urteberri egunez –Saenz oraindik ere Arrasatetik oinez–, eta barrez dio lehenengoak: "Han elkartzen garen bitartean esan nahi du oraindik bizi garela".

Eta zergatik joaten diren galdetuta: "Diziplinagatik. Egun horretan hara igo nahi izanez gero ezin zaitezke asko despistatu, eta urtean zehar ibili egiten gara horrela".

Hainbeste urtean askotariko giroak ezagutu izan dituzte Urteberri egunez, baina igotzea eragozteko adinako txarrik ez: "Hotzak

bai, baina elur askoko urteak... Elur gehien 1972an, eta hogeitimetra, gehiago ez", gogoratzen du Alvaro Arregik.

Orkatzategi eta Kurtzebarri


Azken hamar urteetan Udaltxera joan bezperan Aizkorrira ere kuadrilla majoa joan izan direla azal-

du digu bikote arrasatearrak, eta beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, Aretxabaletako jendearekin. Aizkorrira bai, baina gertuagoko mendietara ere bai. Hala, 24 urte daramatzate Zariaia Mendi Elkartekoak Orkatzategira –aurten abenduaren 22an– eta Murura joaten: "Jan, barre, Gabon kantak abestu... egiten dugu", dio Martin Garai presidenteari; hogeitimetra lagun joaten omen dira, baina 99 ere izan ei ziren urteren baten. Aurtengo hitzordua ere, 08:00etan Iralabarri plazan. Eta Murura, urte berriarekin; salda eta txorizoa izaten da gero, Galartzan.

Murruxiko elkartearen bueltan ibiltzen diren hainbat lagun, ostera, Kurtzebarrira igotzen dira, Eguberri egunez –hitzordurik gabe–: "Gaztetan ajea izaten genuen leian, eta ez ginen mendira joaten; horregatik hasi ginen 25ean joaten", dio Murruxiko Iñaki San Migelek.

LOU
PARIS

● Punto Blanco



Gemma

Urtaza

Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia
Gabon zoriontsuak!

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89



Musakola 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxes: 943 79 14 19
e-maila: leintzgarraioak@leintz.com
webgunea: leintz.com

Izan zoriontsu 2014 urtean!!!



Olentzerori gehien eskatutakoa: lana, bakea eta osasuna

Fagor Etxestrenen itxierak kezka eragin du, eta debagoiendar askok arazoa konpontzea eskatu dute



**JOSE RAMON MONDRAGON
ARRASATE**

Fagorrekoa konpontzea

"Batez ere, Fagorreko gaia konpontzea eta enpresa itxiera horren ondorioz kaltetutako familia guztien egoera hobetzea eskatuko nioke Olentzerori; jende asko geratu da kale gorrian. Arazo horri irtenbidea ematea garrantzitsua izango litza-teke bailararendako".



**SAIOA SAN VICENTE
OÑATI**

Elkarrekin gozatzea

"Nire ustez, garrantzitsuena da osasuntsu egotea, eta, hortaz, datoren urteari begira, bereziki osasuna izatea eskatuko diot Olentzerori. Baina baita denok elkarrekin gozatzea eta gustura egotea. Bestalde, uste dut gaur egun Gabonei etiketa bat jarri zaiela".

**BENEDICTO ELKOROBARRUTIA
LEINTZ GATZAGA**

Gaztetan pastelak

"Gogoratzen naiz gaztetan pastelak oparitzen zizkidatela Gabonetan; gaur egun, baina, ez didate ezer oparitzen. Osasunez oraindik ondo gaude, eta horrekin nahikoa da. Datorren urtean hemen jarraitzeko asmoa daukat; horixe da, hain justu ere, eskatzen dudana".



**DANIEL AXPE
ARAMAIO**

Ingurukoak ondo ibiltzea

"Dena ondo joan dadin hurrengo urtean zehar. Krisiak gogor jo gaitu, urte gogorra izan da amaitzear dagoena. Hortaz, Fagorreko eta bailarako gauza edo arazo guztiak konpontzea nahi dut. Horrez gain, inguruko guztiak ondo ibil daitezela, bai osasunez eta baita ekonomikoki ere".



**AITOR CORRAL
ARRASATE**

Lana aurkitzea

"Langabezian nago orain, eta datoren urteari begira, nik, behintzat, lana aurkitzea eskatuko nioke Olentzerori; horren harira, ez dut beste eskakizunik egiten. Bestela ere, ez diet garrantzi handirik ematen Gabonei; izan ere, nahiko egun normalak dira niretako".



**ISABEL BLAZQUEZ
OÑATI**

Ezer berezirik ez

"Ez diot ezer berezirik eskatzen Olentzerori. Gabonak ez zaizkit bate-re gustatzen eta hori dela-eta ez dut ezer eskatzeko ohiturarik. Nik nahiko nukeena da egun hauek ahalik eta azkarren pasatzea, eta, ostera ere, normaltasunera bueltatzea. Besterik ez".



MUNDU OSOA ZURE AUTOAN

CITROENek nahiago du TOTAL
Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurtzea (g/km):
CITROËN GRAND C4 PICASSO: 4,0-6,1/104-142

www.citroen.es



Stop&Start
eHDi
motorrak



Abiaduraren
erreguladore
aktiboa



Ukipenezko
tableta
integratua



SmartBeam
argi
adimendunak



360°-ko
ikuspen kamara



Aparkatzeko
laguntza-sistema

CITROËN GRAND C4 PICASSO BERRIA. TECHNOSPACE-A

Espainian fabrikatua



Citroën Grand C4 Picasso berriak C4 Picasso autoaren aukerak zabaltzen ditu: espazioa infinitu bihurtzen duten 7 eserleku eta etorkizunera hurbiltzen gaituen bidaia. Azken teknologiez osatua: haizetako panoramikoak, Stop&Start eHDi motorrak, aparkatzeko laguntza-sistema, ukipen-tableta integratua, nahi gabeko bide aldaketarako alerta sistema eta abiaduraren erreguladore aktiboa, beste ekipamendu batzuen artean. Grand C4 Picasso berria mundu oso bat bertan gordetzeko auto perfektua da. Unibertsoan bidaia zorianatsua izan.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



Etor zaitetz ikustera:
Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala:
TALLERES CHAPIME, San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Ondo ibili Santamasetan!



OLENTZERO:

"Kontuan hartuko ditut eskakizun guztiak:

Fagorren albiste tamalgarriaren berri izan dut eta saiatuko naiz arazoa konpontzen.

Loteria ez dago nire esku, baina, Benedicto, pastelak eramango ditut Gatzagara"



SEBASTIAN IMAZ BERGARA

Lana Debagoienerako

"Nire ustez, azkenaldiko albisteak kontuan izanda, batez ere Fagor Etxetresnen itxieraren gaiarekin lotuta, Gabon gogorrak izan behar dute aurtengoek. Honegatik guzti-gatik, batik bat, bailarako jendearendako lanpostuak eta dirua eskatzen dizkiot Olentzerori".

ARANTXA IREGI
ESKORIATZA

Loterian itxaropen gutxi

"Osasuna, bakea eta lana eskatzen dizkiot Olentzerori. Batez ere, Debagoieneko egoera ekonomikoa zelan dagoen ikusita. Oraingoan, loterian ez dut jokatu ere egin eta itxaropen gutxi ditut apurren bat tokatzeko. Ea, ba, Olentzero ondo portatzen den aurten".



DAVID PEÑALBER
ELGETA

Urte hobea

"Gabonei bakarrik ez, urte osoari eskatzen diot osasuna eta lana izatea. Beste gauza berezirik ez diot eskatzen Olentzerori. Batez ere, ingurukoak ondo egon daitezela. Loteria tokatzea ere ez litzateke gaizki etorriko, beti jokatu ohi dugu, baina oso esperantza txikiarekin".



IDOIA ALBIZU
BERGARA

Horrela jarraitzea

"Betikoa eskatzen dudala iruditu daiteke, baina lana eta osasuna eskatzen ditut aurten, orokorrean denontzako. Pertsonalki ondo doakit guztia; beraz, orain gauden moduan jarraitzea eta ingurukoak ere berdin jarraitzea gustatuko litzaidake: gauzak ez okertzea, behintzat".



PURI BELTRAN DE HEREDIA
ARETXABALETA

Senideendako osasuna

"Orokorrean, bakea eskatuko nioke Olentzerori. Azken finean, denok dakigu bakearen beharra dagoela munduko leku askotan. Bestalde, senitartekoek ere datorren urtea giro osasuntsuan igaro dezatela espero dut; orain arte egon garen moduan jarraitzea, gutxienez".



ERIK LIZARRALDE
ANTZUOLA

Komunikazio naturala

"Egia esan, ez dut beste munduko ezer eskatzen. Gaurko gizartearen arteko komunikazioa ahal den neurrian hobetzea gustatuko litzaidake; hau da, pertsonen artean naturaltasuna nagusi izatea eta, beraz, guztion arteko komunikazioa naturaltasunez burutzea".

Hezi
eta
hazi

HEZI ETA HAZI JOLAS-AKADEMIA

Biteri etorbidea 13

ARRASATE

671 33 66 14

hezietahazi@gmail.com

ZERBITZUAK

- **KLASE PARTIKULARRAK** Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.
- **TAILERRAK** (euskaraz eta ingelesez) Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.
- **EUSKARA SAIOAK** adin guztiak-egunerokotasunean erabiltzeko.
- **URTEBETETZEEN ANTOLAKETA.**
- **GABONETARAKO PROGRAMAZIO BEREZIA ETA PERTSONALIZATUA.**

GABONETAKO POSTALEN LEHIAKETA

LEHEN HEZKUNTZAKO UMEEI ZUZENDUTA.

Zozketa abenduaren 20an egingo da.



SANTAMASAK 2013

Betikoa, nobedadeekin

Ohiko ekintzak mantendu diren arren, berritasunik ez da falta aurten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Argi eta garbi dio aurtengo egitarauari paso emateko Santamas Komisiñuek egiten duen gonbidapenak, herriko hainbat kultura talderen eta Udalaren onespenaz: "Abenduan 22xan, beraz, kaliek zapi eta abarka kolorez, sagardo eta txistorra zapoz eta umore onez betetzeko gonbidapena luzatzen dutzuegu". Nobedade nagusia da, zalantza barik, txerri bakarria beharrez bi izango ditugula: *Joxe Mari* eta *Mariano*, "euskal arrazako" txerriak biak eta Joseba Garitaonandia arrasatearrak hezi dituenak.

Urteko azokarik handiena

Txerriak izango dira jaietako ikurrak, baina *Joxe Mari* eta *Mariano*-ekin batera azokak erakarriko du jende gehien. Ganadu feria Laubide plazan, hegazti erakusketa Biterin, fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa Seber Altuben, artisauen feria Jokin Zaitegi plazan, herriko kirolak Zaldibar pilotalekuan... Urteko azokarik handienez aurreten ere egongo da zer ikusi, erosi eta dastatu.

SANTAMAS JAIETAKO EGITARUA

ABENDUAK 21

10:00 Corazon de Encina Extremadurako kultura zentroan XXV. SANTAMASETAKO XAKE TXAPELKETA, taldekako partida azkarrak.

11:00 Musakolako kiroldegian, SANTAMASETAKO IV. AKE TENIS TXAPELKETA finalak.

11:00 ETXAFUEGOAK.

12:00 Herrian zehar EGAPE Urnietako dantza taldearen saioa.

13:00 Herriko Plazan EGAPE Urnietako dantza taldearen saioa.

18:00 Herriko Plazan EGAPE Urnietako dantza taldearen saioa.

19:00 Herriko Plazan ARRASATEKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA.

19:00 Herriko Plazan JOXE MARI ETA MARIANO txerrien aurkezpena.

20:00 / 23:00 Herriko Plazan DRINDOTS taldearekin dantzaldia.

21:30 Herriko Plazan zezensuzkoa.

ABENDUAK 22

09:00 ETXAFUEGOAK.

09:30 Herriko kaleetan UDALAXPE txistulari taldearekin DIANA.

10:00 Laubide plazan, GANADU FERIA.

10:00 Biteri etorbidean, HEGAZTI ERAKUSKETA.

10:00 Seber Altube plazan, FRUTA eta BARAZKI ERAKUSKETA eta LEHIAKETA.

10:30 Jokin Zaitegi plazan eta Ganadu Feriaren inguruan ARTISAU langintzen jardura FERIA. Euskal sukaldearen gaineko monografikoa.

11:00 Herriko Plazan, Aramaioko sagardogileen SAGARDO dastatzea eta TALOAK.

11:00 Herriko kaleetan, BENTA ZAHARREKO MUTIKO ALAIK, euskal kantu kalejira.

11:30 KALEJIRA: ARROSTAITZ eta LORE GAZTEAK dantza taldeak, Arrasateko TRIKITILARIAK, UDALAXPE txistulari taldea eta Arrasateko GAITEROAK.

11:30 ITURENGO JOALDUNAK herriko kaleetan.

11:30 INCANSABLES txaranga herriko kaleetan.

11:30 Herriko Plazan, LORE GAZTEAK dantza taldearen emanaldia.

12:00 Zaldibarren, HERRI KIROLAK.

12:00 Herriko Plazan, ARRASATEKO TRIKITILARIEN saioa.

13:00 Herriko Plazan, ARROSTAITZ dantza taldearen emanaldia.


13:30 Herriko Plazan, ARRASATEKO ALBOKARIEN emanaldia.

13:45 Herriko Plazan, TXERRI DANTZA herrikoa.

14:15 Portaloitik irtenda KALEJIRA HERRIKOIA Musakolako kiroldegiraino.

14:30 Musakolako kiroldegian, HERRI BAZKARIA. Txartelak salgai 18 eurotan: Monte, Kajoi, Bengoa eta Amaiur tabernetan. Umeentzako tailerrak, Txatxilipurdiren eskutik.

18:00 Uarkape Udal Pilotalekuan ESKU PILOTA JAIALDIA:



Ganadu feria, iaz. | GOIENA

1. partidua: Moron/Garate (Arrasateko pilota eskolako gazteak).
2.a: Goñi II.a-Bolinaga / Zuazua-Lasa III.a.

18:30 Erdiko kalean GIZA PROBAK. Emarri (Ergobia) eta Urretxuko giza proba taldearen arteko norgehiagoka. Zortzi neska 550 kiloko harriarekin eta sei mutil 650 kiloko harriarekin.

19:30 Herriko Plazan, TXERRI DANTZA eta LARRAIN DANTZA.

20:00 Herriko Plazan, TXERRI ZOZKETA.

20:00 Herriko Plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

20:30 Amaia antzokian, BERTSO SAIOA. Bertsolariak: Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi, Maddi Sarasua eta Sebastian Lizaso. Gai jartzaila: Maite Berriozabal. AEDK antolatuta.

www.harremandenda.org

Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritzako produktuak?

Produktu bakoitzaren atzean istorio bat dagoelako!

Pobretutako herrialdeen ekoizleen egoeraren ardura daukagu. Eman dezagun benetako pauso bat egoera hau mantentzen duen mekanismoaren aurka, merkataritza konbentzionalaren irizpideak alde batera utzi.

Modu honetan, egiten duten lanagatik soldata duin bat edukiko dute, beraien **duintasuna eta garapena ahalbidetzeko!**



Aukeratu... BIDEZKO MERKATARITZA
Praktikatu... KONTSUMO ARDURATSUA

Atzean istorio berezia duten opariak egiteko aukera !!



Arrasateko Hiper Eroskiko sarreran aurkituko gaituzu!


Kafea, kakaoa, bonboiak, zerealak, kosmetikoak, artisautza...



JAIXAK
disfrutatzen duen opariak

Jokoak • Joko didaktikoak
Umeentzako opariak • Baserritar jantziak

Barrenkalea 10, behea
BERGARA
Tel.: 943763145





SANTAMASETAN BE *gaitoraz!*



Txerri bakarra beharrian bi izango dira aurtengo jaian

Ehuna kilo dituzte zozketatuko dituzten 'Joxe Mari'-k eta 'Mariano'-k

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Pisu handiko kontua da txerria Santamasetan. Aurten aurrekoetan baino arinagoak izango dira, baina horrek ez die euren garrantzia galaraziko. Gainera, aurten txerri bat beharrian bi izango dira Santamasetako azokan, eta, azken hilabeteetan moduan, elkarri konpainia egingo diote *Joxe Mari*-k eta *Mariano*-k.

Eta aurten azokako txerriek inoiz baino gehiago ekarriko digute gogora Santamasetan muina; gure jatorria zein den aintzat izatea, alegia. Zergatik? Euskal txerriak direlako.

Joxe Mari eta *Mariano* ez dira azken urteetan ikustera ohitu garen arrosa koloreko txerri pisutsuak. Bakoitzak ehuna kilo inguru ditu eta gorputz osoa arrosa kolorekoa badute ere, ez da euren gan deigarri egiten den kolorea, beltza dute-eta burua.

Bi txerriek aurreko urtekoek baino kilometro gutxiago egin beharko dituzte arrasatearren



Joxe Mari eta Mariano, Santamasetako bi txerriak. | IURE EIZAGIRRE

aurrera agertzeko, herrian bertan hazi baititu azken hilabeteetan Joseba Garitaonandia. Apirilaz geroztik ari da Garitaonandia lan horietan.

Hilabeteotan gazurarekin elikatatu ditu Garitaonandia *Joxe Mari* eta *Mariano*, eta emaitza nabaria da: maiatzaz geroztik 60 kilo inguru gizendu dira. Santamas Komisiñoko kideek azaldu dutenez, bi txerri izateak ez du esan nahi bi zozketa egingo direnik, pertsona bakarrak eramango ditu-eta bi txerriak. Euskal txerriaren ezaugarriak ezberdinak direlako izango dira aurten bi txerri.

Bertakoak

Duela hamarkada batzuk arte euskal txerri arrazako oso ale gutxi geratzen ziren, besteak beste, abeltzaintzarako beste eredu batzuk lehenetsi zirelako. Azken urteetan, ordea, gero eta gehiago dira berriro horiek hazteari ekin diotenak eta maizago ikusten dira azoketan.

DATUA

100

KILO

Joxe Mari-k 100 kilo ditu eta *Mariano*-k beste horrenbeste. Apirila ezker ari da horiek hazten Joseba Garitaonandia.

zenbaki 

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

EGUBERRI ON!

LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Jose Mari Salegi | Harakina

"Santamas egunaren bueltan saltzen dugu txistorra gehiena"

- ▶ Odoloste, txorizo eta txistorragatik sariak lortu ditu Jose Mari Salegik
- ▶ Taberna bakoitzak 7 eta 15 kilo arteko txistorra enkargua egiten dio

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Duela 34 urte ekin zien Jose Mari Salegik harakin lanei. Obenerrekan lehenengo eta Arbolapetan orain, bere eskua eta artisau produktua etxeko seinale izan dira beti. Euskadiko VIII. txistorra lehiaketan 3. postua lortu eta gero, herriko txistorrazaleek urtero bisitatzen duten toki horietako bat bilakatu da bere harategi ezaguna.

Santamasak gainean ditugu; hasi da jende txistorra erosten?

Ba, bai, jendea hasi da txistorra erosten. Urteroko kontua da, egun hauetan jendeari txistorra gosea sartzen zaio.

Txistorra urtaroko produktu bat da?

Egia da Santamas egunaren bueltan txistorra gehiago saltzen dela, baina guk urte osoan eskaintzen dugu, eta, gutxiago bada ere, saldu egiten dugu.

Zein desberdintasun dago txistorren eta txorizoaren artean?

Itxura ez ezik, desberdintasuna barruan dago. Txorizoan, saihezia eta txuleta izan ezik, txerria-



J. M. Salegi harakina. | IMANOL GALLEGU

ren gainontzeko haragi guztia sartzen dugu. Txistorra, aldiz, txerri haragiarekin egiten den arren, hirugiharra erabiltzen dugu; niri, txerri lepapearen zatitxo bat sartzea ere gustatzen zait. Horrela, txistorra mamitsuagoa egitea lortzen dut.

Hortaz, harakin bakoitzak bere sekretu edo trukua dauka?

Egia esateko, hemen sekretu handirik ez dago, harakin guztiok dakigu zer egin behar den produktu ona lortzeko.

Etxeko txistorrak beste ukitu bat dauka, ezta?

Ziur nago supermerkatu eta denda handietan saltzen dena ez dela txistorra txarra, baina kasu askotan industrialala da. Harategietakoa etxean egindako produktu bat denez, jateko orduan igarri egiten dela uste dut.

Norbanakoak aipatu ditugu; eta tabernak etortzen dira txistorra eske?

Bai, noski, Santamas eguna festa egun handia da eta tabernekin enkargatu egiten dute.

Zenbat kilo erosten ditu taberna bakoitzak?

Guk enkargu dezente izaten ditugu eta zaila da zenbaki bat ematea. Zazpi eta hamabost kilo artean ibiltzen dira gehienak. Aurten, gainera, Santamas eguna igandea denez, tabernekin gehiago erosiko dute.

Zuri nola gustatzen zaizu txistorra?

Bezeroren batek edo bestek esan izan dit egosita jaten duela; nik, aldiz, txistorra frijituta nahiago izaten dut.



Ezker-eskuma, goi-behe: Gaztelumendi, Laburu, Lizaso eta Sarasua | GOIENA

Eskola berria eta zaharra bertso jaialdian

I.G. | ARRASATE

Urteroko ohiturari eutsiz, AED elkarteak bertso jaialdia antolatu du Santamas azoka egunerako, abenduaren 22rako. Aurten, bertsolari historikoak eta azken belaunaldikoak igoko dira oholtzara: Agin Laburu, Sebastian Lizaso, Maddi Sarasua eta Beñat Gaztelumendi.

20:30ean, gazte zein helduek Durangoko euskara elkarteko zuzendari Maite Berriozabalek proposatzen dizkien gaiei hitza eta errima jarri beharko dizkiote. Beti bezala, ez da umore eta ironiarik faltako. Bada,

koplari moderno horien jarraitzaileek emanaldi paregabea izango dute, ziur.

Sarrerak erosteko

Jaialdira joan nahi dutenek txartelak AED elkartean eta Irati eta Monte tabernetan eskura ditzakete 10 euroren truke; AEDko bazkideek, aldiz, 8 eurotan izango dituzte. Azken unean ibiltzen diren horientzat, Amaia antzokiko txartel-leihatila emanaldia hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute, eta bertan, azken sarrerak eskuratu ahal izango dituzte.



aroztegia
arrascal



Gabon
zoriontsuak
pasa!



ESKAINZA
BEREZIAK
FINANTZAKETA
ZURE NEURRIRA

ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

2014

Ongizatea eta edertasuna



Maitatu zure burua

Aurpegi hidratazioa + masaje erlaxagarria
80€



Nakar tratamendu esfoliagarria
Perla eta nakar hidrolizatuen hauts
bidezko gorputz-esfoliazioa
70 €



Aurpegiko hidratazioa
Hidratazio onena lortu, orekatu
eta mantentzeko
54 €



Jong Bao masajea: 5 sentimenez gozatzuz
Masaje erlaxagarria olio esentzialekin
50 €

Eskaintza zabala poltsa eta osagarrietan.
Sartu gure webgunean

www.lirainestetika.com

Gabon jai zoriontsuak



LIRAIN

ESTETIKA ZENTRUA



Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

'Hiru lumak' ipuin kontaketa eta zirku tailerrekoen emanaldia bihar Arkupen

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Bihar goizean Rosa Martinez ipuin kontalariak 4 urtetik aurreko neska-mutilentzako emanaldia egingo du. Liburuetan izango da, 11:30ean hasita, eta txotxongilo bidez abenturazko istorioa kontatuko du Martinezek. Protagonistak baso ilun bat zeharkatu beharko du, bere lagun txoriek emandako hiru lumaz baliaturik.

Zirku tailerrekoen emanaldia

Bestetik, zirku tailerrean ari diren gazteek ikuskizuna eskainiko dute Zaraqia aretoan bihar, 13:00etan hasita. Orain dela urtebete hasi ziren neska-mutilak zirku zenbait teknika ikasten Xabier Larrea malabaristaren eskutik. Bada, oreka eta eskujoko teknikak landu ostean, jendaurrera irtengo dira bihar, zapatua.



Astelehenean aurkeztu zuten ekimena. | JAGOBA DOMINGO

Gabonetako erosketak herrian egiteko kanpaina

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aretxarte merkatarien elkarteak, Udalarekin elkarlanean, 166 *ilusio 166 opari, herrixte dantzan* egitasmoa aurkeztu du asteon. Gabonetako erosketak herrian bertan egitera animatzeko, 15 euroko bonuak banatuko dituzte abenduaren 16tik 21era.

Aditzera eman dutenez, pertsona bakoitzeko bonu bakarra banatuko dute: astelehenean, UDA futbol taldeak banatuko ditu (18:00); martitzenean Udalak (11:00); eguaztenean Loramendik (17:30); eguenean Kuku Mikuk (17:30); egubakoitzean Gazte Eki-menak (19:30); eta zapatuan Basotxok (11:00).

Herriko komertzioekin bat

Hainbat helburu ditu *166 ilusio 166 opari, herrixte dantzan* ekimenak; herriko komertzioekin bat egitea eta herrigintza sendotzea dira nagusiak. "Denda, taberna eta establezimendu txikiekin herriak irabazi egiten du, jardueira komertzialari eusten baitio". Etorkizunean herri bizi batez gozatu ahal izateko ezinbestekoa dela diote.

Bestalde, oraindik Aretxarten ez dauden komertzioei elkartera gerturatzeko gonbita egiten dietela gaineratu dute: "Interesa daukanak badaki non gauden; etor dadila elkartera!". Horixe gaineratu du Idoia Elexpuruk.

Omenaldia aurten 90 urte bete dituzten Basotxoko bazkideei

Gaur, egubakoitza, Santa Luzia eguna da, eta aurten 90 urte bete dituzten Basotxoko bazkideak -lau gizon eta hiru emakume- omenduko dituzte. Hala, 17:00etan hasita, dantzariak, trikitilariak eta kantu taldea arituko dira erretiratuaren elkartean, eta, gainera, txokolatea bizkotxoarekin hartzeko aukera egongo da.

Bestalde, Santo Tomas egunean, hilaren 21ean, doke txapelketa egingo dute goizean eta Gabonetako 40 otzara zozkatuko dituzte arratsaldean, Basotxon bertan.

Presoen aldeko bigarren eskuko azoka egingo dute bihar

Herriko presoen aldeko azoka egingo dute bihar, zapatua, Aretxabaletan. Hori horrela, bigarren eskuko gauzak izango dituzte eskura udaletxe zaharrera joaten direnek. Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 14:30era bitartean egongo da azoka irekita.

Bihar salgai ipiniko duten materiala azaroan zehar jaso dute, eta, hala, herritarrek emandako askotariko gauzak aurkitu ahal izango dira azokan: arropak, poltsak, jostailuak, eta abar.



Z.V.D.M.

Argazkizkietako sarituak

Bigarren Argazkizkiak lehiaketak baditu sarituak: Juan Mari Agirreurreta, Amaia Agiriano eta Nerea Egurtza izan dira irabazleak. Horrez gain, Loramendiko kideek sari berezia eman diote Sara Ayadi gazteari. "Duela gutxi iritsi zen Euskal Herrira, eta egin duen ahalegina saritu gura izan dugu modu horretan".

Durana Kalea, 20
Aretxabaleta
☎ 943 53 27 39

Lorionak eta Urte Berri On!

Plaza, 1
Aretxabaleta
☎ 943 53 49 45

Belar Meta

Begira
argazkilaritza

Hondakinen proban %91,9 jaso da selektiboki

Jarraipen Batzordeak lehen hilabeteko datuak ezagutarazi ditu asteon

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Dagoeneko hilabete pasatu da Intxaurtxuetan, San Pedron eta Gaztañaduin hondakinen bilketa sistema berriaren proba pilotua martxan jarri zenetik, eta horren bueltan osatutako Jarraipen Batzordeak lehen balorazioa egin du. Nabarmendu du helburua betetzen ari dela: biltzen den guztiaren %70 baino gehiago selektiboki jasotzen da. Hain justu, jakinarazi du, fardelak aparte, %91,94 jaso dela.

Joan den abenduaren 3an, Hondakinen Mahaiko kideek eta hiruna herritarrek eta komertzio-tak arduradunek egin zuten lehen balorazio hori.

Udal Gobernuak kaleratutako prentsa oharrean batutako zaborrari buruzko datu zehatzak ere eman dira: 1.260 kilo paper, 880 kilo ontzi arin, 600 kilo errefus eta 4.700 kilo organiko batu dira. Azken horren harira, oharra azpimarratzen du "nahikoa kilo" jaso direla; 6,91 kilo zergadun baliokideko. Inguruko udalerriekin datuak alderatuz gero, Oñatin eta Antzuolan 10,54 eta 10,02 kilogramo, hurrenez hurren; eta Aretxabaletan 3,41 kilo batu dira.

Edukiontzi marroiaren erabilera

Horren bueltan, honakoa dio oharra: "Bosgarren edukiontzi batean jasotakoa baino organiko gehiago jasotzen da, baina atez ateko ezarpena duen herri batean baino gutxiago. Datu positiboa bada



Herritar bat ontziak bueltatzen, protesta gisa. | IMANOL GALLEGO

ere, hobetzen jarraitu beharra dago". Gogorarazi du helburua organikoaren sailkatzea derrigorrezkoa izatea dela, eta lehen hilabetean agerian geratu dela herritar guztiak ez dabilzala edukiontzi marroia erabiltzen.

Organikoaren kalitateari dagokionez, lehen astetan "desegoki" asko jaso zela, informazioa helarazi zela, eta organikoaren kalitatea "asko hobetu" dela jakina-

razi da, eta erronka tendentzia mantentzea izango dela dio oharra. Gaineratu da, dena dela, oraindik asko hobetu beharra dagoela eta ohartarazi da kalitatea ez bada hobetzen, sistema ez dela balioztatuko eta "banan banako" batera joko dela.

Bestalde, paper eta ontzi arinen kopuruak ere hobetu beharrean daudela dio oharra. Errefusari dagokionez, jasotako datua -zer-

gadun bakoitzeko ez da kilogramo batera iristen- ona dela aipatu da. Gauzak horrela, jakinarazi da gaizki ateratako hondakinak ez direla jasoko, eta hondakinen sailkapena hobetzeko kanpaina jarriko dela martxan. Horrekin batera, iragarri da asmoa dela sistema berria datorren urteko otsaila edo martxoan herri osoan jartzea abian.

Datu horien guztien berri emateko eta herritarren iritzia jasotzeko Udal Gobernuak kideak batzorra egitekoak ziren martitzen iluntzean; baina, herritar talde bat sartu zen ozen protestaka, eta batzorra bertan behera geratu zen. Protesta ere egin zuten Ibarraundi pareko zintzilikarioetan zabor poltsak utzita eta hondakinak gaika jasotzeko banatutako hainbat ontzi bueltatuta.

Eskoriatza Garbia

Bestalde, Eskoriatza Garbia plataforma ere balorazioa egin du, astelehenean herritarrekin batera egindako batzarrean. Lehenik eta behin, orain arte egindako protestetan izandako jarrera txalotu zuen; besteak beste, eguenean txistualdiak egin dituzte plazaraino, eta zabor poltsak herriko beste auzo batzuetan dauden edukiontziak bota dituzte.

Horrez gain, hemendik aurrera egingo diren ekintzak zehaztu zituzten herritarrekin batera. Martitzenean egindako protestaz gain, bestelako ekintzak egitea ere adostu zuten. Herri mailan, hilaren 18an, esaterako, Ibarraundi pareko zintzilikarioak zabor poltsekin estaltzen saiatuko dira. Eta auzo mailan, zakarrontziak zaborrekin betetzeko dei egitearekin batera, zintzilikarioei Gabonetako apaingarriak jartzea eta etxeko balkoietan koloreetako zabor poltsak zintzilikatzea proposatu zuten, besteak beste.

Axtroki merkatarien elkarteko kideen eskaintza ezagutu ahal izango da gaur

M.B. | ESKORIATZA

Axtroki merkatari elkarteak aurkezpen ofiziala egingo du gaur. Lehenengo, 20:00etan, elkarteko hainbat kidek postua jarriko dute Jose Arana kaleko arkupeetan produktuak, zerbitzuak eta eskaintzak ezagutarazteko. Ordu erdi geroago, elkartea aurkeztearekin batera, Axtroki

monetaren berri emango dute; gaur bertan egongo dena ere azalduko dute. Dendez gainera, tabernekin ere parte hartuko duten gaurko ekintzan; hain justu ere, txartelak salduko dituzte bost eurotan, eta herriko sei tabernak ekintza horretarako gertatutako eskaintza berezietan erabiliko ahal izango dira horiek.

Azoka ekologikoa egingo dute bihar Ibarraundin

M.B. | ESKORIATZA

Glow kooperatiba barruan dagoen Ekolore plataforma eta Udala, elkarlanean, ekologiarekin lotutako ekintzak antolatzen dabilzala egunotan. Horren bueltan, bihar, zapatua, azoka ekologikoa egingo dute Ibarraundi museoa.

Batetik, askotariko komertzioek eskaintako produktuak salduko dira bertan: hain justu ere, barazki freskoak, te eta txokolate ekologikoak, material birziklatuekin egindako apaingarriak eta berriutako bizikletak; eta hainbat produktu ere dastatu ahal izango dira azokan bertan.

Zenbat dakigu ekologiaz?

Gainera, museoa bertan familiei zuzendutako ekintzak egingo dituzte: esaterako, erronka eta proba txikiak eta ekologiarren inguruan zenbat dakigun ikusteko jokoak egingo dira.

BIHARKO EKINTZAK

BIHAR, ZAPATUA

10:00-14:30 Azoka

11:00-13:00 Ekologia familian lantzeko jokoak

15:30-17:30 Dastatzeak eta familian lantzeko jokoak

18:30 Haurrendako antzerkia: *Galtzagorrieto! Inaxito!*

Azokak 10:30ean zabalduko ditu ateak eta 14:30ean itxiko ditu. Arratsaldean, osterara, dastatzeak, jokoak eta antzerkia izango dira. Horrez gain, Arizmendiko Almen guneko ikasleek egindako apaingarriak ere ikusgai egongo dira han.



OHARRAK

LUDETEKA APAINDU

Gaur, egubakoitza, Gabonetako apaingarriak egingo dituzte, eta horiek ludekara apainduko dute umeei.

GAZTELEKUA

Gaurtik domekara bitartean xaboigintza tailerra dute gazteek gaztelekuan, 17:00etan.

KIROL HITZORDUAK

Kirol ekintzaz beteta dator asteburua: gaur, egubakoitza, seniorren saskibalo partidua dago, 20:15ean; etxeok Oiarsoaren kontra lehiatuko dira. Bihar, zapatua, 11:30ean, kirol berean, Eskoriatzako hurrek Ordizia Txikiren aurka jokatuko dute; eta 16:00etan, Arizmendi Eskoriatza kadeteek Arri BKL taldekoen kontra; 18:00etan, areto futbola dago, Euskal Liga barruan, Eskoriatzako Gora Naturgas Energia bilbotarrak hartuko ditu. Etzi, domeka, areto futbolearen, Aurrera de Vitoriaren bisita jasoko dute etxeko gazteek, 11:00etan.

Espainiako bandera jartzeko aginduari buruzko herri batzarra

Antzuolako EH Bilduk herri batzarra deitu du datorren asterako, Espainiako epaitegiek bandera espainiarra udaletxean jartzeko bidalitako aginduaren inguruan hitz egiteko. Erabaki hori dela-eta alderdiak hartu beharreko jarreraz gogoeta egitea da helburua. Batzarra eguaztenean izango da, 19:45ean, Olanan etxean.

Astelehenean irekiko da Xinkonako saioetan izena emateko epea

Datorren urteko ikastaroei begira, astelehenean irekiko dute Xinkonako haurrentako eskulan saioetan izena emateko epea. Abenduaren 24a bitartean egongo da zabalik izen-ematea eta 2010a baino lehen jaiotako haurrek hartu ahal izango dute parte. Berrikuntza gisa, oraingoan, ikastaroa lau hilabetekoa izango da, urtariletik apirilera.

Musika eskolako ikasleen kontzertua izango da astelehenean

Azken hilabeteetan ikasitakoa erakusteko aukera izango dute astelehenean musika eskolako ikasleek; izan ere, Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Emanaldia 18:30ean izango da, Torresoroan. Eta aurrez ere izango da musikaz gozatzeko aukera, azken asteetan moduan txistulariak kalez kale ibiliko dira eta domekan, 10:00etatik aurrera.

Gabonetan menu osasungarriak egiteko helduentzako tailerra

Haurrek fruta jaten ikasteko tailerra eskaini du asteon Amaia Diaz de Monasterioegurenek. Datorren eguaztenean ere herrian izango da, baina helduei Gabonetan menu osasungarri eta orekatuak prestatzen erakusteko. 18:00etan izango da tailerra Olanan etxean, eta, hala aurreikusitako bezala, irekia izango da.

OHARRAK

ERREGEETAKO LOTERIA

Herriko dendariak urtero saldu izan dute Erregeetako loteria, baina aurten lege aldaketa bat izan da eta ezin izango dute saldu. Datorren urtean berrituko saltzea aurreikusten dute merkatariek.

FUTBOLEKO INFANTILAK

Antzuolako infantil mailako taldeak Eztalan jokatuko du domekan, 11:00etan.



Patxi Luque (ezkerrean) bere taldekideekin gitarra-jotzaileen lehiaketako finalean. | PATXI LUQUE

Bigarren geratu da Patxi Luque 'Púa de Oro' lehiaketan

Lehiaketa "interesgarria" eta "esperientzia atsegina" izan dela adierazi du; zilarrezko zi edo pua eta dagoeneko lokalean duen musika materiala irabazi ditu

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Inoiz baino urrunago heldu da Antzuolan bizi den Patxi Luque *Púa de Oro* gitarra-jotzaileen lehiaketan; izan ere, bigarren saria eskuratu du. Joan den egubakoitzean jokatu zuten finala, Donostian, eta Luque gustura dago bizi izandakoarekin: "Oso lehiaketa interesgarria eta esperientzia atsegina izan da, guztiz asebeste nau". Finalera heltzen den bigarren aldia du hau eta zilarrezko zia (pua) lortu izana "izugarria" dela adierazi du.

"Sari bat baino gehiago, egindako lanaren ordainsari gisa hartzen dut hau, egindako esfortzuen eta honi eskainitako denboraren ordainsaria", azaldu du Luquek. Eta saria jasotakoan gogoan izan zuen familia: "Eurak dira egunero nik egiten dudana-

ren zarata entzun behar izaten dutenak".

Zilarrezko zia eta musika materiala jaso ditu Luquek *Púa de Oro* lehiaketako sari gisa eta dagoeneko PoLi-tiCks taldearekin entseatzen duen lokalean ditu soinu-mahaia, bozgorailuak, mikrofonoa eta anplifikadorea.

Kostatako taldea

Púa de Oro lehiaketak ezarritako arauen arabera, gitarra-jotzaileek bakarka egin dezakete lehen kanporatze-proba, baina finalerdietatik aurrera taldekideekin hartu behar dute parte.

Luquek PoLi-tiCks taldean jotzen du, baina lehiaketako unean baxu-jotzailea bajan zegoen eta musika munduko lagunaren artean hasi behar izan zuen bila. Esteban Murray-k jo zuen baxua finaler-

dietan, baina finalerako beste bat hartu behar izan zuen, hark ezin zuen eta. Ordura arte ezagutzen ez zuen Javi Valverderek egin zuen topo orduan; Txus Gutierrez izan zen beste gitarra-jotzailea.

Gorabehera horiek guztiek lehiaketako finalera oso gutxi entseatuta joatea eragin zuten. "Bizpahiru aldiz bakarrik entseatuta joan ginen finalera, oso denbora laburreko kontua izan zen dena", azaldu du Valverdek. Baina elkarren artean oso harreman ona egon zela eta denbora laburrean soinu ona lortu zutela gaineratu du Luquek.

Lortutako sariak etorkizunean publizitatea egiteko balio diezaiokeela uste du gitarra-jotzaileak: "Eta orain maketa grabatzen ari garenez, interesgarria izan daiteke salmentetan eragiteko".

'Eguzkilo' antzezlan eskainiko dute gaur gaztetxean

I.E. | ANTZUOLA

Erika Olaizola eta Ane Arenas aktore azpeitiarrek sortutako *Eguzkilo* antzezlan izango da ikusgai gaur, 22:30ean, gaztetxean.

Egileek aitortutakoaren arabera, gizarte honetako edonori gerta dakioken istorioa kontatzen du 15 minutu lanak, nahiz eta emakumeengan dagoen zentratuta. Pixkanaka lehertzen doan eguzkiloaren irudiarekin jokatzeko dute antzezlanen.

"Jaio da, iritsi da mundu honen lurrazalera antzerki honetako protagonista. Bi narratzailek erditu eta azalduko dute haren istorioa", dio antzezlanaren sinopsiak. Eta ikusleek istorioek ere zeresana izan dezaketela ulertarazten du umorea eta kritika uztartzen dituen lanak.

Elkarbizitza prozesuko emaitzen aurkezpena

I.E. | ANTZUOLA

Iazko aurrekontu parte-hartzaileetatik sortutako elkarbizitza prozesua fruituak ematen ari da pixkanaka. Ikasturte berrian, urrian, bigarren faseari eman zitzaion hasiera eta taldeetan banatuta aritu dira lanean.

"Prozesu horretan antzuolarron artean elkarbizitza egokia izateko pausoak landu ditugu, hausnarketa sakonetatik zenbait emaitza lortuta", adierazi dute prozesu horretako arduradunek.

Emaitzak azaltzeko jendaurreko aurkezpena egingo dute martitzenean, 18:00etan, Olanan etxean. Arduradunek prozesuaren garrantzia azpimarratu dute herritarrei elkar ulertzen lagundu dielako.

Dozena bat herritar kontsumo taldearekin

Herrian kontsumo taldea sortzeko lehen bilera egin zuten eguaztenean, Olanan etxean. Kontsumo taldeen funtzionamendua ezagutzeko zen lehen topaketa horren helburua eta Leo Argoterren ahotik izan zuten horren berri. Adin askotariko dozena bat herritar batu ziren hitzaldian.



IURE EIZAGIRRE

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Diputazioko eta Udaleko ordezkariak azaroaren 7an. Alicia Ruiz de Infanterekin —ezkerrean— egingo da bilera. | J.B.

ESANAK

"Garrantzitsua da gureta, badirudi hitza beteko dutela"

RAMON AJURIA | ALKATEA

Borondate berbera

Udala aspalditik ari da A-2620 errepidearen itxierak utzitako ondorioekin lanean. Lehentasunezko gaia da eta horregatik lortutako Diputazioaren jarrearekin pozik dago alkatea. Arabako Ahdun Nagusi Javier de Andresek berak argi utzi zuen bi erakunde borondate dela kaltetuei laguntzea eta Adifi kalte horiek erreklamatzeko. Era berean, eskaeren kasuistika "zabala" izan daitekeela onartu zuen De Andresek baina nabarmendu zuen herritar orok duela erreklamazio eskubidea.

Arabako Diputazioa interesatu moduan aurkeztu da prozesu judizialean auzia gertutik jarraitzeko. Izan ere, uste dute "arrazoi objektiboak" daudela "kasu askotan" herritarrek arrazoi dutela ondorioztatzen.

Aramaioko Udalak oraindik ez daki zehazki Diputazioaren laguntza noraino helduko den; zalantza horiek guztiak abenduaren 19ko bileraren ostean argituko dira.

Aldundiaren eta Udalaren arteko bilera, Adifen auzian aurreratzeko

Hilaren 19an Obra Publiko eta Garraioetako diputatuarekin batuko da alkatea

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Adifen kalte-ordainen auzirako Arabako Diputazioak eta Aramaioko Udalak indarrak batuko dituztela iragarri zuten Javier De Andres Ahdun Nagusiak eta Ramon Ajuria Aramaioko alkateak azaroaren 7an. Bada, Ajuriak

iragarri duenez, abenduaren 19an bilera izango dute Alicia Ruiz de Infante Obra Publiko eta Garraioetako diputatuarekin, Gasteizen: "Bisitaren egunean adierazi zigiten euren eskuetan dagoena egingo zutela herritarrek kalte-ordainak jasotzeko aukera izan dezaten.

Diputazioaren aholkularitza aramaioren zerbitzura jarriko dutela esan didate eta kalte-ordainak nola bideratu, zer egin eta zer ez, azalduko digute. Horretarako izango da bilera; garrantzitsua da gureta, badirudi emandako hitza beteko dutela".

Uemak deituta, abizenak euskal grafiaz modu ofizialean jartzeko aukera dago

Udaletxean egin ahalko dira eskaerak, astelehenetan, 09:00etatik 15:00etara

J.B. | ARAMAIO

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak deitutako kanpainarekin bat egin du Aramaiok. Uema barruan dagoen udalerrria izanik, Euskal Herri osoan abiatutako kanpainarekin bat egin dute; oraingoan, abizenak euskal gra-

fiaz jartzeko kanpaina da. Euskal abizena modu ofizialean eta leku guztietan euskaraz idatzita izan gura duten aramaiorrek —esaterako, egun Aguirre denak Agirre izan gura badu ofizialki— udaletxean egin ahalko dute eskaera, astelehenetan (09:00-15:00).

Aurkeztu beharreko agiriak

Izan ere, udaletxeak bake epaitegiaren funtzioak beteko ditu astelehen goizetan. Interesatuak udaletxean emango dieten eskaera-orrria bete beharko dute eta honakoak izango dira aurkeztu beharreko dokumentuak: norta-

sun agiriaren fotokopia —adinez nagusia ez denak gurasoena ere beharko du—, hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria —epaitegian eskatu behar da—, errolda agiria —udaletxean eskatzen da, eta adinez nagusia ez denak gurasoena ere beharko du—, familia liburuaren fotokopia —ezkonduta dagoenak edo seme-alabak dituenak— eta seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia —16 urtetik gorako seme-alabak dituenak—.

Kanpainaren leloa da *Guk abizena, zuk?*; Udalak dei egin die herritarrei parte har dezaten.

Abereen erregistroarako deialdia zabalik

J.B. | ARAMAIO

2014rako udal mendietako larreak aprobetxatu nahi dituzten abeltzainek udaletxean egin beharko dute eskaera: Arabako Diputazioko Abere Erregistroko agiria eraman behar da eta zehaztu egin behar da horietatik zeintzuk izango diren udal mendietan ibiliko diren abereak.

2014ko urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko da eskaera; ez duenak egiten, ez interesatutzat joko da, eta, beraz, abereak beste toki batera eraman beharko ditu, bestela legez dagozkien zigorrak ezarriko zaizkie-eta.

Lehiaketa deitu du Alaiak-ek logoa sortzeko

J.B. | ARAMAIO

Elkartea identifikatuko duen logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu du Alaiak erretiratu elkarteak. Urtea amaitu baino lehen bidali beharko dira lanak, honako helbide elektronikora: alaiak202@gmail.com. Irudiak ordezkatzeko eta komunikatzeko duen gaitasuna baloratuko da, besteak beste. 100 euro jasoko du irabazleak eta sari banaketa elkartearen batzarrean egingo da, 2014ko urtarrilean. Argibide gehiagorako, deitu 605 72 05 31 telefono zenbakira.

Gabonetako Pilota Txapelketa Aramaion ere jokatuko da

Debagoieneko pilotariak jasoiko ditu Aramaioko pilotalekuak Gabonetan. Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriaza eta Antzuolako pilotariak batuko ditu. Kanporaketak jokatuko dira, benjamin eta infantil mailetan. Partiduak hilaren 23an, 26an, 27an eta 28an izango dira, 10:30etik 13:00etara. Finala Oñatin jokatuko da hilaren 31n.

'Abestu eta jolas euskaraz' ikastaroan izena emateko aukera

Zuiako Koadrilak *Abestu eta jolas euskaraz* izeneko ikastaroa antolatu du Gabonetarako. Helburu nagusia da jolasen bidez euskarazko aisialdia sustatzea. Izena eman behar da hilaren 19a baino lehen Urkabustaizko liburutegian edo euskara@cuadrillazuia.com helbidean. Doako ikastaroa izango da.

Kurtzetako kargalekua itxi egin du Udalak

Kurtzetako kargalekurako sarrera itxi egin du Udalak, gaizki erabiltzen zelako. Egurra denbora batez bertan uzteko baimena eskatu behar zen, baina, zabalik zegoenez, zabortege moduan erabili izan da orain arte. Aurrerantzean, giltza eskatu beharko da udaletxean.



ELGETA

Birziklatutako gaiekin egindako apaingarriak, aurten, Gabonetan

Herriko gazteek egindako apaingarriekin atonduko du Udalak herriko plaza

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Badatoz Gabonak, eta Elgetan ere hainbat hitzordu daude iragarrita urte amaierako egunotarako. Hasteko eta behin, herriko plaza atontzeko apaingarriak egingo dituzte ludoteka-gaztelekuan. Birziklatutako gaiekin

egingo dituzte, eta apaingarri horiek erabiliko ditu Udalak plaza inguru apaintzeko. Udaletxean Gabonetako argi bakarria ipiniko dutela esan du Oxel Erostarbe alkateak: *Zorionak* dioena, hain zuzen ere.

Gaztetxoendako egun berezia izango da, baita ere, hilaren 20a. Herri eskolan urteko azken eskola-eguna izango dute. San Tomas eguna ospatuko dute, eta Olentzeroren bisita ere jasoko dute. Lorea Larrañagaren musika ikasleek, bestalde, urte amaierako emanaldia egingo dute Espaloian, 19:00etan. Liburutegian ere egongo da zer ikusi: marrazki lehia-

ketako hiru sarituen berri eman go dute eta lan guztiak ikusgai egongo dira, logo lehiaketako lanekin batera. 22:00etan, berriz, ipuin kontalari saioa egongo du Joxe Mari Karrera kontalariak helduendako.

Olentzeroren etorrera

Urtero legez, abenduaren 23an jaitsiko da Olentzero Intxortatik. 18:00 aldera gerturatuko da herriko plazara elgetarren gutunak jasotzera. Biharamunerako, abenduak 24, Gabon kantak abestera irteteko hitzordua egin du Maala guraso elkarteak. 10:00etan abiatuko dira ikastetxetik.

EGITARAUA ABENDUAK 17-20

ABENDUAK 17

21:00 Kultura etxean, entsegua, *Elgeta kantuan*.

ABENDUAK 20-21-22

16:00 Ludotekan, *Gabonetako apaingarriak birziklatuz* tailerra.

ABENDUAK 20

11:30 Herri Eskolan, Olentzeroren bisita.

16:00 Liburutegian, marrazki lehiaketako erakusketa eta sariak.

19:00 Espaloian, Elgetako musika ikasleen emanaldia.

22:00 Liburutegian, ipuin kontaketa helduendako: Joxe Mari Karrera.



Gaztelekuko neska-mutikoek iazko Gabonetan egindako azoka. | L.Z.

NIRE USTEZ

IGOR ARIZMENDIARRIETA



OIGA agiria

Orain Gabonak datozela, betidanik eman didate atentzioa Euskal Herriko txoko guztietan dauden Olentzeroek. Estilo guztietakoak aurki ditzakegu: batzuk benetako bizarrarekin, beste batzuk ordezko bizarrarekin —umeak ez dira

inozoak—, bizar zurikoak, bizar beltzekoak, aurpegia belztuta daramatenak, aurpegia garbia daramatenak, tripa potoloa dutenak, argalak, pipadunak, piparik gabekoak, astoan datozenak, erremolkean datozenak, bizidunak, bizigabeak, trenez datozenak, menditik datozenak, boxeo izar izandakoak, debekatuak... Egia esan, elkarren antza duten bi Olentzero ikustea ez da batera erraza.

Umeen lekuan jartzen naiz eta, kontxo, hauek ere galdetuko diote beren buruari: baina zenbat Olentzero daude? Ez al dago bat bakarra?

Ez dakit gehiegi eskatzea den, baina Olentzero standard bat egotea ez legoke gaizki, ez duzue uste? Horretarako OIGA bezalako froga bat proposatzen dut; hau da, Olentzero Izateko Gaitasun Agiria. Arropa frogekin, bizar frogekin eta, noski, amaitzeko, ahozko froga batekin. Modu horretan, behintzat, Olentzero bat eta bakarra izango genuke Euskal Herriko ume guztientzat. Errege magoekin ez naiz sartuko, pentsa zenbaterako eman dezaketen; karrozan, zaldian, metroan, game-luan, traktorean, motorrean, itsasontzian... EIGA beste baterako utziko dugu.

Azken eguna marrazkiak aurkezteko

L.Z. | ELGETA

Bi lehiaketa dituzte martxan Udak Liburutegian. Gaur, barikua, amaitzen da marrazki lehiaketara lanak aurkezteko epea. 5 eta 16 urte bitarteko gazteendako antolatutako lehiaketa, eta gaia da *Non irakurtzen dut?* Hilaren 20an jakinaraziko dituzte hiru irabazleen izenak. Gainera, lan guztiak ikusgai ipiniko dituzte liburutegian bertan.

Logo lehiaketa

Logo lehiaketari dagokionez, 29 lan aurkeztu dituzte, eta guztiak ikusgai egongo dira abenduaren 16tik urtarrilaren 17ra. Liburutegiko erabiltzaileek aukeratuko dute boto bidez zein den irabazlea.

OHARRAK

PILOTAKO AFARIA

Txapelketako parte-hartzaileek hilaren 20an egingo dute afaria Intxorta elkartearen. Izena emateko, jo Iñaki Ugartebururengana hilaren 15a baino lehen.

ARETO FUTBOLA

II. areto futbol txapelketan izena emateko epea zabalik da hilaren 31ra arte. Bolatokiaren, udaletxean edo *danonartian@elgeta.net* helbidean.

'GABRIELEN LEKUA'

Gaur, 22:30ean, *Gabrielen lekua* Espaloian. Bertsuak, musikak, deklamazioak eta ikus-entzuzkoak bat eginda, Andoni Egañak, Rafa Ruedak, Oier Guillanek eta Alain Urrutiak osatutako sentikaria. Sarrera 12 euro da —bazkideek 8—. Ikus 28. orria.

Ostiada Oi! taldeak kontzertu sorta iragarri du; Elgetan egingo dute lehena, abenduaren 21ean

Zeresana emango duen kontzertua iragarri dute Elgetako gaztetxetik abenduaren 21erako. Jonny Gerriwelt, BC Bombs eta Ostiada Oi! taldeek egingo dute emanaldia. Ondoren, Olarius eta Brother RnR DJek hartuko dute lekukoa. Elgetan izanik, ikusmina sortu du Ostiada Oi! taldearen zuzenekoak. Agurreko kontzertu sorta iragarri dute, eta herrian egingo dute lehena.

Hilaren 22an, domekan, egingo den 'Elgeta kantuan' ekimenean parte hartzeko gonbita egin dute

Martitzenean egin zuten lehenengo entsegua eta datorren astean egingo dute bigarrena. Asmoa da hilaren 22an kalez kale eta tabernaz taberna kantuan aritzea, eta, horretarako, Jose Gardoki gonbidatu dute aurten ere. Antzerako ekimena egiten dute Eibarren, eta hilaren 22an abeslari taldea igoko da Elgetara. Hurrengo entsegua hilaren 17an da, 21:00etan, kultura etxean.

X. PILOTA TXAPELKETA

Zazpi norgehiagoka aste bukaeran

GAUR, BARIKUA, 19:00ETAN

Pello Larrea-Fernando Zenitagoia / Igor Irazabal-Iker Irazabal
Jabier Bolinaga-Mikel Elkoro / Angel Ibarluzea-Alberto Telleria
Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Iban Retolatza-Diego Cantabrana

ETZI, DOMEKA, 11:00ETAN

Iñaki Ugarteburu-Jose Mari Zubiaurre / Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea

LEINTZ GATZAGA

Gatzagak Elgetarekin konpartituko du idazkaria

Edurne Iturbek Eskoriatzako Udalean bakarrik jardungo du, dedikazio handiagoa behar dutelako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Astehenean, 08:00etan. Orduantxe egingo dute Udaleko idazkari aldaketa ekarriko duen espedienteari hasiera emateko beharrezkoa den osoko bilkura.

Izan ere, Edurne Iturbe idazkariak utzi egingo dio Gatzagak idazkari izateari.

Arrazioa da 1965. urtetik Gatzagak eta Eskoriatzak idazkaria konpartitzeko zuten akordioa

bertan behera geratuko dela, Eskoriatzako Udalak eskaintzen dion dedikazioa baino handiagoa behar duelako idazkariarengandik: %100ekoa, hain zuzen.

Kontuan hartuta Gatzagak %13ko dedikazioa behar duela idazkariarengandik, bada, beste herri txiki batekin konpartituko dute haren jarduna. Elgetarekin, kasu honetan. Han ere berria izendatu behar dute, martxoan orain arteko idazkaria erretiratu egingo delako. Eta aukera hori aprobetxatuta, bi udalerrri txikiok

idazkaria konpartituko dute aurrerantz.

Berria etorri arte, Iturbe

Edozelan ere, lehen esandako moduan, astelehenean egingo duten osokoa idazkari aldaketaren prozesuaren hasiera besterik ez da izango, burokraziak hala eskatzen duelako. Edurne Iturbere joanak eta idazkari berriaren izendapenak zein etorrerak ez dute datarik. Are gehiago, Iturbek Leintz Gatzagako idazkari izaten segituko du, harik

eta berria etorri arte. Izan ere, udal idazkari guztiak Estatuak izendatzen ditu, lehiaketa bidez. Baina gerta liteke Jaurlaritzak zein Diputazioak behin betiko idazkaria izendatu artean bitarteko bat jartzea.

Laburtuz, beraz, Leintz Gatzagak idazkari berria izango du datorren urtetik aurrera, Elgetarekin konpartituko duena. Baina zein izango den, noiz izendatuko duten eta lanean noiz hasiko den zehazteke dago, eta, gainera, luze joko du.



MU eta Clavijokoak lehian, artxibo erretratuan. | GOIENA

SASKIBALOA

Ointxe!-k beste pauso bat emango du Gabonetako torneoan

Klubak urteurren berezia ospatuko du: 45 urte pasa dira lehen saskibalo partidua jokatu zela

XABIER URZELAI | ARRASATE

Ointxe! Saskibalo Taldeak antolatuta VI. Gabonetako saskibalo torneo jokatu dute abenduaren 26tik 28ra bitartean. Aurtengoa, baina, hitzordu berezia izango da, torneo baliatuko dutelako urteurren berezi bat ospatzeko: 45 urte pasa dira Arrasaten lehen saskibalo partidua jokatu zutela. Hala, Gabonetako torneo gazte mailara bideratuta badago ere, urteurrena ospatzeko, seniorrek EBako talde baten kontra jokatuko dute lagunartekoa (abenduaren 27an, 19:00etan).

Puntako taldeak lehian

Abenduaren 26an hasita, Errioxako, Kataluniako, Madrilgo eta Euskal Herriko ordezkariak izango dira zein baino zein gehiago. Hala, Easo A, Cornella, Clavijo, Getafe, Tabirako Baque eta MUK hartuko dute esku torneoan. Lehenengo partidua 15:45ean jokatuko dute, eta Easo eta Clavijo hasiko dira motorrak

berotzen –hiru partidu izango dira arratsalde horretan, eta MUK 17:45ean jokatuko du-. Goizean, baina, Saksi Eskolako topaketak egingo dituzte Iturripen (09:00-14:00). Bistan dago, horrenbestez, Gabonetako saskibalo egitaraua ez dela gazteen torneora mugatuko.

Abenduaren 27a infantil mailako taldeen topaketaz hasiko dute (09:00-10:30), eta 12:45ean hasiko dituzte gazteen partiduak. Lehenengoan Getafek eta Tabirakok jokatuko dute, eta beste bi partidu izango dira ondoren –MUREna, 17:00etan hasiko da. Eta abenduaren 28an finala egongo da jokoan (12:00), baina lehenago torneo beste sailkatuak zelatan geratzen diren erabakitze partiduak izango dira.

Hilaren 27an, afaria

Kanpoko talde guztiek Biteriko egoitzan igaroko dituzte egun horiek, eta 27an batera afalduko dute denek.

TXIRRINDULARITZA

Mikel Aristi | Euskadi taldeko txirrindularia

"Ez nuen baztertu amateur mailara itzuli behar izatea"

Gorabeheraz betetako udazkenaren ostean, Euskadi Fundazioak 2014. urteko kontinental mailako taldea aurkeztu du; bertan izango da Bergarakoa

X.U. | ARRASATE

Etorkizun hurbilean non korrituko duen jakin barik hasi zen Mikel Aristi (Bergara, 1993) urrian entrenatzen. Ez da profesionalen artean halaxe ibili den bakarra, baina kontinental mailan urtebete egin ostean gertu ikusi du ostera amateur mailara itzultzea. Zorionez, Madariagaren proiektuan jarraituko du 2014an.

Zelako udazkena! Euskaltelen desagertzea, Euskadi Fundazioaren proiektua kolokan, NER taldearekin izandako gorabeherak...

Bai. Momentu batean jasotzen genituen albiste guztiak txarrak ziren, eta ziklistok ez dugu batera informaziorik izan. Eta ezjakintasun horrekin entrenatzen hastea ez da atsegina.

Pasa zitzaizun burutik amateur mailara bueltatu beharko zenuela?

Une batzuetan bai, ez nuelako etorkizuna batera garbi ikusten. Baina nire buruari esan nion ez zuela zentzurik kontu horrekin obsesionatzea. Gaztea naiz, eta atzerapauso moduan ikustea baino hobea zela profesionalen artean bizi izandako urtea opari moduan hartzea. Asko ikasi dut urtebete honetan, eta ikasitakoak amateurretan ondo ibiltzeko balioko zidan.

Urtebete egin duzu kontinental mailan. Zelako kategoria da?

Oso gogorra. Hemen, maila kontinental jende gaztearekin lotzen dugu. Baina beste lurralde batzuetan ziklista beterranoek korritzen dute bertan, oso maila oneko ziklistek. Eta Portugal da adibide bat. Bestalde, beste lasterketa asko lehen mailako profesionalen lehiatu ditugu.



Mikel Aristi bergarra. | GOIENA

"Mallorcako Itzulia izan da, akaso, gusturen geratu naizen lasterketa"

Mallorcako Itzulia, esaterako.

Bai, han egin nuen debuta, eta, egia esan, oso oroitzapen onak ditut.

Lehenengo etapa, eta bakarrik ihes eginda. Ez da gutxi...

Horixe zen taldearen helburua, ihesaldietan protagonista izatea. Mallorcako Itzulian etaparen bat irabazi ahal izatea oso zail ikusten genuen, eta ihesaldietan izan nahi

genuen protagonista. Taldekide askok egin genuen saiakera, baina nik lortu nuen aurrera egitea; leher eginda amaitu nuen.

Portugal, Errioxa, Ronde l'Isard, Aostako Itzulia, bertako klasikoak... Eta baita Txina ere. Zelako balorazioa egiten duzu?

Egia esan, oso gustura geratu naiz. Izugarri ikasi dut aurtien eta esperientzia ederra izan da. Talde lana egin dut, baina ihesaldi batzuetan sartzeko aukera ere izan dut.

Zer korritu nahiko zenuke 2014an?

Lasterketa konkretu bat korritu baino, aurrerapausoak ematen jarraitu nahiko nuke, eta taldean nire lekua hobeto finkatu.

ZIKLO-KROSA

Oñatiko IV. ziklo-kros lasterketa egingo dute abenduaren 22an

Aloña Mendiko lagunak buru-belarri dabilta abenduaren 22ko ziklo-kros hitzordua prestatzen. 10:00etan hasita, kadete, gazte, master, 23 urtez azpiko eta elite mailakoen lasterketak egongo dira jokoan; hau da, ez da kategoria bakar bat faltako.

Lasterketako ibilbidea azken urteotakoa izango da, 2.500 metro luze izango ditu, San Martingo belardian eta zuhaitzian barrena. Lasterketan Debagoienak ordezkari mordoa izango ditu, hainbat kategoriatan banatuta, gainera, baina aipatzekoa da Arrikruz Oñatiko Kobak taldeko lagunak etxean korrituko dutela. Denboraldiko 13. hitzordua izango da Oñatikoa.

TENISA

Santamas torneo eta Erraketa Eguna Musakolan

Zapatu goizean hitzordu bikoitza izango da Musakolako kiroldegian, eta biek harreman zuzena izango dute erraketaz. Batetik, LEKek antolatuta Erraketa Eguna ospatuko dute kiroldegian, eta gaztetxo mordoa ibiliko da tenisean, frontisean, squashean eta paddlean jokatzeko. Eta bestalde, Santamasetako Tennis Txapelketa dagoeneko final-laurdenetan murgilduta dago. Zapatu goizean lau partidu jokatuko dituzte, eta finalerdiak domekan jokatuko dituzte. Hala, tenis jokalaririk onenak abenduaren 21ean jokatuko duten finalerako sailkatuko dira.

BOULDERRA

14 urtez azpikoen txapelketa egingo dute Oñatin zapatuan

Gaztetxoaren arteko boulder txapelketa egingo dute zapatu goizean, hilak 14, Zubikoa kiroldegiko rokodromoan. Aloña Mendiko eskalada eskolako antolatuta du, Debagoieneko eskalada eskolarekin batera. Hala, Oñatiko eta Aretxabaletako kideen arteko ligaxkako lehen proba izango da biharkoa. 6 eta 14 urte arteko gaztetxoak izango dira parte hartuko dutenak eta hiru kategoriatan banatuko dituzte. Bakoitzak ordu bat izango du proba gainditzeko, eta bost bloke izango dituzte. Hurrengo hitzordua hilaren 20an izango dute, Aretxabaletan, Ibarren.



BENAR KORTABARRIA / LOKATZA

Riverok podiumean jarraitzen du

Ziklo-kros denboraldiari zukua ateratzen dabil Jon Rivero bergarra. Debabarrenakoa min hartuta egon da, ukondoan kolpea hartu ostean, baina ondo erreperatuta itzuli da lasterketara, Asteasun egindako proban 23 urtez azpikoetan podiumean igotzeko gauza izan zen-eta. Hirugarren sailkatu zen.

AUTOMOBILISMOA

Orobengoa: "Erresistentzia probetan jarraitzeko asmoa dugu"

Alcañizko 500 kilometroak ez bukatu arren, garaikur eta guzti bueltatu dira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Gustura hitza aipatu du Iker Orobengoak, Arrasateko TRT Racing taldeko kideak. Baina hitz gozo horren atzean sentipen gazi-gozo bat ere ageri da. Aurreko urtean entrenamenduetan izandako istripu batek utzi zuen Arrasateko eta Oñatiko taldea lehiaketatik kanpo (gidarietako bat oñatiarra da) eta aurreko lasterketa irabaztera joan ziren.

Taldearen Ibiza Cupra autoa proposa da proba horietarako, eta entrenamenduetan izandako sentipenek lan ona egingo zutela iragartzen zuten. "Diesel auto bat izatea abantaila handia da, gainontzeko taldeek baino gutxiago bete behar izaten dugu depositua", azaldu du Orobengoak. Hala ere, autoa ez ezik, ilusioak ere errepidean geratu ziren.

Zorte txarra berriro ere

Lasterketa ezin hobeto hasi zuten TRT Racing taldeko kideek, bigarren kokatu ziren eta deposituaren abantaila kontuan izanda garaipena eskuan zuten. 28 bueltaren ostean, baina, abiadura-kaxako errodamendu baten tapa askatu eta lasterketa utzi egin



Alcañizko proban parte hartu zuten taldekideetako batzuk. | IÑAKI VECI

behar izan zuten; hala ere, ez ziren esku hutsik bueltatu: "Gure lana eta esfortzua kopa batekin saritu zuten".

Jarraitzeko asmoa

"Honek ez gaitu lehiaketatik urrundu. Egia da probak aukeratu egingo ditugula, baina erresistentzia probetan jarraitzeko asmoa dugu". Orain arte ibilbide luzea egin du taldeak eta aurreko aste-

ko proban bizi izandakoak baino une latzagoak gainditu ostean, ez dute motorra hozten utziko.

"Lasterketa gogorrak diren arren, babeslerik gabe ez genuke ezer lortuko", dio Orobengoak. Hala ere, babesleen aurretik familiakoen eta ingurukoena ere aipatu du. Argi dago lagun koadrilla den talde horretan, jarraitzaileek lasterketetan ez ezik urte osoan ere laguntzen dietela.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUME.

Mondra-Aurrera Vitoria

Zapatua. 16:00. Mojategi.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Antiguoko-Aretxabaleta

Zapatua. 15:30. Donostia.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta-Beti Gazte

Domeka. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Aurrera

Domeka. 16:30. Azkoagain.

Bergara-Lagun Onak

Zapatua. 15:30. Agorrosin.

Hernani-Antzuola

Zapatua. 16:30. Zubipe.

ERREG. PREFERENTEA

Mutriku-Mondra

Zapatua. 16:30. San Miguel.

LEHEN ERREGIONALA

Bergara-Arizmendi

Zapatua. 17:30. Ipintza.

Soraluze-Aretxabaleta B

Zapatua. 18:50. Ezozia.

EMAKUMEZKOAK, LIGA

Arizmendi-Amara Berri

Zapatua. 15:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Gora

Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz

LEHENENGO MAILA

Aretxabaleta-Gamon Aker Pub

Larunbata. 11:30. Ibarra

HIRUGARREN MAILA

Goizueta-Mondrate

Gaur. 22:00. Eskola publikoak.

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Padura

Zapatuan. 18:00. Iturripe.

MAILA AUTONOMIKOA

Natra Aloña Mendi-Irun

Zapatuan. 18:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN SEN.

MU A-Aloña Mendi

Gaur. 20:00. Musakola.

Soraluze BKE-Internacional

Zapatua. 16:30. Labegarieta.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Oiarso

Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

GAZTE EMAKUMEZKOAK

Soraluze BKE

Atsedena.

Take J.B.N-Eskoriatza

Zapatua. 12:00. Tolosa kirol.

ESKUBALOIA

NAZIONAL MAILA

Romo-Ford Mugarri

Zapatua. 18:00. Gobela kirol.

EMAK. EUSKADIKO TX.

Aloña Mendi

Atsedena.

GIZO. EUSKADIKO TXAP.

Erandio-Soraluze BKE

Zapatua. 18:30. Altzaga kirol.

GIP. LEHEN MAILA

Urnieta-Izarraitz Aloña

Zapatua. 19:00. Udal kiroldegia.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara-Saieko

Domeka. 11:00. Labegarieta.

Arrasate-Leizaran

Domeka. 11:30. Iturripe.

PILOTA

BERGARAN:

Bigarren urteko

haur-kategoria, gaur (19:30)

Bergara-Aurrera Saiaz 4

OÑATIN

Lehenengo urteko

haur-kategoria, gaur (20:00)

Aloña Mendi 2-Legazpi

ARRASATEN

Eskuz binaka gazteak, 2.

maila, gaur (20:45).

Arrasate-Hernani

ERRUGBIA

SENIOR EUSKAL

TXAPELKETA

Kanpanzar ART-Funes

Zapatua. 16:30. Mojategi.

ATLETISMOA

SANTAMAS KROSSA

Domeka. 11:00 gazteak eta

12:30 koadrilak, herriko plazatik.

TENISA

SANTAMAS TORNEOA

Zapatuan final-laurdenak eta

domekan finalerdia jokatu

dituzte Musakolako kiroldegian

Aurtengo oparia

argia

harpidetza egizu
egiozu

Orain **%50**eko beherapena

harpide berrientzat lehen urtean

hilean 6 € baino ez!

Eskaintza hau
2013ko abenduaren 31n
amaitzen da

Eskaerak:

943 371 545 | harpide@argia.com | www.argia.com/harpidetza

KULTURA



Domekako Bertso Txapelketa Nagusiko finalean taularen gainean izango diren protagonistak. | BERTSOZALE ELKARTEA

Zeinen buruaren gainean txapela?

- ▶ 13.500 bertsozale batuko dira domekan Barakaldoko BECeko finalean
- ▶ Asteleheneko Goiena paperean finalaren berri jasoko dugu



MANEX AGIRRE
BERTSOLARIA

1. "Tbilbide motza egin nuen nik, Oionen urriaren 26an kantatu eta txapelketatik kanpo geratu nintzen-eta. Uste baino lasaigo egon nintzen, eta Oiongo plaza ederra izen zen, giro alde-tik. Bertsoan, berriz, gorabeheratsu ibili nintzen; gora baino behera gehiago, esango nuke".

2. "Distantziatik jarraitu dut aurten (Internet eta telebista bidez, gehienbat); baina gustura jarraitu dut. Finalerdietan gozatu egin dut, saio onak eta bertso oso onak entzuteko aukera eduki dugulako".

3. "Txapelketako finala zabalik ikusten dut, besteak beste, daukan askotariko sinbolismoengatik; hau da, bertsozaleen elkargunea delako, ekitaldi masiboa delako, lau urtean behin egiten delako... Eta bestetik, bertsoei dagokionez, domekan saio oso ona entzuteko aukera izango dela iruditzen zait. Ez dut, oraingoz, faborito zehatzik".



AINHOA AGIRREAZALDEGI
BERTSOLARIA

1. "Gustura ibili naiz; norberaren bertso mailari astinaldi bat emateko aproposa da txapelketa. Legazpikoan, ofiziotako saioetan gustura kantatu nuen, baina ez horrenbeste bakarkakoetan. Orain, plazetan zukutu behar aurreko entrenamenduak".

2. "Oro har, bertso-maila onean; gorabeherak ere izan dira, baina hori humanoa da, eta horixe da bertsoaren xarma ere. Azken finalerdietan, bai bertsolariak bai gai-jartzaileak ere koska bat gora egin dute, eta hori igarri da, baita estimatu ere".

3. "Espero dut bertsolarien onena ateraraziko duten gaiak izatea; bertsoaldi ederrak emango dituztela seguru nago. Bestalde, bertso txapelketa bat baino gehiago, euskal kulturagintzaren memoriam txokotxo bat irabaziko duen eguna izatea espero dut, ikuspegi sozialari dagokionez. Faboritoak badituz, baina zortziek onena ematea nahi nuke".



MIREN AMURIZA
BERTSOLARIA

1. "Final-laurdenetan kanporatuta, ez nituen helburuak bete, baina horixe da lehiaztea: batzuetan bale, besteetan kale. Hasieran penatuta egon arren, dagoena onartu eta aurrera; zorionez, bertsolariak txapelketatik kanpo ere aukera asko ematen ditu".

2. "Saioetan inoiz baino jende gehiago ibili da. Bertsolarietzat ez da erraza izaten horrelako ikusmina sortuta beti ondo erantzutea, baina uste dut oso gauza onak egin dituztela. Saio gehienak entzun ditut eta denetan egon da gogoan hartzeko moduko zerbait. Finalera ez sartu arren, Jone Uriaren eta Alaia Martinen lana nabarmenduko nuke".

3. "Itzela izango da, bai bertsoengatik eta baita BECen sortuko den giro bereziagatik ere. 14.000 lagun euskaratik eta euskaraz, uste dut badugula zer ospatua. Bertsolari gehienak lagun ere badituz; beraz, onenak irabaz dezala".



MADDI SARASUA
BERTSOLARIA

1. "Esperientzia bezala hartu dut txapelketa. Agian beste inoiz izanen ez dudan aukera zenez, gozatzeri joan nintzen. Ez nuen ezer galtzeko! Ez nion presio handirik sartu ene buruari eta ez nuke erranen saio itzela egin nuenik, hobeto egin nezakeen, okerrago ere bai. Ongi pasa nuen. Esperientzia polita izan da".

2. "Lehenengo aldiz saioz saio jastatu dut txapelketa. Entzule gisa, bertsoa agian beste formatu batzuetan gozagarriago zaidala ohartu banaiz ere, oso gustagarri egin zait. Ez da dudarik bertsoaldi batzuk luzaro gogoan hiltzaturik atxikiko ditudala, baina bereziki bizi izandako giro, une eta sentimendu berezi horiekin gelditzen naiz".

3. "Bertsozale eta euskaldun ororentzat festa itzela izaten da. Han sortzen den giroak ez du parekorik. Ilusioz nago. Bertsolariak sekulakoak dira, eni denak gustatzen zaizkit".



MIKEL F. DE ARROIABE
KANPORAKETETAKO EPAILEA

1. "Esperientzia oso polita izan da niretzat. Epaile-talde jatorra osatu da, konfiantzaz aritzeko laguntasun handia izan dugu elkarren artean, eta alde horretatik oso gustura. Arabako txapelketatik salto handia nabaritu dut; asko ikasi dudana sentazioa dut, kanporaketetan eta baita formazio saioetan ere".

2. "Batez ere, kontuan hartu beharrekoa jendearen erantzuna izan dela uste dut, ia denetan jendea gainezka egon da. Berotasun horrekin bertsolariak ere fin aritu dira eta saio batzuk maila handikoak izan dira. Zazpi sailkatuek gainera, hiruzpalau finalaren atari-atarian gelditu dira; horrek erakusten du bertsolarien maila handia".

3. "Finalean emaitza zein izango den asmatzea zail ikusten dut, buruz burukoan aritzeko ere hainbat bertsolari ikusten ditut-eta. Jaialdi polita izango dugu, eta horrekin gustura".

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Domekan amaituko da, Barakaldoko BECen, irailaren 29an Villabonan abiatutako XVI. Bertsolari Txapelketa Nagusia. Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Sustrai Colina eta Unai Iturriagaren aurrean defendatuko du oraingoz berea dena Maialen Lujanbiok. Horiek guztiak Oñatiko Zubikoa pilotalekuan izango dira urtarrilaren 5ean, 22:30ean, Oñatiko Bertso Eskolaren eskutik.

Juanito Dorronsoro ataundarrak izango du domekan puntu gehien eskuratzen duenari txapela janzteko ohorea. Hezkuntzan bertsolarietza txertatzen lan handia egin du Dorronsorok; besteak beste, hura da bertsoetarako baliagarri diren doinuen bilduma zabalenaren egilea. Irabazlearen izena erabakiko dutenak, berriz, Eneko Bidegain, Karlos Ibaruren, Martin Aramendi, Nerea Bruño, Ekaitz Elorriaga, Mirari Azula eta Josu Telleria izango dira.

Egun osoko jarduna

11:00etan hasiko dira goizeko saioak eta 16:00etan, berriz, arratsaldekoak. 20:30ean izango da, ostera, sari banaketa.

Bizkaia Arena alboko 6. pabiloian hainbat zerbitzu eskainiko dira: 14:00etatik 16:00etara, jantokia, eta saioek iraun bitartean

hartzaindegia izango da. Azken hori doan da, baina ezinbestekoa da aurrez izena ematea.

Txapelketa jarraitzeko bideak

13.500 zale batuko dira BECen; horietako asko debagoiendarrak. Baina badira txapelketa jarraitzeko beste hainbat modu: sare, telebistaz eta baita Oñatiko Ernairen eskutik Antixena gaztetxean ere. Egun osoko egitaraua presatatu dute; tartean, bazkaria. Aldez aurretik izena eman behar da.

Bertsoen begietatik

Txapelketa amaitzean dagoela, Debagoieneko parte hartzaileen gana jo dugu iritzia bila.

1. Zelan sentitu zara Txapelketa Nagusian parte hartzen?

2. Zelan ikusi duzu, orokorrean, aurtengo txapelketa?

3. Zer diozu finalaz? Bide batez, faborito zehatzik baduzu?

German Lete | Lete arrandegiko arduraduna

"Sasoiko arraina izaten dugu, baina saiatzen gara aukera zabala eskaintzen"

Bergarako erdigunean dago Lete arrandegia eta bertako jabe German Letek urte askotako esperientzia du sektorean. Beti saiatu da kalitatezko eta garaian garaiko arraina eskaintzen herritarrei, baita zerbitzu ona ematen ere. Horretan lagun ditu Isa Alfonso eta Lierni Domenech.

Arrain mota ezberdinak dituzue. Zer eskaintzen duzue?

Batez ere, sasoiko arrainarekin egiten dugu lan, baina saiatzen gara mota askotariko arrainak izaten. Jendeak eskertzen du egunerokotasunean aukera eta eskaintza zabala izatea, horrela aukeratu egin dezake; ze askotan zer nahi duten jakin gabe etortzen baitira eta hemen ikusitakotik hautatzen dute. Aukera handia eta kalitate oneko arraina izaten ahalegindu izan gara gure ibilbide guztian.

Eta zerbitzu ona ematen ere saiatzen gara, kalitatezko arraina eta zerbitzua lotzen ditugu.

Nondik ekartzen duzue saltzen duzuen arraina?

Egunero joaten gara arrainaren bila; normalean, Ondarroara. Hango portutik ekartzen dugu eguneko arraina eta han topatzen ez duguna, berriz, Mercabilbaotik.

Gauetz joaten naiz Ondarroara eta goizeko lehen ordurako egiten dut buelta normalean, portuan 07:00etan hasten dira-eta arraina saltzen.

Enkarguak egiteko aukera ere eskaintzen diezue zuen bezeroei, ezta?

Bai, egunerokotasunerako nik nahiago dut garaian garaiko arraina ekarri, baina gaur egun merkatuan edozer gauza dago eskurgarri, eta, bezeroek aurretik eskatuz gero, aukera dago edozein arrain mota ekartzeko.



Germanen amama Manuela eta osaba Agustin kaleetan arraina saldu ostean eta Lete arrandegiko egungo hiru langileak.



Gero eta egun gutxiago geratzen dira Gabonetarako. Familia giroa eta kontsumoa hazi egiten dira garai hauetan. Nabaritzen duzue?

Gabonak urtero modukoak izatea espero dugu, konpromiso asko izaten ditugu eta jendea behar duena ematea espero dugu. Garai honetan ez da gehiago saltzen, ez kiloak kontuan hartuta, behintzat. Saltzen diren produktuak aldatzen dira eta eguneroko antxoak, perlitak edo txitxarroak saldu beharrean,

jendeak langostinoak, legatzak, lupiak, bisiguak eta antzeko arrainak eskatzen ditu.

Nolakoa da zuen harremana bezeroekin?

Hurbileko bezeroak ditugu, konfiantzazko jendea, urteetako lanaren ondoren euren konfiantza irabazi dugu.

Lehen, azokan izan nuen beste arrandegi bat, ia hogeitaz. Hura utzi eta Bidekurutzeta kalera pasa ginen. Ordura arteko bezero

askok hemen erosten dute gaur egun ere, ezagutzen nautelako eta badakitelako nola egiten dudan lan. Baina bezero berri asko ere egin ditugu hemen.

Egun, zenbat langile zarete?

Hiru ibiltzen gara, Isa Alfonso eta Lierni Domenech ama-alabek ere hemen egiten dute lan. Domekatik zapatura irekitzen dugu goiz nahiz arratsalde, egun gauden lekuan jende asko ibiltzen delako ordu ezberdinetan.

Azokan zenuen arrandegia aipatu duzu; zenbat urte daramatzazu honetan lanean?

Gaur egungo lokalean bost urte daramatzagu, baina duela 24 urte hartu nuen nire gain Lete arrandegiararen ardura.

Dena den, beti izan da familiako arrandegia, ezta?

Bai, nire amama Manuela 1923. urtean hasi zen arraina saltzen. Hura ez zen arrainaren jabea, baina Donostia eta Ondarroatik bidaltzen zioten trenean eta kamioian eta hura oihuka kalez kale saltzeaz arduratzen zen; bitartekaria zen.

Bidalitako arraina guztiz gastatu arte ibiltzen zen kalez kale saltzen eta Bergaran ezin bazen saldu ondoko herrietara –Elgetara edo Antzuolara– joaten zen bere gurdiarekin. Oso gogorra zen horrelako gurdi batekin haraino joan beharra.

Noiz egin zuen kaletik azokarako jauzia?

1940. urte inguruan debekatu egin zuten kalez kale eta domeketan saltzea eta azokan saltzera behartu zuten. Garai hartan bere alabak ere –horietako bat da nire ama– hasi ziren arrandegian lanean. Semeetako bat Ondarroara ezkondu eta hainbat txalupa eskuratu zituen. Orduetik aurrera hark bidali zuen azokan saltzeko arraina. Gure amak eta aitak ere egin zuten lan azokan, eta aitak utzi zuenean neu hasi nintzen amarekin batera.

LETE
arraindegia

BIDEKURUTZETA 1
943 76 34 51

Laboak hasitako bidea, dantzaz jantzia

Kukaik eta Tanttakak 'Komunikazioa-Inkomunikazioa' ikuskizuna egingo dute bihar, zapatua, Arrasaten

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Dantza, antzezlan, gorputz espresioa, hitzak, proiektzioak eta musika; horiek guztiak batzen ditu *Komunikazioa-Inkomunikazioa* ikuskizunak.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian erakutsiko dute, 19:30ean. Sarrerak 12 eurotan daude salgai, arrasate-mondragon.org atarian eta antzokiko txarteldegian.

Kukairena eta Tanttakarena

Tanttaka antzerki taldeak eta Kukai dantza taldeak elkarrekin egin duten laugarren lana da bihar Arrasaten ikusiko duguna; oraingoan, baina, Arriaga antzokiaren laguntza ere izan dute. Jon Maia dantzariak eta Bergarako Mireia Gabilondo aktore eta zuzendariak egin dute gidoia.

Aurreko lanetan moduan, Jon Maiaren ardura izan da dantzen koreografia landu eta dantzariak prestatzea; Gabilondorena, berriz, gidoiaren beste aldea; testuen moldaketa, horien artean.

Askotariko osagaiekin egina

Dantza ikuskizun bat baino gehiago dela dio Gabilondok: "Kukaiaren ezaugarriak ditu, batetik; hau da, dantza tradizionala dantza garaikidearen esparrura ekarrita, baina nahasketa handiko ikuskizuna da. Mikel Laboak erakutsitako bidetik komunikazioa eta inkomunikazioa adierazteko haren hitzak erabili ditugu, eta baita beste hainbat testu ezaugarriak ere: Shakespearerenak eta Chejovenak, besteak



Komunikazioa-Inkomunikazioa lana. | TANTTAKA

beste. Euskaraz, gainera, polonieraz ere entzungo duzue, dantzan ikusiko duzuen Helena Golaben ahotik, Euskal Herrian bizi den dantzari poloniarra".

Proiektzioak ere izango direla gaineratu du bergararrak, eta horietan ikusiko dugu, besteak beste, Israel Galvan dantzari andaluziarra. Musikaren garrantzia ere azpimarratu du: "Kantu

ezagun asko daude; besteak beste, Laboaren hainbat".

Taula gaineko protagonistak

Dantzariak, aktoreak eta musikari bat izango dira taularen gainean: Aitor Beltran, Miren Gaztañaga, Eneko Gil, Helena Golab, Ibon Huarte, Alain Maia, Urko Mitxelena, Nerea Vesga eta Iñaki Telleria. Atzeko lanetan beste hainbat lagun ere badaudela dio Gabilondok, osagaien nahasketa egin duen Xabi Erkiizia aipatuta, horien artean.

Bruselatik Arrasatera

Bilboko Arriagan estreinatuta, Donostian eta Gasteizen erakutsi zuten eta aurreko astean, Bruselan. "Oso harrera ona izan du askotariko ikusleen aurrean; desiratzen nago, baina, etxean erakusteko", gaineratu du.

ESANAK

"Etxe ondoan erakusteak emozio berezia sortzen dit"

MIREIA GABILONDO | ZUZENDARIA

Presta zaitezte, heldu da-eta Kantari ikuskizuna Oñatira

8 eta 12 urte bitarteko 100 gazte inguruk hartuko dute parte Oñatiko Gaztelekuan zapatuan

I.B. | ARRASATE

Aste bukaera honetan, zapatuan hain zuzen ere, Kantariaren hirugarren saioa izango da Oñatiko Gaztelekuan. 8 eta 12 urte bitarteko 100 gazte inguruk hartuko dute parte bertan eta ilusioz beterik igoko dira gaztetxoak taula gainera.

17:00etan hasiko da saioa eta 20:15ak arte iraungo du. Gazteek asko eskertuko dute familiakoak, lagunak... bertara hurbiltzea, batzuentzat oholtzara igoko diren lehen aldia izango delako. Lau

saio grabatuko dira, eta batetik besterako tartean Andoni Moto eskoriatzarrak musika jarriko du Gaztelekua girotzeko.

Pasa den astean Bergaran maila ona eman zuten gaztetxoek, baina oñatiarrak ere azaroaren 30a ezkeror ari dira jo eta ke entsetzen. Beraz, maila ona emango dutelakoan gaude.

Estreinaldia urtarrilean

Urtarrilaren 7tik 16ra bitartean estreinatuko da Oñatiko Kantari saioa Goiena telebistan. Martitzen



Oñatikoak entsetzen. | AITZIBERA

eta eguenetan, 19:35 inguruan.

Saioak estreinatuta ondoren, Kantariko ikuskizuna blogean oso-osorik eta argazkiak ikusteko aukera izango da: blogak.goiena.net/kantari/.



Andoni Egaña, Rafa Rueda, Oier Guillan eta Alain Urrutia. | G.A. ELKARTEA

'Gabrielen lekua', Aresti eta haren lana batzen dituen ikuskizuna Elgetan

Andoni Egañak, Rafa Ruedak, Oier Guillanek eta Alain Urrutiak hartuko dute parte ikuskizunean

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Gabriel Aresti Kultur Elkarteak eta Zenbat Gara elkarteak bulztatuta, idazle eta poeta zen Gabriel Arestiren gaineko ikuskizuna egingo dute Elgetako Espaloia kafe antzokian gaur barikuan, 22:30ean.

Bilbotarra bera eta haren lana eguneratzeko helburu izango du ikuskizunak. Belau-naldi batzuentzat bilbotarra gogora ekartzea izango da; beste batzuentzat, aldiz, deskubrimendua. Bada, ikuskizunak poesia, bertsoak, musika, irudia eta antzerkia batuko ditu agertokian.

Arestiren oparotasunak, aktibismoak, eztabaidarako zuen joerak isla izango dute lan horretan eta hainbat kultura adierazpide elkartuko ditu oholtza gainean: bertsolaritza, musika, ikus-entzunezkoak, deklamazioa...

Ardatz nagusiak

Aresti poliedrikoena azalduko dute obraren sortzaileek. Idazlearen haurtzarora, euskara ikasteko erabakia hartu zuen unea, justizia sozialarekiko zuen kezka, obra literarioa, hainbat pertsonarekiko gutun-hizketa, euskara batuaren sorrera eta haren ideologia izango dira ardatz nagusi.

Bilboko Arriaga antzokian egin zen estreinaldiak izandako kritika arrakastatsuen

ondoren, gurera etorriko dira; Elgetako Espaloira, zehazki. Hainbat pertsona ezagun izango dira emanaldia egiten: Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreak; Rafa Rueda gitarra, mandolina, ukelele eta banjoarekin; Iban Urizar tronpetak eta kornetarekin; eta Naia Membrillera perkusioarekin. Haiez gain, Andoni Egaña bertsolaria, Oier Guillan deklamazioa eta Alain Urrutia ikus-entzunezkoen sortzailea ere bertan izango dira.

Ikuskizunaren gidoia Oier Guillanek eta Andoni Egañak egindakoa da, Gabriel Arestiren testuetatik abiatuta, eta sorkuntza lagun bezala Xabier Monasterio ibili da. Horrez gain, Hedoi Etxarteren *Hogei-ta bat proletario* poemak ere azalduko dira ikuskizunean.

Ordu eta erdi iraungo du, gutxi gorabehera, emanaldiak, eta Arestiren alderdirik garrantzitsuenak hainbat lekurekin lotuko dira ikuskizunean. Bilbo, Baiona, Arantzazu, atzerria... euskal literatura, euskal kultura... Denetarik izango du lan horrek.

Sarrerak salgai daude dagoneko Espaloian bertan. Kafe antzokira joanda edo erreserba eginda eros daitezke, 943 78 90 85 telefono zenbakira dei eginda. Sarreraren prezioa 12 euro da eta bazkideendako, berriz, 8 euro.

'Erdaldun berrien kluba', urte berriaz

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Gazteengana formatu erakargarrian iristeko eta mezuak modu dibertigarrian zabaltzeko sortu zuen Arrasateko euskara elkarteak *Buah! Txabal* 2011n. Antzezlanak izandako erantzun onaren ostean, *Erdaldun berrien kluba* bakarriketa aurkeztu du AEDk asteon. Idoia Etxeberria kazetari eta gidolari oñatiarrak sortu du eta Olatz Pagaldai eskoriatzarra izango da aktorea.

Estreinaldia urte hasieran

Maite Agirre AEDko dinamizatzailearen esanetan, oraindik ez dute zehaztu noiz eta non egingo



Agirre, Etxeberria eta Pagaldai. | E.A.

duten lehen emanaldia. "Baina, hasiera baten, Arrasaten izango da, Gabonen ondoren". Obra hau adin guztietako jendeari zuzenduta dagoela adierazi dute, gainera. Irantzuren istorioa kontatzen du lanak; neska honen kluba jende gutxik osatzen dute, sekula ez dute saririk jasotzen eta inoiz ez dira telebistan agertzen. Kluba ezezaguna da, erdaldun berrien kluba delako eta erdaldun berri gehienek ez dakitelako erdaldun berriak direla. Istorian zehar erdaldun berria zer den definitzen joango dira, Olatz Pagaldai aktorearen bakarriketen bitartez.

Pagaldairen esanetan, hasieratik identifikatua sentitu da Irantzuren kasuarekin. "Euskaraz bizi garenok erdaldun berriak gara eta askotan euskaraz pentsatzen dugu, nahiz eta gero, gaztelaraz hitz egin", aipatu du aktore eskoriatzarrek.

'Jon Martir' eta 'Aupa Miren Etxebeste' | Fiskala eta abokatua

"Auzoetako eta beste herri batzuetako lekukoek egingo dute berba toberan"

Z.V.D.M. | BERGARA

Abenduaren 28an Bergara epaituko dute Debagoieneko hirugarren toberan, eta bertako fiskalarekin eta abokatuarekin egin dugu berba.

Zer da Bergarari epaiketan leporatzen diozuna?

Jon Martir, fiskala: Bergarako herriari azakeria leporatzen diogu: handinahikeria; *teatroak* izatea; itxurakeria; izan denari baino, ematen denari garrantzi handiagoa ematea.

Eta akusazioaren aurrean, zein izango da defentsaren ardatza?

Aupa Miren Etxebeste, abokatua: Bergarakook eleganteak izateak ez duela beste zenbait konturekin zerikusirik: handinahikeriarekin, inguruko herriak eta auzoak gutxiestarekin... Bergara oso herri garrantzitsua izan da beti, pertsonaia garrantzitsuak eman ditu, eta harro gaude, baina, betiere, umiltasunetik.

Nolako lekukoak eramango dituzue epaiketara?

J.M.: Akusazioaren aldetik, zenbait auzo dira lekuko nagusiak. Baina ez dira bakarrik egongo; Bergararekin harreman zuzena edo zeharkakoa duten beste zenbait herritako lekukoak ere aurkeztuko ditugu.



Martir eta Etxebeste. | A.T.

A.M.E.: Bergara modu oso desberdinetara bizi izan dutenak. Herritar xumeak, esfortzuaz eta lan eginda bizimodua aurrera atera ahal izan dutenak; Bergara lau haizetara munduan zehar zabaldukoak; pertsonaia ilustratua eta, gainera, emakumea; egungo Bergara ondo eza-gutu dutenak...

Aurreko toberak jarraitu dituzue akusazio zein defentsa prestatzeko orduan?

A.M.E.: Bai. Bietan abokatuek lan paregabea egin zuten, eta nik hauen erdia emanez gero harro sentituko naiz nire herria defendatzen. Baina ez da lan makala izango aurretik edukiko dudana...

Etxean estreinatuko du Imazek 'Sex o no sex' antzezlan

Z.V.D.M. | BERGARA

Etxean estreinatuko du gaur Oihulari Klownek azken lana. *Sex o no sex* dauka izena eta genero ikuspuntutik kontatutako obra da. Zabalotegi aretoan estreinatuko dute, gaueko hamarretan hasita.

"Oso erraz irten zait lan hau prestatzea, egia esan. Plazerari, sexuari, menopausiari eta autoes-

timuari buruzko lan dezente egin izan dut azken urteetan, eta esango nuke gai horien inguruan edukitzen ditugun mamuak uxatzeko baliagarria dela. Jendeari bizi egin behar dela gogora ekartzeko modu bat, gauzak serioegi hartu barik, gertatzen zaizkigunak umorez ere har daitezkeela esateko modu bat". Hala eman du aditzera Virginia Imazek.

Estreinaldirako prest

Hala, Zabalotegiko estreinaldian Imazek bizitzari, heriotzari eta sexuari buruz egingo du berba, umore ukituz, betiere. "Aurrestreinaldiko hiru bat saio egin ditut lagun artean, baina gaur da egun handia. Emanaldiz emanaldi hobetzen joango naizela badakit, baina gaurko estreinaldira lasai joango naiz".

Carrefour

GORBEIA



Abenduaren 13tik 16ra bakarrik!

-%30

jostailuetan*

Jostailuetan 50 €-tik gorako erosketak egitearren.

Deskontu hori zure hurrengo erosketan trukatu ahal izango duzu, 2013ko abenduaren 17tik 2014ko urtarrilaren 6ra.

*Hauek ez dira jostailutzat hartzen: bidejokoak, kontsolak eta bizikletak.

Jostailuak aldatu edo bueltatu ahal izango dituzu 2014ko urtarrilaren 12ra arte, erosketa-txartela eta produktuaren jatorrizko enbalajea aurkeztuta. Eskaintza honen barruan erositako produktuak bueltatzeko berekin dakar eskuratutako deskontua bueltatzeko betebeharra. Eskaintza baliagarria Carrefour Gorbeia hipermerkatuan bakarrik.

Abenduaren 16ra arte

3x2

5.000 produktu baino gehiago
3x2 promozioarekin

60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Joan-Etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabari Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube) - Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

AP 68 **Laudio - Amurrio - Urduña** AP 1

AP 1 **Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza**

Doan

Autobideko bidesaria

carrefour.es

Abenduaren 31era arte



Jose Antonio Altuna

JMA enpresako bazkidea

Lanlekue be euskaldundu daigun

Aspaldi igerri geuen geure enpresie euskaldundu biherra. Eskolie, kulturie, astialdixe... euskaldunketako pasuek emuten ebitziela; hedabide euskaldunek sortzen ebitziela... Eta lanlekue be euskaldundu biherra euela. Holaxe hasi gitzen oin dala 20 urte baiño gehixau geure enpresan. Asko aurreratu dogu. Egun, JMAREN barruko jardunien, hizkuntza nagusixe euskera da eta kanpoko jardunien, aukerak dauzenien, euskerari sarbidie emuten dutzogu.

Euskera da gure erreminttarik inportantiena *gure asmoak* herri moduen betetzeko. Bestetik, euskeraren erabillerie geure lanlekuetan bultzetu gure dogu. Horretan lagungarri dittugu eskualdeko euskerazko hedabidiek: Goienakuek.

**Goienari esker
ohittu gare asko
euskeraz leiduten**

Goguen dauket *Arrasate Press*-en sorrerie. Eta baitte Goienarena be. Urrats haundixe izen zen baillara osorako euskerazko komunikaziño proiektue. Euskeraz leiduten

ohittu naz Goienari eta, aurretik, *Arrasate Press*-ei esker. Konsumiduten dittut gaur egun be. Geure inguruen, ezagunen, enpresen... barri Goienari esker jasoten dogu. Aurrerantzien be holan izen dain, lagundu daixogun!

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trasteleku. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. 630 70 81 23

Bergara. Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Laugarren solairua da. 72 metro koadro. Egongela, sukalde, bi logela, komuna eta trasteleku. Guztiz berriua. Bizitzera sartzeko prest. aukera ezin hobea. 99.999 euro. 618 44 38 44

Bergara. Matxiategi 10ean. 115 metro koadroko etxebizitza salgai. Berriua eta oso argitsua. 650 60 26 55

Duplexa salgai Oñatin. 88 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalean. Sukalde, egongela, bi komun, estudioa, bi logela eta gela txiki bat dauzka. Igogailudun eraikuntza berriko etxea. 625 70 54 44 edo 607 58 00 99

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukalde, egongela, bainugela. Denak kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igogailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Behoko auzoan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, komuna eta sukalde. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 79 60 38

Antzuolan duplexa errentan. Herri erdian kokatua. Duplex dotorea. Behoko solairuan sarrera-egongela-sukalde, zabalik, logela bat eta bainugela guztiz jantzia. Atikoan, 50 metro koadroko logela eta egongela. 550 €. 699 92 18 60

Arrasate. Ferrerías kalean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bainugela eta sukalde-egongela. Igogailuarekin. Etxe berria. 550 euro hilean, negoziagarri. 652 76 21 63

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bainugela bat eta sukalde-egongela. Igogailuarekin. Merke. 619 69 23 36

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. 669 30 16 89

Bergara. Etxebizitza behardugu errentan. Gehienez, 400 euro ordaintzeko. 631 36 17 62

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Sarrailarekin. Tebista gelan bertan. Josean. Deitu telefono honetara: 603 14 28 89.

Arrasate. Logelak behar dira atzeritik etorriko diren ikasle batzuentzako. Otsailaren haise-ratik ekainaren amaiera arte. Deitu telefono honetara: 656 77 66 32

Bergara. Logelak emango nituzke errentan Zubiaurre inguruan. Emakumeentzat nahiago. Deitu telefono honetara: 637 18 07 23

2. GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Behoko auzoan garaje itxia salgai. Deitu telefono honetara: 699 79 60 38

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60 edo 689 36 86 42

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garaje itxia hartuko nuke errentan. 672 31 42 97

Autokarabandako garajea. Antzuolan edo Bergaran autokarabanda sartzeko garajen bat topatzea gustatuko litzaidake. 676 20 74 35

Bergara. Garajea errentan hartuko nuke Artzamendi kalean. 658 74 73 23

4. LANA

402. ESKAERA

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Haur Hezkuntza graduatua den gazte euskalduna prest haurrak zaintzeko: eskolara eramateko, gaixorik jarriz gero beraiekin egoteko... Esperientzia haurrekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 87 12 97

Arrasate edo Bergara. Laguntza behar duten nagusien zaintzarako formazioa dut eta lan bila nabil. Zaintzan, garbitasunean zein etxeko lanak egiten jardun naiteke. 943 08 14 33

Arrasate. 50 urteko emakumea haurren zaintzan zein etxeko lanetan jarduteko prest eskaintzen da. Esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 67 97 84

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Sukalde laguntzaile gisa lan egingo nuke: pintxoak, platerak eta abar. Zazpi urteko esperientzia daukat sukaldean. Garbiketare ere egingo nituzke taberna, elkarte eta abarretan. 722 45 33 59

Bergara, Antzuola eta Zumarraga. Esperientzia eta erreferentziadun bikotea garbitasunean lan egiteko gertu: etxeak, atariak, elkarrekin, bulegoak... Langileak gara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 91 81 73

Bergaran, Arrasate edo Oñati. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna eta sei hilabetez San Juan de Diosen lan egindakoa, erizaintza ofizial moduan. Gauetan ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Debagoiena. Erizain graduatua lana aurkitu nahi du osasun arloan: ospitaleak, klinikak eta egoitzak. 628 30 00 28

Debagoiena. 24 urteko neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Erizaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia daukat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa daukat. 617 20 59 43

Debagoiena. Asteburuetan orduka edo gauetan lan egingo nuke. Legezko paperak, gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 83 32 68

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanetan, tabernan, sukaldean zein nagusiak eta umeak zaintzen lan egiteko. Autoa daukat. 636 11 23 40

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunirik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

IGOGAILUETAKO TEKNIKARIA

5 urteko eskarmentu minimoa. Euskara ezinbestekoa. Debagoienez bizi zateza. Kontratu finkoa. info@ascensoreshemen.com

GARBITZAILEA

Pertsona euskalduna behar da astean bi egunetan, denera lau orduz Arrasaten bulegoa garbitzeko. Ekarri curriculuma AEDko bulegora edo bidali aed@aedkarte.com helbidera. Epea: abenduak 20.

Debagoiena. Emakumea gertu haurrak eta nagusiak zaintzeko, interna egoteko, garbiketarako egiteko, tabernan nahiz sukaldean lan egiteko. Gidabaimenduna eta autoduna. Debagoienako edozein herritan lan egiteko gertu, baita baserri auzoetan ere. Deitu telefono honetara: 697 20 00 86,

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu, nagusiak zaintzen, garbitasunean. Etxean bizi izaten, egunez, orduka zein gauetan. Deitu telefono honetara: 638 59 04 71

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusi edo umeak zaindu, garbiketarako eta abar. Egunez, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu telefono honetara: 673 78 08 99

Debagoiena. Emakumea gertu haurrak eta nagusiak zaintzeko, interna egoteko, garbiketarako egiteko, tabernan nahiz sukaldean lan egiteko. Gidabaimenduna eta autoduna. Debagoienako edozein herritan lan egiteko gertu, baita baserri auzoetan ere. Deitu telefono honetara: 634 40 64 65

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanak egiten edo mekanikari laguntzaile jardungo nintzateke. 603 06 66 71

Debagoiena. Lan behar dut, urgentziak. Edozetan lan egingo nuke. 606 24 79 09

Debagoiena. Mutil arduratsua eta erreferentziaduna lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, ospital zein egoitzetan eta abar. Egun osoz, orduka edota asteburuetan. Deitu telefono honetara: 685 42 72 80

Debagoiena. Mutil arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaindu eta sukaldeko laguntzaile lanak egiteko gertu. 943 04 46 37 edo 658 74 94 63

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketarako, sukalde laguntzaile, gidari, eraikuntzan eta abar. Ez deitu sexu proposamenak egiteko, mesedez. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Deitu telefono honetara: 699 09 46 26

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edota garbitasunean lan egingo nuke. Esperientzia dut geriatrian eta erizain laguntzaile moduan. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta atari, taberna, elkarte eta abarretan garbitasun lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono honetara: 625 86 99 51

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarako egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua, oinarriko sukaldaritzeta eta geriatria ikasketaduna, nagusiak zaindu edo garbitasun lanetan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 615 06 28 04

bertan bizi izaten edo bestela. Garbitasun lanetan ere bai. 602 64 68 17.

Debagoiena. Neska lanerako gertu: tabernatan, etxean eta abar. Neska arduratsua, langilea eta euskalerritarra. 943 53 28 45 edo 659 34 31 43

Debagoiena. Orduka, egun erdiz edo osoz lan egingo nuke. Nagusiak zaintzen, garbitasunean, tabernan eta abar. 671 18 50 83 edo 943 10 96 89

Klinika laguntzaile. 25 urteko esperientziadun klinikako laguntzaile naiz. Ospitalean jendea zaintzeko prest nago. 609 98 02 52

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Fisika eta kimika. Batxilergoa ikasten diharduen mutiko bati fisika eta kimika eskola partikularrik emateko norbait behar dugu. Aretxabaletan. 649 55 48 10

502. EMAN

Bergara. Ingeles eskola partikularrik ematen ditut. Kanada eta Erresuma Batuan esperientziaduna prest ingeleseko partikularrik emateko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta gazteei. 699 01 85 84

6. MOTORRA

601. SALDU

Ford Transit Nugget. furgoneta, 140 ZP, 6 abiadura, 38.000 km eta 2009 urtekoa. Guztiz ekipatua eta egoera oso onean. 652 73 12 56

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Hamsterrak. Hamsterrak ematen dira opari. Kaiola ekarri behar da. Amaia. 617 90 78 17

8. DENETARIK

802. EROSI

Motozerra. Stihl etxeko motozerra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98

Ogia egiteko makina. Soberran daukazun ogia egiteko makina hori saldu nahi baduzu deitu telefono honetara: 666 45 87 32

804. HARTU

Moisesarentzako gupilak. Moises kapazo batendako gupilak behar ditut. Emateko edo saltzeko badituzu, gustura hartuko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 73 43

Poltsikoko egutegiak. Poltsikoko egutegi txikiak hartuko nituzke. Edozein urte eta irudikatukoizan daitezke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 17 15 88

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. gimnasia egiteko beste aparatu bategatik aldatuko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 79 51 89

806. GALDU

Landarea. "Diru landarea" galdu dut Bergaran, Ninika lora denda eta Artzamendi artean. Aurkitu duenak dei dezala zenbaki honetara: 943 76 52 39

807. AURKITU

Kandatuak. Kandatu sorta bat aurkitu nuen Ibargarai kalean azaro hasiera aldera. Galdu duenak dei dezala zenbaki honetara: 656 76 67 70

808. BESTELAKOAK

Informatikaria. Nire webgunea 103 orriko poesia lana jarriko didan informatikaria behar dut. Prezioa adosteko. Manu. 699 77 86 38

*** Txikiandia ***
Urtarrilak 2-3-4 Arrasaten 2014

Urtarrilak 2
11:00-14:00 MUSAKOLAKO IGERILEKUAN: puzgarriak, jolasak...
17:00-20:00 UARCAPEKO PILOALEKUAN jolas parkea:
serigrafia, rokoformoa, tafierrak, looteka, Wi Gunea, jolas erraboiak, ohe elastikoak, pun kontalariak, karaokoa, puzgarriak...

Urtarrilak 3 eta 4
11:00-14:00 / 17:00-20:00 UARCAPEKO PILOALEKUAN jolas parkea
URTARRILAK 4, 19:00ean IKUSKIZUNA GAZTETXEAN Arrantzara Pantzari!

guroso.com
goiena
txatxilipurdi

ASTEAGOIENAN



'Goiena.net'-en urteurrena berbagai

Goiena.net atariak 10 urte bete ditu eta Arrasate Press sortu zela 25 urte pasa dira; bada, gai horri buruzko eta euskal hedabideei buruzko erreportaje berezia eskainiko dizuegu Jon Berezi-barrek aurkeztutako AsteOn saioan gaur, egubakoitza.

'AsteOn' Egubakoitza, 21:40



Bergarako Kantariko azken saioak

Datorren astean eskainiko ditugu Bergarako Kantariko azken saioak. Martitzeneko saioan (19:33) Elgetako eta Bergarako gaztetxoak izango ditugu eta egueneko saioan, berri, Antzuolako gaztetxo kantariak ikusiko ditugu kantuan eta dantzan.

'Kantari' Martitza, 19:33

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 13

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Kantari
- 13:30 Bideo klipak
- 13:40 Durangoko azoka
- 14:25 Planik bai?
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Ikusi irratia
- 15:54 Zorion Agurrak
- 16:04 Planik bai?
- 16:28 Berriak
- 16:53 Eguraldia
- 16:56 Ekogune
- 17:26 Bideo klipak
- 17:37 Aniztasunean bizi
- 17:57 Klaketa
- 18:34 Planik bai?
- 18:54 Zorion Agurrak
- 19:00 Berriak
- 19:30 Eguraldia
- 19:35 Bideo klipak
- 19:45 Klaketa
- 20:22 Planik bai?
- 20:47 Zorion Agurrak
- 20:52 Berriak
- 21:17 Eguraldia
- 21:20 Planik bai?
- 21:40 AsteON
- 22:10 Durangoko azoka
- 22:55 Planik bai?
- 23:15 Berriak
- 23:40 Eguraldia
- 23:43 AsteON

ZAPATUA, 14

- 10:00 Bideo klipak
- 10:30 Ur eta lur
- 11:08 Ikusten: Dantzari eguna
- 12:11 Planik bai?
- 12:31 Berriak
- 12:46 Kantari
- 13:46 Onein: Mero papillotea
- 14:12 Bideo klipak
- 14:42 Ikusi irratia: Samba Dzanga
- 15:23 Magazinea
- 16:23 AsteON
- 17:03 Zorion agurrak
- 17:08 Onein: Nahaskia
- 17:40 Planik bai?
- 18:00 AsteON
- 18:40 Atik Zra: Herritarren segurtasun legea
- 19:30 Ekogune
- 20:00 Zorion agurrak
- 20:05 Kantari
- 21:05 Berriak
- 21:20 Planik bai?
- 21:40 AsteON
- 22:10 Planik bai?
- 22:30 Ekogune
- 23:00 Ilusio gaua
- 00:15 Tronpeta eta organo kontzertua
- 00:52 AsteON

DOMEKA, 15

- 10:00 Magazinea
- 11:00 Zorion agurrak
- 11:05 Ekogune
- 11:35 Onein: Nahaskia
- 12:07 Berriak
- 12:22 Planik bai?
- 12:42 Magazinea
- 13:42 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
- 13:57 Ilusio gaua
- 15:09 Aniztasunean bizi
- 15:29 Zorion agurrak
- 15:56 AsteON
- 16:36 Tronpeta eta organo kontzertua
- 17:13 Kantari
- 18:13 Magazinea
- 19:13 Bideo klipak
- 19:34 Aniztasunean bizi
- 19:54 Bideo klipak
- 20:24 Zorion agurrak
- 20:29 Tronpeta eta organo kontzertua
- 21:06 AsteON
- 21:36 Magazinea
- 22:36 Berriak
- 22:51 Ekogune
- 23:21 Zine eta bideo bilera

ASTELEHENA, 16

- 12:00 Zine eta bideo bilera
- 13:15 Erreportajea
- 13:30 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
- 13:45 Ekogune
- 14:14 Onein: Nahaskia
- 14:45 Berriak
- 15:15 Eguraldia
- 15:18 Zorion agurrak
- 15:23 Ur eta lur
- 16:01 Onein: Berenjena beteak
- 16:31 Berriak
- 17:01 Eguraldia
- 17:04 Zorion agurrak
- 17:09 Bideo klipak
- 17:45 Klaketa
- 18:25 Ekogune
- 18:55 Zorion agurrak
- 19:02 Berriak
- 19:27 Eguraldia
- 19:30 Ekogune
- 20:05 Zorion agurrak
- 20:12 Harreman, 20 urte
- 21:24 Berriak
- 21:49 Eguraldia
- 21:54 Zine eta bideo bilera
- 23:09 Berriak
- 23:34 Eguraldia
- 23:37 Gurean Gaur

MARTITZENA, 17

- 12:00 Harreman, 20 urte
- 13:15 Aizank!
- 14:00 Aniztasunean bizi
- 14:23 Ikusmira: Zine eta bideo bilera
- 14:38 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Ikusi irratia: Samba Dzanga
- 15:55 Onein: Pudina
- 16:15 Zorion agurrak
- 16:22 Berriak
- 16:42 Eguraldia
- 16:45 Zorion agurrak
- 16:50 Klaketa
- 17:33 AsteON
- 18:18 Tronpeta eta organo kontzertua
- 18:55 Zorion agurrak
- 19:00 Berriak
- 19:25 Eguraldia
- 19:28 Zorion agurrak
- 19:33 Kantari
- 20:03 Zorion agurrak
- 20:11 Zine eta bideo bilera
- 21:26 Berriak
- 21:51 Eguraldia
- 21:54 Aizank!
- 22:39 Berriak
- 23:04 Eguraldia
- 23:07 Ilusio gaua
- 00:19 Gurean Gaur

EGUAZTENA, 18

- 12:00 Tronpeta eta organo kontzertua
- 12:37 Onein: Berenjena beteak
- 13:07 Kantari
- 13:37 Aniztasunean bizi
- 13:57 Bideo klipak
- 14:12 Ekogune
- 14:42 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Aizank!
- 15:58 Ikusmira: Zine eta bideo bilera
- 16:11 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
- 16:26 Zorion agurrak
- 16:31 Berriak
- 16:56 Eguraldia
- 16:59 Atik Zra: Herritarren segurtasun legea
- 17:51 Ur eta lur
- 18:29 AsteON
- 19:00 Berriak
- 19:20 Eguraldia
- 19:23 Bideo klipak
- 19:40 Zine eta bideo bilera
- 20:55 Berriak
- 21:20 Eguraldia
- 21:22 Ekogune
- 21:52 Ikusi irratia: Samba Dzanga
- 22:37 Berriak
- 23:22 Eguraldia
- 23:52 Gurean Gaur

EGUENA, 19

- 12:00 Ikusi irratia: Samba Dzanga
- 12:43 Onein: Pudina
- 13:03 Ikusi irratia: Samba Dzanga
- 13:44 Bideo klipak
- 14:09 Ekogune
- 14:39 Zorion agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 AsteON
- 15:53 Bideo klipak
- 16:05 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
- 16:20 Zorion agurrak
- 16:30 Berriak
- 16:55 Eguraldia
- 16:58 Ikusmira: Zine eta bideo bilera
- 17:11 Aniztasunean bizi
- 17:31 Ekogune
- 18:06 Tronpeta eta organo kontzertua
- 18:51 Zorion agurrak
- 19:00 Berriak
- 19:20 Eguraldia
- 19:23 AsteON
- 20:03 Kantari
- 20:31 Berriak
- 20:56 Eguraldia
- 20:59 Harreman, 20 urte
- 22:14 Berriak
- 22:44 Eguraldia
- 22:47 Ilusio gaua
- 00:02 Gurean Gaur

ARRASATE IRRATIA

Santamasetako bertso jaialdirako sarrerak zozketan

Hilaren 22an egingo da Santamasetako bertso jaialdia, 20:30ean, Amaia antzokian. Bertara joan nahi baduzu, irabazi sarrerak gure zozketan parte hartuta. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera eta hartu parte zozketan. Zor-te ona izan dezazula!

Asteko gainbegiratua zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Astean zehar Arrasate Irratian egin ditugun elkarrizketen gainbegiratua egingo dugu asteburuan. *Komunikazioa-Inkomunikazioa* dantza ikuskizunari buruz hitz egin digu Mireia Gabilondo ikuskizuneko zuzendariak eta elkarrizketa hori entzun ahal izango duzue, besteak beste.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 13	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Zapatua, 14	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 15	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 16	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Martitza, 17	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguaztena, 18	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Eguena, 19	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
BERGARA			
Egubakoitza, 13	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 14	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 15	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 16	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitza, 17	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 18	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 19	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
OÑATI			
Egubakoitza, 13	ANDUAGA	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 14	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 15	ANDUAGA	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 16	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitza, 17	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 18	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 19	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



ZAPATUA, 14
Eguraldiak hobera egingo du berehala. Goizean euria egiteko arriskua egongo da, baina gero ostarteak zabalduko dira.

DOMEKA, 15
Eguraldiak hobera egiten jarraituko du. Ostarteak ugaritu egingo dira eta tenperaturak gora egingo du.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Begiraleak. Txatxilipurdi Elkar- tea. Urtarrilaren 2tik 5era bitartean egingo den Txikilandia Gabonetako parkerako begiraleak. Epea: abenduak 13. Curriculum bidali *haurrak@txatxilipurdi.com*-era.

Begiraleak. Eskoriatzako Udala. Abenduaren 27an eta 28an egingo den Gabonetako parkerako begiraleak. Epea: abenduak 13. Curriculum, *gazteria@eskoriatza.net*-era.

Begiraleak. BBVA. Ruta Quez- zal proiektuan aritzeko begiraleak behar dira. Azken eguna izango da: otsailak 14.

BEKAK

Praktikak atzerriko enpre- setan. EHU. 65 beka Erresu- ma Batua, Italia, Txekiar Erre- publikua, Portugal, Irlanda, Aus-

tria eta Alemaniako enpresetan praktikak egiteko. Baldintzak: EHU/UPVko tituluduna izatea, langabezian egotea, 30 urte baino gutxiago izatea, 2009-2010 ikasturtean edo ondoren ikasketak bukatuak izatea, hirugarren zikloa izan ezik. Epea: urtarrilak 13.

Ikus-entzunezkoak. Unesco. *Eman minutu bat ogiaren alde*, elikadurarako giza eskubideari buruz kontzientzia zabaltzeko lehiaketa. Gehienez ere minutu bateko iraupena izango dute eta nahi beste lan aurkez daitezke. Azken eguna izango da: urtarrilak 14.

LEHIAKETAK

Argazkiak. Arrasate Zero Zabor. Kontsumoaren gaineko argazki lehiaketa. Gura beste argazki aurkez daitezke. Azken eguna izango da: urtarrilak 7.




INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net* Oñatiako Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | *gazteinformazioa@oinati.net*

OROIGARRIA

Luis Mari Ruiz de Azua Ibabe

'Trallas'



Entzutean Bajuengo kantuaren hotsa alaituko da zure bihotza ozen aterako dugu gure ahotsa gugar izango zara ez da heriotza.

Ruiz de Azua lehengusuak.
Aramaion (Barajuen), 2013ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

**Luis Mari Ruiz de Azua Ibabe**

2013ko abenduaren 9an hil zen, 52 urte zituela.

Zure ahotsaren oihartzune eta bixotzetik jaixo jatzun irrixe gurekin geratzen da.

Aramaion (Barajuen), 2013ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

Valentin Mondragon Oñate

Anabel Mondragon lankidearen aita




Donostian hil zen 2013ko abenduaren 4an, 84 urte zituela.

Ez agurrik, ez adionik, gero arte bakarrik.

arizmendi ikastola

Arizmendi Ikastolako langileak, gurasoak eta kolaboratzaileak.
Leintz Bailaran, 2013ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

**Jose Antonio Saracibar Lopez**

2013ko abenduaren 10ean hil zen.

Betiko izango zaitugu gogoan.

Musakolako kuadrilla.
Arrasaten (Musakola), 2013ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

Adolfo Gomez Ruiz de Vergara

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Hamaika Gazte elkarte.
Arrasaten, 2013ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

**Jose M. Izurrategui Viteri**

Irunen hil zen 2013ko abenduaren 9an, 70 urte zituela.

Haren emaztea: Juli Cortabarría.

Gure ondotik joan zara baina beti izango zaitugu gure bihotzetan.

Etxeokak.
Eskoriatzan, 2013ko abenduaren 13an.

ESKER ONA

Pedro Larrañaga Eguren

'Pedro Amatei'



Oñatin hil zen 2013ko abenduaren 5ean, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko abenduaren 13an.

URTEURRENA


Seberiana Olasolo Eizagirre

2012ko abenduaren 10ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko abenduaren 13an.

URTEURRENA

Marcos Cortabarría Lete

2012ko abenduaren 22an hil zen, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko abenduaren 13an.

HILDAKOAK

Pedro Larrañaga Eguren. Oñatin, abenduaren 5ean. 73 urte.
Manuel Calleja Martis. Arrasaten, abenduaren 8an. 44 urte.
Jose Luis Atxa Altuna. Arrasaten, abenduaren 8an. 76 urte.
M. Lourdes Azkoaga Aldanondo. Arrasaten, abenduaren 8an. 96 urte.
Justo Marcos Perez. Oñatin, abenduaren 8an. 82 urte.
Eugenia Zabala Iburguren. Aramaion, abenduaren 8an. 80 urte.
Luis Mari Ruiz de Azua Ibabe. Aramaion, abenduaren 9an. 52 urte.
Monika Aranguren Iribekanzos. Arrasaten, abenduaren 9an. 91 urte.
Jose Mari Izurrategi Biteri. Irunen, abenduaren 9an. 70 urte.
Jose Antonio Sarazibar Lopez. Arrasaten, abenduaren 10ean. 67 urte.
Jose Zulueta Uribe. Arrasaten, abenduaren 10ean. 92 urte.
Adolfo Gomez Ruiz de Vergara. Arrasaten, abenduaren 11n. 74 urte.

URTEURRENA

Luis Igartua Irizar

2012ko abenduaren 9an hil zen.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 14an, 19:00etan, Oñatiko San Migel eliza nagusian.

Umoretsua zinen guztien gainetik, nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez dezu aldegingo ez zeneukan faltik gure bihotzetik.

Aurrez esker on bertaratzen zareten guztioi.
Oñatin, 2013ko abenduaren 13an.

URTEURRENA

**Andresa Anduaga Markuleta**

Oñatin hil zen 2012ko abenduaren 5ean, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 14an, 19:00etan, Oñatiko San Migel eliza nagusian.

Urtebete da eguna goibeldu zela. Amasari eusteko borrokan, saseguan, bihotz taupadak eten zitzaizkizula. Zuk utzitako arrastoak, orde, sendo eta tinko dirau gugar.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2013ko abenduaren 13an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta arduraren handienarekin, nire asmoa da familiarari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

MUSIKA

ELGETA 'Gabrielen lekua' sentikaria

Gabriel Arestiri omenaldia egingo diote Andoni Egañak, Rafa Ruedak, Oier Guillanek eta Alain Urrutiak.

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

BERGARA Viva Bazooka taldea

Talde gasteiztarrak zuzeneko egingo du Bergaran. Doako emanaldia izango da

Gaur, egubakoitza, Laino Skate gunean, 22:30ean.

ARRASATE The Jesus Grip taldea

Whiski usain eta tabako kearen hizketaldi batean sortu zen The Jesus Grip egitasmoa. Gorka Bilbao (*Lines*) eta Ina Solaetxe (*Montaña*) dira taldeko kideak. Doako emanaldia da.

Bihar, zapatua, Iluntz tabernan, 18:00etan.

BERGARA Ai Ene! taldearekin erromeria

II. Trikiti Eguna ospatuko dute Bergaran, eta egongo diren ekintzen artean, Ai Ene! taldearen erromeria dago. Besteak beste, kantu eta pandero tailerrak egingo dituzte egunean zehar.

Bihar, zapatua, Munibe plazan, 19:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua

Udal Musika Bandak, Oñati abesbatzak, Parrokiako koruak, Ganbara abesbatzak, Ganbara Gazte abesbatzak, Ganbara Txiki abesbatzak, eta Txantxiku Ikastolako

ESKORIATZA Inkernu tabernaren 10. urteurrena

Hamarkada ospatzeko bi kontzertu egongo dira tabernan aste bukaeran: egubakoitzean Eratu taldea izango da protagonista *Ispilu iluna* diskoa aurkeztuz; eta zapatuan Sei Urte, *Atlantida* lan berriarekin. Biak ala biak doako emanaldiak izango dira.

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean.



MUGAROCKMARTXAN.BLOGSPOT.COM

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

ABENDUA 13
ABENDUA 20

abesbatzak parte hartuko dute. Inazio Ibarrondok zuzenduko du. Kontzertuan batutako dirua Maliko proiektura bideratuko dute. Etzi, domeka, Mikel Deuna parrokiari, 19:00etan.

OÑATI Occhi di Farfalla bikote akustikoaren emanaldia

Zarauzko bikoteak letra feministaz eta rock doinuaz jantzitako

proiektu akustikoa aurkeztuko du Oñatin.

Etzi, domeka, Antixenan, 20:00etan.

ANTZERKIA

OÑATI 'Emaztegiaren semea' antzezlan

Ados antzerki taldearekin. Asier Hormaza, Sara Cozar, Kandido Uranga, Iñake Irastortza eta Mikel Laskurain dira protagonistak.

Gaur, egubakoitza, Santa Ana, 22:30ean.

OÑATI 'Ikusi mendizaleak', Hipo eta Tomaxekin

Urgain-Errekalde guraso elkar-tearen eskutik. Sarrerak hilaren

13an salduko dira, lau eurotan, Errekalde Herri Eskolan, arratsaldean.

Bihar, zapatua, Zuazola Institutuan, 17:30ean.

OÑATI 'Vir en Villa Titiritaina' antzezlan

Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldeak prestatutako antzezlan. Elkarrekin bizi izaten hasten diren sei pertsona helduren istorioak kontatzen ditu.

Bihar, zapatua, Santa Anan, 21:30ean.

BERGARA 'Hansel eta Gretel txokolatezko etxea' antzezlan

3 eta 9 urte arteko umeendako. Sarrerak lau eurotan salduko dituzte.

Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.

DANTZA

ARRASATE Dantza saioa

Kukai dantza taldearen eta Tanttaka antzerki taldearen laugarren elkarlana da *Komunikazioa-Inkomunikazioa*. Mikel Laboaren izen bereko lana du inspirazio iturri. Hortik abiatuta gai unibertsalak landu dituzte Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako ikuskizunean.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

IKUSKIZUNAK

ARETXABALETA Zirku tailerreko emanaldia



komunikazioa
inkomunikazioa

Kukai - Tanttaka

DANTZA IKUSKIZUNA

Non: Amaia Udal Antzokia

Noiz: Abenduak 14, zapatua, 19:30ean

Sarrera: 12€

SARRERA SALMENTA:

www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



OIHULARI KLOWN

BERGARA 'Sex o no sex', Oihulari Klownekin

Oihulari Klownek estreinaldia egingo du Bergaran. Bizitza, heriotza eta sexua hizpide dituen *Pauxa* pailazoa da protagonista nagusia. Virginia Imaz sartuko da *Pauxa*-ren paperean. Umorez eta maitasunez landuko ditu hiru arlo horiek. Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

Zirku tailerrean parte hartzen duten neska-mutikoen saioa. Bihar, zapatua, Zariaian, 13:00etan.

OÑATI Kantariko grabazioak

Kantari karaoke ikuskizuneko saioak grabatuko dituzte. 8 eta 12 urte arteko 100 bat neska-mutikok parte hartuko dute. Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan hasita.

ERAKUSKETA**ARRASATE Maite Urtzelai**

Artista arrasatearraren margolanak ikusgai daude Harresi aretoan. Abenduaren 19ra arte, Harresi aretoan, arratsaldean.

OÑATI Ganbara Txikiri buruzkoa

Ganbara Txiki: 10 urte kantuarrekin biziz, kantuarekin haziz erakusketa ipini dute. Abesbartzaren ibilbidea laburtzen duen erakusketa da. Abenduaren 31ra arte, Kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA Taila elkarteko kideen lanak

Taila elkarteko kideen lanak ikusgai. Abenduaren 22ra arte, Aroztegin, arratsaldean.

OSPAKIZUNAK**ARETXABALETA 90 urte egin duten Basotxoko bazkideei omenaldia**

Santa Luzia egunean egingo die aurtan 90 urte bete dituzten bazkideei omenaldia. Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, dantzarien eta trikitilarien emanaldiak. Gainera, kantu taldeak hainbat pieza eskainiko ditu. Omenaldia bukatzeko, txokolata eta bizkotxoak banatuko diete omenaldian batutako herritar guztiei. Gaur, egubakoitza, Basotxon, 17:00etan.

OÑATI 'Elkar Hezi taupadak' azoka

Gobernuz kanpoko erakundeen postuak eta tailerrak egongo dira, besteak beste. Elikagaiak, arropa eta oinetakoak erosteko aukera. Bihar, zapatua, Foruen plazan, 10:00etan hasita.

ARRASATE 'Ganorazko keinuak'

Ganorazko keinuak, birziklapena, berrerabilpena eta kontsumo

arduratsua bultzatzeko askotariko ekintzak egingo dituzte. Bihar, zapatua, herriko hainbat gunetan, 10:00etan hasita.

UMEAK**ARETXABALETA 'Hiru lumak' ipuin kontaketa**

Rosa Martinez ipuin kontalararen saioa. 4 urtetik gorako umeendako emanaldia izango da. Bihar, zapatua, udal liburutegian, 11:30ean.

IRTEERA**OÑATI Sierra Peñara, Aloña Mendiko mendi sailarekin**

Urbasa inguruetara egingo dute urteko azken mendi irteera: hain zuzen, Andoin-Kuartandi- Biotz kanpina. Etzi, domeka, postetxeko geltokitik, 08:00etan.

HITZALDIAK**OÑATI Doluari buruzko berbaldia**

Izaskun Andonegik *Es Navidad y en mi casa hay una silla vacia* delako berbaldia egingo du. Gertuko pertsonaren baten heriotza sufritu dutenendako hitzaldia da. Alegia, doluan daudenendako. Bihar, zapatua, Asis topagunean, 10:00etan.

BESTELAKOAK**ARRASATE Bertso emanaldirako sarrerak salgai**

Maddi Sarasuak, Agin Laburuk, Beñat Gaztelumendik eta Sebastian Lizasok egingo duten emanaldirako sarrerak salgai daude AED elkartearen bulegoan eta Irati tabernan, 10 eurotan. Monte tabernan, hilaren 20tik aurrera. Gaurtik, AEDn eta Irati tabernan.

OÑATI Bertso emanaldirako sarrerak

Errege Egunaren bezperan egingo duten bertso emanaldirako sarrerak hilaren 16an ipiniko dituzte salgai Txokolateixan. BECeko finaleko zortzi bertsolariak egingo dira Oñatiko emanaldian. Abenduaren 16tik, Txokolateixan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Blue Jasmine
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Doraemon eta Nobita Holmes
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

La vida de Adele
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Lucius Dumb (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Septimo
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Justin y la espada del valor
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Antes del anochecer
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Pacto de silencio
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Vaya pavos, 3D
Zapatua eta domeka: 17:00.

Tres bodas mas
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**GORBEIA**

El Hobbit 2
Egubakoitza: 18:00, 21:15.
Zapatua: 15:30, 18:45, 22:00.
Domeka: 18:00, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

El Hobbit 3D
Egubakoitza: 18:30, 21:45.
Zapatua: 17:00, 20:15, 23:30.
Domeka: 12:10, 17:00, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 17:45.

iVaya pavos!
Egubakoitza: 17:45.
Zapatua: 17:45, 19:45.
Domeka: 12:15, 17:45.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Tres bodas de mas
Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 20:20, 22:20.
Domeka: 12:15, 18:20, 20:20, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

iVaya pavos, 3D!
Egubakoitza: 19:45.
Zapatua: 15:50.
Domeka: 15:50, 19:45.

Opera Met
Zapatua: 19:00.

Carrie
Egubakoitza: 22:10.
Zapatua: 22:10, 00:30.
Domeka: 22:10.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El consejero
Egubakoitza: 20:20, 22:40.
Zapatua: 22:40.
Domeka: 20:20, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

Frozen
Egubakoitza: 18:10.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:20.
Domeka: 12:20, 16:00, 18:10.
Astelehenetik eguenera: 18:15.

Frozen 3D
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua: 15:40.
Domeka: 17:15.

Los juegos del hambre: en llamas
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

Turbo
Zapatua eta domeka: 16:20.
Astelehenetik eguenera: 20:50.

Septimo
Domeka: 16:10.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

GORBEIA

El Hobbit 2
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00, 20:00.
Eguena: 17:00.

De tal padre, tal hijo
Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

Frozen
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:20.

El extraordinario viaje de Lucius Dumb
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Lore
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 18:40, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:00.

Tres bodas de mas
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Le week-end
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Los juegos del hambre: en llamas
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Diana
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Blue Jasmine
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:45.

El consejero
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

BOULEVARD

El Hobbit 2
Egubakoitza: 20:00, 23:15.
Zapatua eta domeka: 16:45, 23:15.
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 19:00, 22:15.
Domeka: 18:30, 21:45.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 19:30.

El Hobbit 2, 3D
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

12 años de esclavitud
Egubakoitza eta zapatua: 00:10.
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egubakoitzetik domekara: 18:50, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:40, 20:20.

Diana
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:05, 22:25.
Astelehenetik eguenera: 17:45, 20:05.

Los juegos del hambre: en llamas
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera:

18:45.

Frozen
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:55, 20:10.

Frozen 3D
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domekara: 18:15.

Plan de escape
Egubakoitzetik domekara: 20:25, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 18:10, 20:35.

Tres bodas mas
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Zapatua eta domeka: 16:40.
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 20:40, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 18:40.

Doraemon eta Nobita Holmes
Zapatua: 16:00.

Zipi y Zape
Zapatua: 16:00.

Carrie
Egubakoitzetik domekara: 18:05, 20:10.
Astelehenetik eguenera: 18:05.

El consejero
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik domekara: 22:15.
Astelehenetik eguenera: 20:25.

Blue Jasmine
Egubakoitza: 17:30.

Septimo
Domeka: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
00:15.

KRITIKA**FROZEN, EL REINO DEL HIELO**

★★★★★

Zuzendaria: Chris Buck eta Jennifer Lee.

Herraldea: AEB.

Urtea: 2013.

Iraupena: 108 minutu.

**Disneyren zigilua**

Animaziozko pelikulek arrakasta handia izaten dute. Haurrak pozik joaten dira horiek ikustera, eta eurekin batera gurasok doaz. Beraz, ez da makala batzen duten dirutza. Egun, ia urte osoan egoten dira haurrei zuzendutako estreinaldiak; baina mota honetako estreinaldiak ugaritzen diren urte sasoiak ere egoten dira. Gaur egun ekoizpen eta talde desberdinak aritzen dira animazio alorrean, eta, konpetentzia handia denez, lanak geroz eta ikusgarriagoak izan daitezten bideratzen dituzte ahaleginak. Ekoizpen horien artean Walt Disney klasiko hutsa da. 1937. urtean ikusleak liluratu zituen *Edurnezuri eta*

zazpi ipotxak-ekin, eta hortik gaur egunera arte film zoragarri asko egin ditu. Denok ezagutzen dituzten osagaiak: ipuin klasikoaren istorioak erabiltzen dituzte, istorio erromantikoekin elementuak nahasten ditu; pertsonaia umoretsuak istorioari ukitu komikoa emateko; musikaren garrantzia; erritmo egokia kontaktzen den istorioari behar duen indarra eta bizitasuna emateko; eta nola ez, lehen mailako teknikak, irudiei ikusgarritasuna eta ahalmen magikoa emateko.

Aipatutako osagai guztiak Disneyren azkeneko lanean, *Frozen, El Reino del Hielo*-n, batzen dira. Andersenen ipuin

bat erabiltzen da hiru dimentsioko pelikula egiteko. Irudiaren aldetik lan ederra da eta istorioa ondo kontatuta dago. Agian, filmaren alde ahulena musikaren atala da. Betidanik Disneyren filmek abesti zoragarriak eskaini dizkigute: *Edurnezuri...*, *Pinotxo*, *Bambi*, *Dumbo*, *Sirenatxoa*, *Ederra eta Piztia*.... Abesti batzuk alaiak, beste batzuk lasaigoak, istorioaren momentu desberdinetara egokitutakoak. Bada, *Frozen*-en kasuan abestiak txepelagoak dira. Dena den, pelikula distiratsua eta sendoa da eta haurrek eta gurasok ondo pasatzeko aukera izango dute.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-12-13

BUKATZEKO

Urteko egunik motzeneko ohitura

- Miel Maiztegi oñatiarrak ez du hutsik egiten Zumarragako Santa Luzia ferian; gaur ere joango da
- Azken 20 urte hauetan, hango ganadu lehiaketako epaimahaikidea da Goiko Bentako Maiztegi

OIHANA ELORTZA | OÑATI

15 bat urte zituela joan zen lehenengo aldiz Miel Maiztegi oñatiarra Zumarragako Santa Luzia feriarra. Aitarekin, zaldiak saltzera. Harrezkero, ez du hutsik egin; ezta aurten ere. Abereak epaitzera doa gaur. Animalien lehiaketako epaimahaikide da azken 20 urte hauetan.

Oinez Arantzazutik

Horrenbestez, ondo ezagutzen du Miel Maiztegi gure bailaran ere estimatua den Santa Luzia eguneko feria. Animalien salerosketak ezagutzen ditu gertutik, batez ere. "Asko aldatu da, izugarri. Lehen, lanerako ziren animaliak eta salmenta onak izaten ziren. Levante aldeko erosle asko izaten ziren eta treneko bagoiak alokatzeten zituzten Zumarragan erositako behi edo zaldiak hara eramateko. Lurra lantzeko makinak etorri ahal eta jendea fabriketan lanean hasi ahala, jaisten joan zen salmenta. Izan dira oso urte txarrak ere, eta azkenaldian indarra hartu du berriz. Okelatarako saltzen dira egun animaliak", kontatu du. "Ordaintzeari buruz, oraindik ere eskura egiten da egun, nahiz eta prezioak jartzeko modua aldatu. Lehen, animalia



Goiko Bentako Miel Maiztegi, etxe aurrean. | IMANOL GALLEGO



Zaldiak Zumarragako Santa Luzia ferian. | GOIERRIKO HITZA

presentzia, izaera eta adina izaten ziren kontuan, esaterako, eta gaur egun pisua ordaintzen da. Askok etxean pisatuta ekartzen dituzte abereak feriarra", jarraitu du. "Erosleak ere ez dira berdinak; egun, Italiara egiten dira salmenta asko. Bestalde, lehen, militarrek ere egoten ziren epaimahaian. Orain, Nafarroako, Arabako, Gipuzkoako eta Frantziako ordezkari bana gaude", zehaztu du.

Santa Luzia feriarra oinez joaten zen garaia gogoan du oraindik Maiztegi: "Artzanburun elurra egonez gero, bezperan ateratzen ginen etxetik. Han lo egin eta feria bukatutakoan bueltatzen ginen etxera. Azkenaldian, baina, egunean bertan egiten dut bidaia. Azkarregi".

Bordelen eta Ingalaterran

Ganadu ferietara joatea gustukoa du Maiztegi eta Bordelen eta Ingalaterran egiten dituztenetan ere egon izan da. Duela gutxi Lizarrakoan izan zen. Eta gaur Zumarragan egongo da, debagoiendar asko bezala. "Ospe handia duen feria da eta oñatiar asko joaten dira urtero. Baita inguruko herrietakoak ere. Iparraldetik eta Erriberatik ere jende asko etortzen da", dio.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Herrian bizi, bertan erosi

Datozen egunetan sartuko gara Gabonetako erri-tualetan: afari-bazkariak antolatu, opariak erosi... Kontsumo-ariketa gogorra egingo dugu gutariko gehienok. Kontsumo-ariketa gogorra eta arduratsua izatetik asko urrundu dena.

Orokorrean kontsumo-ereduaren inguruan sakon hausnartu beharko genukeelakoan nago. Egoera ekonomikoak aukera ematen digu beste eredu batzuk garatzeko eta baliatu egin beharko genuke aukera hori.

Dena den, ez da nire helburua zutabe honetan hausnarketa hori irekitzea. Gauza xumeago baina eraginkorragoa proposatzera nator, atrebentzia ez bada: egingo dugun kontsumoa gure herrian egiteko gonbitarekin nator.

Eskualdeak sasoi gogorak bizi ditu. Krisi ekonomiko orokorrak gogor jo du Debagoiena; Fagorren itxierak asko azkartu eta larritu du gure egoera eskasa eta lehendik kinka larrian dauden denda txikiak etorkizun latza daukate ariketa kontziente kolektibo bat egiten ez badugu.

Norbere herrian-erikaldian egiten baditugu Gabonetako erosketak, guztiok irabaziko dugu. Eskualdeko ekonomia pixka bat mugituko dugu eta herriak bizirik mantentzen lagunduko dugu.

Herrian bizi, bertan erosi, denok irabazi!

INTERSPORT®

LORAMENDI

Aurkitu gaitzazu
facebook-en

<http://www.facebook.com/intersport.loramendi>

ARRASATE
San Andres auzoa 943 77 13 85
Garibai Etorbidea 943 77 01 37

Aprobetxatu
Gabonetako
eskaintza bereziak!
EZ ZAITEZ GALDU

EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

